

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-09-15
ASTELEHENA
465. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM



"Elosua-Soraluze
guneko monumentu
megalitiko kopurua
ez da ohikoa"

Manu Zeberio | Arkeologoa | 8

Edu Muruamendiarazen 'Geltokia',
jaietako arrakastetako bat | 31



Ford Mugarri garaile, 'Pitxi'
Herreroren omenezkoan | 24



Ikasturteari hasiera eman dio Stop
Deshaucios plataformak, Arrasaten | 6



Okerreko hankarekin
hasi dute denboraldia

UDAK bakarrik irabazi du lehenego
jardunaldian; Antzuolak, Bergarak eta
Aloña Mendik galdu egin dute | 22

Asier Ugarte, Aloñako
jokalaria, baloiagatik
lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

Kalean eman dituzte San Martin jaiak bergararrek

Nagusien
danborradak
hartuko dio
gaur testigua
asteburuari | 12-13



Baserriko produktua erosten. | JA

"Borrokaldia"
hasi du Kepa
Arkauz preso
arrasatearrak

Ziega baten emango
du espetxealdia
"kideengandik
isolatuta" dagoela
salatzeko | 6

SINADURAK

	MIRARI ALTUBE 9
	9 MARLJO DEOGRACIAS
	ITSASO ERRETOLATZA 15
	17 MAITE PLAZAOLA
	MARINA ETXEGOIEN 18
	19 NESTOR ARANA
	OIHAN VEGA 37
	40 AINHOA LARRANAGA

Aldarrikapena, musika eta festa Arrasaten, Elkartasun Egunean



Gibelurdinek taldea Herriko Plazan. | AA

24 kontzertu eta beste, egun osoko jaietan | 30

943 71 48 45

Hemen
GARBKETAK
www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko
sailtoiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak,
kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Udazkeneko agendan, Udal Legea izango da protagonista

- ▶ Orduan pasako omen da Eusko Legebiltzarretik
- ▶ Udaletatik urteetan egin den eskaera izan da

IRATI GOITIA | ARRASATE

Udazkenean pasako omen da Eusko Legebiltzarretik Udal Legearen aurreproiektua. Urteetako saiakeren ostean, badirudi oraingo honek aurrera egiteko aukera gehiago dituela, krisia eta Espainiako Gobernuak onartutako Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legea direla-eta. Hala ere, ikusi egin beharko da gauzak konplikatzen ez diren.

35 urte lege barik

"Udal Legea da Euskadiren egituraketa juridiko-instituzionalerako arau juridikorik garrantzitsuenetakoa, eta, hala ere, 1979an EAEko autogobernua berreskuratu zenetik, 35 urte igaro dira, Euskadiko Udal Legea oraindik onartzeko". Hala dio Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen aurreproiektuak bere lehen lerroetan.

35 urte hauetan egin dira hainbat saiakera eta azken hau martxo aldera jarri zuten martxan. Orduan deitu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak Euskadiko Udalen Kontseilua. Aurreproiektua egiteko prozesuan parte hartu dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundietako ordezkariak eta Eudeleko zuzendaritzakoeak. Euskal instituzio guztien elkarlanaren emaitza izan dela adierazi zuen Josu Erkorekak, Jaurlaritzako bozeramaileak, aurreproiektuaren aurkezpena egin zuenean. Testuan bertan zehazten da autogobernu sistemarentzat giltzarri den lege horrek ahalik eta babes handiena lor zezan, hitzartzeko eta elkar ulertzeko metodologia bikoitza jarri dela abian: batetik, inplikaturako maila instituzionalen artean, eta, bestetik, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten sentsibilitate politiko desberdinen artean.

Hala ere, ekain amaieran, Eusko Jaurlaritzak aurreproiektua aurkeztu zienean Arabako,

Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiei eta Eudeli, ordezkari gipuzkoarrak kritiko azaldu ziren. Hitza Eudelen zuzendaritzari bakarrik eman zitzaioela eta ildo horrekin bat egin ez duten ehundik gora alkate daudela adierazi zuten. "Gipuzkoako Foru Aldundiak berari dagozkion atal mugaratu batzuk hausnartzeko aukera izan du eta egin du. Udalei dagoen ordezkariak, aldiz, Eudelen zuzendaritzan dauden alkate gutxi batzuen eskuetan utzi dute. Hau bereziki larria da, alde batetik

Eudelen zuzendaritzaren bidearekin bat egiten ez duen alkate talde oso zabala dagoelako eta, bestetik, udalen parte-hartze zuzenik gabe Udalen Legea egiten hasteak hasierako akatsa duelako. Eta araudia zorrotz begiratzen bada, legea bera ere urratzen duelako", adierazi du Ugartek, Foru Aldundiko bozeramaileak.

Azkarragaurizarrek ere kritika bera egin du: "Gipuzkoako udalari gehienek ez dute beren ekarpenak egiteko aukerarik izan. Izan ere, Bilduko udalok ez gaude Eudelen ordezkariak. Gipuzkoako udalari guztien parte-hartzea bermatzea eskatuko nuke". Gaineratu du uztailaren 11n Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu ziola Udal Legearen aurreproiektua helarazteko, eta Udalari hiru hileko epea ematea aurreproiektua kontsultatu eta ekarpenak egiteko. Irailaren 2an Eusko Jaurlaritzaren ezezkua jaso omen zuten, esanez, euren eskaerak Eudelen bitartez bideratzeko.

Oñatiko alkate ohi eta aurreko lege saiakeran Eudeleko exekutibako kide Lourdes Idoiak dio, ordea, udalek oso modu aktiboan hartu dutela parte: "Eusko Jaurlaritzaren betebeharrak da, lege garapenerako araudiak agintzen duen bezala, herritarrek gehien ordezkariak dituen udal elkarteari kontsulta egitea, eta hori gaur egun Eudel da".

Bestalde, Ugartek kritikatu du ez duela uste EAJren aldetik Udal Lege bat aurrera ateratzeko benetako borondaterik egon denik urte hauetan guztietan: "EAJk 30 urtetik gora izan ditu Udal Legea martxan jartzeko eta egin nahi izan ez badu interesatu ez zaiolako izan da". Idoiak erantzun du: "35 urtean lege hau ez garatu izanaren errua EAJri leporatzea eskusa bat da, norberaren ardurak gordetzeko, baina orain ikusiko da bakoitzaren borondatea".



Arrasateko udaletxearen argazkia. | IRATI GOITIA

Joko arauak zehaztu

Udalen eskumenak finkatzea eta jasotzen duten finantzaketa zehaztea izango dira Udal Legearen helburu nagusiak. Aurreproiektuan jasotzen da 37 eskumen emango dizkiela lege horrek udalei; adibidez, honako hauek: etxebizitzaren plangintza, gizarte zerbitzuak, ondare historikoa babestea, turismoa sustatzea, berdintasun politikak, garraio publikoa planifikatzea... Noski, eskumen horiek aurrera eramateko beharrezkoa da finantzazioa, eta hori ere bermatuko omen du legeak. Hain zuzen, aurreproiektuaren arabera, udalek –Eudelen bitartez– Finantzen Euskal Kontseiluan iritzia emateko eta bozkatzeko aukera izango dute, baita Zergen Koordinaziorako Organon ere, zergetatik jasotako diruaren banaketak zuzenean eragiten dienean. "Udalen autogobernua indartuko da, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenetan kalterik izan gabe", esan zuen Erkorekak aurreproiektuaren aurkezpena egin zuenean.

"Beharrezkoa"

Urte askoan hautetsi eta instituzio ugariaren eskaera izan da Udal Legea, baita Debagoienean ere. Egungo ordezkariak ere beharrezkotzat ikusten dute.

"Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako udalek ez dute izan beren jarduera arautuko zuen lege propiorik, eta 1985ean onartutako LBRL delako estatu mailako legea izan da oinarri", azaldu du Ugartek. Gaineratu du Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako udalek beren beharrei erantzuneko araudia izatea ezinbestekoa dela. "Herritarren beharrei erantzuteko ahalmena eta autonomia izango duten instituzioak izan behar dute udalek. Euskal Herriaren eraikuntzan eragile izango direnak. Gaur

egungo legeriak aukera eta bide hori eragotzi egiten duelako ezinbestekoa Udal Lege bat".

Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarren ustez ere ezinbestekoa da: "Arau esparru baten falta igartzen dugu erabat. Argi eta egonkor geratu behar dute udalek eman beharreko zerbitzuak zeintzuk diren".

Idoiagak urtetan egin den eskaera dela nabarmendu du: "Egia da bazegoela funtzionamendurako marko edo oinarritzeko legedi bat eta Foru Arauak lurralde historiko bakoitzean nolabait finkatuta zituela betebeharrak eta abar, baina, askotan, betebeharrak horien hedadura edo finantzazioa ez zegoen argi".

Espainiaren atzaparrak

Bestalde, Idoiak esan du legea orain inoiz baino beharrezkoa dela, Espainiako Gobernuak Tokiko Administrazioa Arrazionalizazio eta Iraunarazteko Legea onartu duenetik. "Estatuak asko aldatu ditu erkidego autonomoen eta udalen kompetentziak lege horren bitartez, nahiz eta Euskadiraiko –EAJk Madrilen negoziatutakoa– Foru Legearen babesaren barruan inpaktua txikiagoa izan den; orain, inoiz baino beharrezkoagoa da Udal Legea", dio alkate ohiak. Iaz abenduan onartu zuen Espainiako Gobernuak Idoiak aipatzen duen Tokiko Administrazioa Arrazionalizazio eta Iraunarazteko Legea. Horrek murriztu egingo ditu udalen eskumenak. "Udalen gaineko kontrola eta zentralismoa areagotzen du eta bidea zabaltzen dio zerbitzuen pribatizazioari", esan du Foru Aldundiko bozeramaileak.

Mehatxu hori izan daiteke oraingo aurreproiektuak aurrera egiteko arrazoietako bat, baina krisiak ere badu zeresana. Izan ere, finantziarrik ezak kolokan jarri ditu udalek bereganatutako hainbat eskumen. "Urteotan bes-

ESANAK

"Gipuzkoako udal gehienek ez dute ekarpenik egin"



INAZIO AZKARRAGAUZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"35 urtez legea ez garatzea EAJri leporatzea eskusa da"



LOURDES IDOIA
OÑATIKO ALKATE OHI

"Udalek ez dute izan beren jarduera arautzeko legerik"



LARRAITZ UGARTE
FORU ALDUNDIKO BOZERAMAILEA



te administrazio batzuetatik finantzatu izan diren jarduerak gutxituz joan dira eta udalak izan gara ematen den zerbitzua ez mozteko izugarritzko ahalegina eginez dirua jartzen jarraitu dugunak", azaldu du Arrasateko alkateak. Adibide bezala jarri ditu honako hauek: Gizarte Larrialdietako Laguntzak, Iturbide egoitza, Euskaltegia, hezkuntza zentroetako inbertsioak, ingurumena, enplegua... Berretsi egiten du hori Ugartek: "Hainbat izan dira Aldunditik eskumenak jaso arren finantzaziorik ez izatearen ondorioz zerbitzua eman ahal ezinda geratu diren udalerrak. Edota arrazoi beragatik pribatizazioaren bidea hartu dutenak". Adibide adierazgarrietako bat AESaen kasua dela dio. Nahiz eta udalek kudeatu, Jaurlaritzatik datorren diruarekin garatzen direlako, eta azken horrek murrizketak egitean, udalak emergentziazkoak diren laguntzak ere eman ezinda utzi dituelako.

"Menpekotasuna"

Horrela, orain arte legerik ez izateak beste instituzio batzuekiko menpekotasuna ere eragin omen du. Gipuzkoaren, Bizkaiaren eta Arabaren kasuetan, Udala Lege bat ez izateak aldundien eta Jaurlaritzaren menpe egotera kondenatu omen ditu udalak, Ugarteren iritziz. Bereziki, finantzabide eredu propio eta zehatz bat ez izatearen ondorioz. Bestalde, egun eskumenen eremuan dagoen "anabasa eta bikoizketak" bukatzea funtsezkoa dela dio. Udalek azken urteetan izan duten arazorik handiena eskumenak jaso baina finantzabiderik ez izateak etorri omen da. "Mahai gainean dagoen zirriborroak oraindik hutsuneak ditu eremu horretan; beraz, asko hobetu beharko da atal hori ere, udalek azken urteetan jaso duten karga horri errotik buelta emateko", zehaztu du.

Arrasateko alkatearen ustez, menpekotasun horrek ezinezona sortzen du: "Izugarritzko ezinezona sortzen du urtero beste instituzio batzuetatik ze diru laguntza etorriko den zain egoteak, askotan oinarritzko zerbitzu batzuk emateko. Ezin da onartu beste administrazio batzuek finantzatutako jarduerak geroz eta gutxiago izatea, eta, aldiz, udalak izan behar izatea finantzaketa jarri behar dutenak".

Idoiagak ere menpekotasun "argia" sortu dela dio, batez ere, Foru Aldundien tutoretza edo zaintza ekonomiko-finantzarioan. "Lege honek udalak adinez nagusi egingo ditu".

"Herritarren onurarako"

Tokiko erakundeak indartzea da legearen helburua, hein batean. EAEko udalei behar bezalako toki-autonomia ematea, aurreproiektuan bertan idatzita dagoenez. Hala, legeak apustu garbia egiten du tokiko gobernu mailen sendotze instituzionalaren alde. Izan ere, udala da herritarrengandik gertuen dagoen erabakiforoa. Udalak direlako herritarrek arazoa konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea.

"Honek argituko ditu maila instituzional bakoitzean ardurak non gelditzen diren. Zeinek izango duen prestazioen ardurak bakoitza. Eta gero, batez ere, segurtasun juridikoa ekarriko du. Eta ondorioz, normala den moduan, efizientzia handiagoarekin emango dira prestazio guztiak herritarrentzako", dio Idoiagak. Gaineratzen du herritarrek izango direla benetako onuradunak.

Helburua onuradun nagusiak udalak bai, baina herritarrek izatea dela dio Ugartek: "Udalak, herritarren zerbitzura egon behar

Eudel, alegazio "juridiko eta teknikoak"

Eudelek abuztuan bidali zituen Eusko Jaurlaritzara eginiko alegazioak. Izaera "juridiko eta teknikoak". Izan ere, Eudeletik adierazi dute aurreproiektua lantzeko aurrera eramandako metodologia parte-hartzailearen ondorioz, oinarri nagusietan ados daudela eta euren iritzia testuan barneratuta dagoela. Hala nola Finantzen Euskal Kontseiluan ordezkari izatea eta esleipenei eta finantzaziorik dagozkion eskaerak.

duen instituzioak direlako. Beraien eguneroko beharrezaneko modu eraginkor eta azkarrean erantzuteko gaitasuna izango dutelako udalek. Udala Lege on baten onurak denentzako izango dira".

Azkarragaurizar ere ildo bereetik mintzo da: "Argi dago udalon mesedetan joan beharko lukeela. Esparru horretan ezarrita geratu behar dira, argi eta aldi batean egonkor, udalek eman beharreko zerbitzuak zeintzuk diren eta hori egiteko edukiko dituzten finantza baliabideak. Udalotan gure baliabide ekonomikoak hobeto kudeatzeko gai izango garelako, eta zehaztuta geldituko dira administrazio bakoitzaren eskumenak".

Etorkizuna

Uztailaren lehen egun zen publiko Jaurlaritzaren aurreproiektua. Ondoren ireki zen alegazioak egiteko epea. PSEko hainbat kidek aurreproiektua ez atzeratzea eskatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak helegiterik ez duela egingo iragarri, Javier de Andres Arabako ahaldu nagusiak gogor kritikatu eta Eudelek alegazio "juridiko eta teknikoak" egin ditu. Ekarpinak bilduta aurrekusten zen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak irailean onartuko duela eta udazkenean pasako litzatekeela Eusko Legebiltzarretik. Izan ere, Eusko Legebiltzarrak du legeri buruzko azken hitza. EAJk eta PSEk gehiengo nahikoa izango lukete Eusko Legebiltzarrean Udala Lege onartzeko, baina adostasuna zabaltea bilatu nahi omen dute.

Gipuzkoako Foru Aldundia bitartekari lanak egiteko prest azaldu da. "Guk gure ahalegina, borondatea eta lana jarriko dugu hori hala izan dadin. Hala ere, argi utzi behar da legea ateratzea garrantzitsua dela, baina are garrantzitsuagoa dela lege on bat ateratzea. Hala ere, 35 urte pasa ditugu legerik gabe, eta orain, gauzak azkar egin behar diren aitzakiapean, udalei ekarpinak egiteko eperik utzi gabe, herritarrek behar bezala informatu gabe eta oinarritzko den eztabaida eman gabe, korrika eta presaka onartzen saiatzea okerra

PSEk eskatu du ez dadila legea atzeratu

Udal Legearen aurreproiektua ez atzeratzea eskatu dio EAJri PSEk. Oinarrietan bat dator alderdi sozialista; izan ere, esan dute Patxi Lopezen garaian eginikoaren oso antzerakoa dela. "Gobernu sozialistak aurreko legealdian idatzitakoaren aldean ezberdintasun txiki batzuk ditu". Hala ere, kritikak ere izan dituzte. EAJri urteetan legea "atzeratzen" saiatzea leporatu diote eta alderdi popularraren jarrera "atzerakoa" gaitzetsi dute.

iruditzen zaigu. Badago astia gauzak ondo egiteko, eta hori hala izan dadin exijituko dugu", esan du Ugartek.

Azkarragaurizar adostasun ahalik eta zabalena lortzearen alde agertu da: "Nik uste dut Eusko Jaurlaritzaren legealdi honetan onartuko dela. Beharrezkoa da eta ezin da atzeratu gehiago. Udala Lege ez izateak, bistan da, izugarri kaltetzen gaitu udalok. Nik uste dut adostasunerako borondatea baldin bada, egingo dela. Lege honek behar

De Andres, Arabatik, kritikoa aurreproiektuaz

Javier de Andres, Arabako ahaldu nagusia, Udala Legearen aurka azaldu da. Diputazioaren egiteko desegiten duela dio eta "zergak biltzeko agentzia soil" bilakatzen direla. Horrela, hogeitaka dira Arabako Aldundiak aurreproiektuari jarritako alegazioak. De Andresek kritikatu du Eudelen hiru ordezkari Finantzen Euskal Kontseiluan sartzea. "Ez dira instituzio bateko ordezkariak. Ez dituzte herritarrek aukeratu bozka bidez", esan du.

-beharrezkoa du ahalik eta kontsentsu politiko eta instituzional handiena".

Idoiagak ere legealdi honetan onartuko dela uste du: "Horren ametsa dut, behintzat, eta ez dadila oztopatzaile egon edo azken orduko oztopo berezi edo interesaturik. Nik uste dut adostasunerako borondatea bada, egingo dela. Uste dut adostasun maila handia dagoela. Lege honek beharrezkoa du ahalik eta kontsentsu politiko eta instituzional handiena".

IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

BASLIDA

INGELESA

- PET.
- FIRST.
- ADVANCED.
- Irailetik aurrera, ikastaro trinkoak prezio ezin hobean!
- Azterketak Arrasaten bertan, Bastida akademian egiteko aukera.
- IRAILEAN INGELESEAN IZENA EMAN, ETA MATRIKULA DOAN IZANGO DUZU.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Sarbide probak
- Ingeniaritza
- Enpresa Ikasketak

INFORMATIKA

- Word.
- Excel.
- Access.
- Power Point.
- Mekanografia.
- Internet.
- Sistema eragileak.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33
bastida@bastida.es • www.bastida.es

ESANAK

"Uste dut legealdi honetan onartuko dela"



INAZIO AZKARRAGAUZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Ez dadila izan azken orduko oztopo edo interesik"



LOURDES IDOJAGA
OÑATIKO ALKATE OHIA

"Lege on bat ateratzea da garrantzitsua"



LARRAITZ UGARTE
FORU ALDUNDIKO BOZERAMAILEA



IRAILAK 21 ARRASATE BIZIPOZAREN JAIAREN

PIRRITX, PORROTX ETA
MARIMOTOTS · ANE ETA
PIRATEKIN PARRANDAN ·
KIROL EGOKITUAK ·
KAXOI TAILERRA · TXAKUR
ERAKUSTALDIK · HAZI
LANDAKETA · DANTZARIAK ·
ABESBATZA · ERRALDOI
ETA KILIKIAK HERRITIK
ZEHAR · SERIGRAFIA ·
PUZGARRIAK · APAR FESTA ·
AURPEGI MARGOKETA ·
LUDOKETA TXOKOA · ESKULANAK ·
KARAOKEA · BERRAMESTEN
TAILERRA · BAZKARI HERRIKOIA...



WWW.BIZIPOZA.ORG

SARRERAK SALGAI

- Elkar Dendak:
- Arrasate eta Bergara
- Arrasateko Gazte Bulegoan
- Egunean bertan



SARRERA: Banakakoa: 5 € · Gurasoak DOAN · Irrien Lagunak txarteldunak: DOAN
BAZKARIRAKO TXARTELA: 5 € · Egunean bertan erosi ahal izango da

ANTOLATZAILEA



ELKARTEAK

AFESTA · ASPANOGI · KALE DOR
KAYIKO · GKEF · CHERNOBILEN
LAGUNAK · BEROA · PAUSOKA ·
UME ALAIA · BANAIZ BAGARA ·
ARNASA · ETIOPIA UTOPIA · AURRERA
ATERA · GURE SEÑEAK · BOCALAN
BIAK BAT · GIZAKIEN LURRA · AMPGYL ·
GEHITU · GURE NAHIA ELKARTASUNA

LAGUNTZAILEAK

EKIN EMAKUME TALDEA · PORTALOI KULTUR
ELKARTEA · ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA ·
ARRASATEKO GAZTETXEA · MARITXU KAJOI ETA
SANTAMAS KOMISIÑUEK · ARIZMENDI IKASTOLA ·
ARRASATE HERRI ESKOLA · ASPACE · BAGARA
HERRIGINTZAN · TXIKITXU-ARROSTAITZ DANTZA
TALDEA · EREINDAJAN · SEXOLOGIA ZERBITZUA ·
AED ELKARTEA

BABESLEAK



Gainera, eskaintza berezi hau!

Irailaren 21ean Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak antolaturik Arrasaten ospatuko den Bizipozenen Jaiaren (BPJ) harira, eta Goiena Komunikazio Taldearekin elkarlanean, eskaintza hauek egin nahi dizkizuegu bi elkarteok.
Irailaren 30era arteko eskaintza da.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

1. eskaintza Goiena Klubeko Harpidetza + IRRIA aldizkaria Harpidetza

- Irrien Lagunak motxila*
- BPJ kamiseta*
- BPJ familiarentzako sarrera

60€



2. eskaintza Goiena Klubeko bazkideendako

- IRRIA aldizkaria harpidetza
- BPJ kamiseta*
- BPJ familiarentzako sarrera

30€

ZATOZ GOIENAKO EGOITZARA IZENA EMATERA, IRAILAREN 30A BAINO LEHEN: Arrasateko Otorra Lizentziaduna 31n gaude.

Debagoiendarrek ere Katalunian bihotza eta begiak

- ▶ Ernaiko hainbat gaztek eta Oñatitik joandako kuadrilla batzuek hartu dute parte Diadan
- ▶ "Zirrargarria", "sinestezina", "inoizko handiena" esan dute hemendik joandakoek

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Berbak baino gehiago irudiak utzi ditu aurtengo Diadak. Jendetzen irudia: 1.800.000 lagun Bartzelonako udaltzainen esanetan, erdia inguru Espainiar gobernuak Katalunian duen ordezkartzaren arabera. Eta hamaika kilometrotan pilatutako herritarrek nahi bakarria: "Bozkatu egin gura dugu azaroaren 9an".

Azaroaren 9aren zain


Festa giroak eta aldarrikapenak egin dute bat beste behin irailaren 11n, 17-14 esanguratsu horretan (1714ko irailaren 11). Dagoneko hirugarren jaialdi erraldoia izan da, eta azken hori erraldoiena.

Gero etorri da biharamuna. Artur Mas Kataluniako gobernuko presidentea jakinarazi du "katalanek bozkatu, bozkatuko

dutela, baina beste kontu bat dela zein baldintzatan". Izan ere, Kataluniako gizarteak Espainiar gobernuan jarria du arreta orain, kontsultaren balizko debekua dela-eta. Kataluniarrek ez dute halakoetan pentsatzerik ere nahi, "ilegala bada ere egingo dugu", diote askok. Masek, baina, ez du argitu bozketa debekatzen bada zer egingo duen.

Debagoienetik Bartzelonara

Euskal herritarrek, horien artean debagoiendarrek, Kataluniara begira izan dira egunotan, han bizitzen dabilen prozesua adiarraitu guran. Eta hainbat V erraldoi horretako *senyeraren* parte izan dira. Horien artean Ernaiko hainbat gazte, eta Oñatitik joandako Gure Esku Dago lantaldeko kide batzuk.



IMANOL BELOKI



NEREA ETXEZARRETA

ORAIN ARTEKOEN ARTETIK "ZIRRARAGARRIENA"

Castellers (horregatik gris kolorez jantzita) bateko kide diren oñatiarrendako, horien artean Nerea Etxezarreta, inoizko "zirrargarriena" izan da aurtengo Diada: "Lore eskaintzetan hartu dugu parte goizean, eta arratsaldean, Va egin".



IGOR TOME

"MESFIDANTZA" AZAROAREN 9AN GERTATUKO DENAZ

Debagoieneko Ernaiko hainbat gazte izan dira Katalunian: "Sinestezina izan da. Oso jende ezberdina elkartu da: estatu erreforma dute batzuk buruan, aldaketa soziala besteek, baina guztiek dute izugarritzko ilusioa, nahiz eta mesfidantza egon azaroaren 9ari begira"



FELI ZUMALDE

JENDE PILAKETAGATIK LANAK 'SENYERA' ONDO EGITEKO

Oñatiko Gure Esku Dago lantaldeko hainbat kide izan ziren, lagun batzuekin batera; Gran Vian egotea tokatu zitzaion: "Izugarrizko jende pila zegoen, bata bestearen gainean geunden, estu-estu, baina lortu genuen *senyera* behar bezala ikusteko moduan egitea".



ENEIDA ITURBE

ALDARRIKAPENA ETA FESTA GIROA BAT EGINDA

Gran Vian egon zen Bartzelonan bizi den Eneida Iturbe antzuolarra ere, V horren erpinean: "Benetan hunkigarria izan da, aldarrikapena eta festa bat eginda. Barrura begirako mezua izan da: azaroaren 9ko erreferenduma egin egin behar da, jendeak hori gura du-eta".

JORDI FARRERONS
KATALUNIARRA

"Gero eta gehiagok uste dute: 'ara és l'hora', orain da garaia"

Bergaran bizi den kataluniarrek Diadako ekitaldiak azaldu ditu. **Bartzelonan egoterik izan ez arren egun berezia...**

Bai, Diada guztiak, baina aurtengoa bereziki. Hunkigarria izan da benetan, eta pentsa, hau hirugarren aldiz da!

1.800.000 lagun esan dute; hori bada gero jendea...

Zenbaki ikaragarria da, bai.

Une hunkigarri asko, ezta?

Bai, V-aren erpinean jarritako kutxan neska bat bozkatzeko ikustea irudi benetan indartsua izan da. Azaroaren 9an 16 urte bete eta bozkatuko duten gazteak zeuden hor.

Nazioartera zein mezu iritsi dela uste duzu?

Bozkatu egin nahi dutela kataluniarrek, hori espero behintzat.

Ara és l'hora, orain da garaia, dio leloak; hala uste duzu?

Oso zaila izaten dabil Espainiako gobernuaren jarreragatik, baina nik espero baietz. Eta poliki-poliki gero eta jende gehiagok uste du. Bozketa debekatzen badute zer gertatuko da? Hurrengoa da kalera irten eta bertan geratzea. **Eta jarrera hori aldatuko dela uste duzu?**

Azaroaren 9a baino lehen ez, Rajoyren jarrera delako isiltzea.

Independentziaren aldeko eta kontrakoan artean kataluniarrek erabat zatituta daudela diote. Hala da?

Hori diote alderdi eta hedabide batzuek, baina ez da hala.

"Etxebizitzak funtzio soziala bete behar du; oinarritzko eskubide izan"

Zapatuan elkartu ziren EAEko Stop Deshaucios plataformetako kideak Arrasaten

MIREN ARREGI | ARRASATE

Ikasturteari hasiera eman zion Stop Deshaucios plataformak zapatuan, Arrasateko Kulturaten egin zuen jardunaldian. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako plataformetako kideak batu ziren bertan, "abuztuan alde batera utzitako" gaiei berriz ere heltzeko.

Eztabaidarako hainbat gai

Etxebizitzaren legea izan zen gairerendako lehena eta garrantzitsuenak: "Guk lege horren aurrean gure proposamenak egin ditugu eta gaur erabakiko dugu zeintzuk izan behar duten hurrengo pausuk", esan zuen Salvador Gonzalez Stop Deshaucios plataformako kideak. Eta gaineratu: "Argi duguna da alokairu sozialaren aldeko apustua egin beharko litzatekeela eta etxebizitzak oinarritzko eskubide izatea lortu behar dugula. Etxebizitzak funtzio soziala bete behar duela".



Hiru probintzietako plataformetako kideak kulturaten. | JOSETXO ARANTZABAL

Alokabideren eta Kutxabanken gainean ere aritu ziren jardunaldian: "Hain justu ere, neurriak hartuko ditugun Kutxabanken pribatizazioa geldiarazteko", adierazi zuten.

Kaleratze prozesuak aurrera

Stop Deshaucios plataformako kideek salatu zuten, nahiz eta "komunikabideetan ez agertu, iazko epe berean baino %19 kaleratze gehiago dagoela martxan".

Laranja koloreko elkartasun keinuak Plazaola eta gainontzekoen alde

M.A | BERGARA

Aitziber Plazaola Xibo eta irailaren 22tik aurrera epaituko dituzten beste 27 kideenganako beste elkartasun keinu bat izan zen zapatuan Bergarako Libre gunean egindako ekitaldia. Ekitaldi goxoa izan zen, lagun arteko; txalaparta, poesia, kuadrillakoen hitzak, bertsoak, ilustrazioak... Eta Aitziber Plazaolaren ganako besarkada, keinu eta hitz goxoak.

'Kontrakotasuna' adieraziz

Modu horretan, ekitaldira batu zirenek erakutsi zuten epaiketaren aurrean kontrakotasuna: "Zentzugabeko epaiketa bat da, militantzia politikaren kontrako epaiketa. Euren lana eta izana

epaituko dira eta ez delitu edo ekintza konkretuak", esan zuten ekitaldian. Azpimarratu zuten epaiketa bera dela zigorra eta gogora ekarri abendura arte 28 gazteek Madrilerara egin beharko dituzten joan-etorriek "kostu ekonomiko eta pertsonal itzelak" suposatuko dituztela. Hala, aurrerantzean ere, epaiketaren kontra egingo diren ekintzatan parte hartzera gonbidatu zituzten herri-tarrak.

Konpromisoak Gernikan

Bergaran egin bezala, Euskal Herriko beste hainbat herri margotu dituzte laranja asteburuan. Atzo, Herri-tarran Adierazpena aurkeztu zuten, Gernikan.



Aitziber Plazaola eta haren kuadrilla, ekitaldiaren ostean. | M.A

Elkartasun manifestazio jendetsua eta hunkigarria

Axun Arana eta Arantza Sasiain, herriko iheslari oihak, manifestazioaren bukaeran agertu ziren

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Espero ez zen amaiera izan zuen zapatuko Elkartasun eguneko manifestazioak; izan ere, 40 urte herritik kanpo eman ondoren, Axun Arana eta Arantza Sasiain iheslari ohiak herriko plazan

agertu ziren manifestazioarekin bat egiteko. Txalo artean hartu zituzten plazan bildutakoek eta omenezko agurra eta loreak jaso ondoren, "urteetan herri-tarr askorengandik jasotako laguntasuna" eskertu zuten.

1000 lagun batu ziren

Elkartasun eguneko antolatzaileak oso pozik eta eskertuta zuden preso, errefuxiatu eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko agerraldiak izandako harrerarekin; horien esanetan, 1.000 lagunek hartu zuten parte.

Herriko plazan, abiatutako toki berean amaitu zen ordu bete inguruko ohiko ibilbidea egin ondoren; tartean, Josu Uribeberriaren etxe ondotik pasatuta. Uribeberria balkoian zegoen, manifestariak agurtzen, horien txaloak eta animoak jasoz.



Elkartasun eguneko manifestazio jendetsua, Erdiko kalean. | JOSETXO ARANTZABAL



Arana eta Sasiain iheslari oihak. | A.A.

Kepa Arkauz preso arrasatearrak "borrokaldia" abiatu du Villepinten

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Egubakoitzean hasi eta epe mugagabea, espetxealdia zigor ziega batean emango du Kepa Arkauz preso arrasatearrak. Arkauzek berak idatzitako esku-titz batean salatu du, "Espainiako eta Frantziako estatuen kartzela politikaren ondorioz, isolamendu egoera jasaten" dabilela eta horregatik hartu du erabakia. Etxerategi jakinarazi du, ekainaren 6az geroztik, Espetxean "beste euskal preso politikorik gabe" dela Arkauz.

Preso arrasatearraren esanetan, Villepinteko zuzendaritzari eta Le Vert epaileari eskae-

ra argia egin die: "Villepinteko espetxera beste kide bat ekartzea; edo ostantzean, kideak dauden beste espetxe batera mugitzea".

Senide eta herritarren babesa

Gogor Salatu zuten Arrasateko Elkartasun Egunean Arkauzen egoera. Haren aitak adierazi zuen presoak erabakia "duintasunagatik" hartu duela, eta horrelako ekimenek "indarra" ematen diotela. Dena den, azaldu zuen egoera "gogorra" izango dela, isolamenduetatik, aste-oro zituen hiru bisitetatik bakar-rra jasotzeko aukera baino ez baitu izango Arkauzek.

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Javier Arantzeta | Stirling Zentroko zuzendari orokorra

"Stirling" teknologiak asko dauka esateko oraindik ere"

Hilaren 24tik 26ra, *stirling* teknologiar buruzko kongresua egingo dute Bilbon

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Stirling teknologiar buruzko Nazioarteko XVI. Kongresua egingo dute irailaren 24tik 26ra Bilbon, Mondragon Componentes eta korporazioko Stirling Zentroak antolatuta. Munduko 30 herrialdeetatik etorritako 70 txostengile inguruk hartuko dute parte bertan. Javier Arantzeta, Stirling Zentroko zuzendari orokorra, azpimarratzen du teknologia horren inguruan lan egiten duten beste enpresa batzuekin harremanak sendotzeko balioko duela.

Zer da, zehazki, *stirling* teknologia? Hainbat berezitasun dituen motor mota bat da. Berezitasun nagusia da mugitzeko behar duen energia kanpotik eman behar zaiola. Gure autoen motorrei gasolina barruan sartzen zaie, baina gasolina horrek fina izan behar du, eta atzetik teknologia handia eskatzen du. Energia kanpotik jasotzen duten motorrei, aldiz, edozein bero mota eman ahal diezu: biomasatik datorrena, eguzkitik datorrena... Horregatik, aproposa da energi berriztagarriekin erabiltzeko. Leherketa bako motorra denez, gainera, luze iraun dezake. Beste berezitasun bat da bi aldetara funtzionatzen duela: beroa emanaz mugitzen da; baina, era berean, nik mugitzen badut, beroa ematen du.

Non erabiltzen dira motor horiek? Orain arte oso esparru gutxitan izan dute arrakasta. Adibidez, espaziontzietan erabiltzen dira, eta baita itsaspekoetan ere. Azken boladan, etxe barruan erabiltzeko saiakerak egiten dabilta; *stirling* teknologia da etxetresna marka handienak aztertzen dabilzantetako bat. Esfortzu handia dabilta egiten teknologia horretan; uste dut hemendik gutxira teknologia hori kalean merkatuan egongo dela, jende arruntak erosteko moduan. Oraingoan, ez du pisu ekonomiko handirik, baina oraindik ere teknologia horrek asko dauka esateko. Ez da horrenbeste denbora kutsaduraz eta eraginkortasun energetikoaz kezkatzen hasi garela, eta uste dut datozen urteetan *stirling* teknologia, beste batzuekin batera, emango duela zeresana. **2009an hasi zuen ibilbidea Mondragon taldearen Stirling Zentroak. Zein esparrutara dago bideratuta zuen lana?**

Mondragon Componentes dibisioak zortzi enpresa ditu bere barruan, eta etxetresnen inguruko osagaiak egiten dituzte: klimatizazioarekin lotutakoak, berogailuarekin... Horretan indartsua izateko, termodinamika, fluidika, konbustioa eta halako

gaiak banan-banan jakin behar dituzu. *Stirling* teknologia bektore zuzendari bat bezala erabiltzen dugu. Sektore berriendako produktu berriak egiten dituzkegu, baina hor erabiltzen ditugun erremintak oso baliagarriak dira gaur egun egiten ditugun osagaiendako ere. Lan handia dago egiteko *stirling* teknologiaren inguruan.

Zer da, zuentzat, Bilbon egingo den Nazioarteko XVI. Kongresua antolatzeko aukeratuak izatea? Esan behar da ez dela gure ekimenez izan. Dubrovniken egindako azken kongresuan, gure zentroko bi kide izan ziren jendaurrean hitz egiteko Espainiatik aukeratu zituzten bakarrak. Horregatik, eta Mondragon izenari esker, guri proposatu ziguten antolatzea.

Hainbat gauzatarako balioko digu guri. Gure lagunaren sarea zabaltzen lagunduko digu; munduko gainerako ikertzaile gehienak ezagutzen ditugun arren, harreman gertukoagoa izango dugu, eurek gure lana eta guk eurena hobeto ezagutzeko. Aukera da gure estrategiak kontrastatzeko eta kanpokoen iritzia jakiteko. Kongresuak bere alde zientifikoa dauka, baina, era berean, elkarrizketak egiteko aukera emango digu, gure zentroa erakusteko eta kolaborazioak lotu ditzakegun ikusteko. Horren harira, Espainian ez gara tek-

nologia hori lantzen duten bakarrak, baina orain arte ia ez dugu elkarlanik egin beste enpresa batzuekin. Kongresura etorriko dira esparru horretan lan egiten duten Espainiako beste zentro batzuetakoak. Espero dugu eurekin esfortzuak bateratu, bide berean jarri eta merkatura produktu berriak eramateko ikerlana hobeto egitea.

Kongresuaren garrantziaz ohartzeko, bertan parte hartuko dutenen kopurua ikusi besterik ez dago. Halaxe da, bai. Bost kontinentetako 70 txostengile egongo dira, eta dagoeneko ehundik gora dira parte hartzeko izena eman dutenak. Mundu osotik etorriko dira: Indiatik, Errusiatik, AEBetatik, Hegoafrikatik, Txinatik, Kanadatik, Europako hainbat herrialdeetatik...

Eraginkortasun energetikoa eta teknologia berdeak izango ditu ardatz kongresuak. Nondik helduko zaie?

Hainbat saio izango ditugu. Kongresu zientifikoa denez, zati handiena termodinamikari, simulazioei eta formula matematikoei buruzkoa izango da. Energia berriztagarriari dagokienez, *stirling* teknologiaren bidez produktu, esperimendu eta osagarri berriak nola egiten ari diren ere ikusiko da bertan; bai energia elektrikoa sortzeko, eta baita, alderantziz erabilita, bero-ponpak sortzeko ere.



Javier Arantzeta. | STIRLING ZENTROA

"Espaziontzietan eta eta itsaspekoetan erabiltzen da 'stirling' teknologia"

"Gure lagunaren sarea zabaltzen lagunduko digu Bilboko kongresuak"

100 milioi euro bideratuko ditu Laboral Kutxak gizarte ekonomiako enpresetara

T.M. | ARRASATE

CEPESeK (Espainiako Gizarte Ekonomiako Enpresen Konfederazioak) eta Laboral Kutxak berriro egin dute 2012an gizarte ekonomiako enpresen finantzaketa errazteko sinatu zuten hitzarmena. Hala, Laboral Kutxak 100 milioi euro bideratuko ditu mota horretako enpresen finantzaketara. Hedabideei

igorritako oharrean Laboral Kutxatik azaltzen dutenez, akordioaren helburu nagusia da gizarte ekonomiako enpresei inbertsio berriak errazteko likidezia emango dieten partidak eskaintzea. Zentzu horretan, ekintzailtzara eta kapital sozialerako ekarpenetara bideratutako partiden garrantzia azpimarratu dute.



J. A. Pedroño (CEPES) eta J. Arraiza (Laboral Kutxa), akordioa sinatzen. | LK

Bigarren hilabetez, gora egin du industri produkzioaren indizeak

T.M. | ARRASATE

Adegik asteon jakinarazi duenez, uztaillean, %3,1 egin zuen gora Gipuzkoan IPIak, industri produkzioaren indizeak. Bigarren hilabetez jarraian egin du gora (ekainean, %2,5 hazi zen), eta ez zen horrelakorik gertatzen iazko urrian eta azaroan, bi hilabeteetan, hazi zenetik. Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak azaldu du emaitza positibo honen atzean, metal arloko jarduerak daudela; izan ere, material elektrikoaren fabrikazioak kenduta, alor horretako gainerako jarduera guztiek egin dute gora

uztaillean. IPIaren 2014ko lehen zazpi hilabeteetako datuei dagokienez, pilotutako hazkundea %1,5ekoa da. Iaz, epe berean, %3,0 egin zuen behera

Hazkunde fasean

Adegitik azaldu dutenez, datuek erakusten dute Gipuzkoako industri ekoizpenak indarra hartu duela eta hazkunde fase baten dagoela. Dena den, ohar-tarazten dute oraindik ere arrisku eta ezegonkortasun menpe dagoela, eta bizpahiru hilabete itxaron beharko direla erreberperazioaz hitz egiteko.

la 600 ikertzaile aurkeztu dira Ikerbasquek egindako deialdira

T.M. | ARRASATE

Mundu osoko 569 ikertzaile aurkeztu dira Ikerbasquek Euskadiko zentro eta unibertsitateetan lan egiteko egin duen 2014ko deialdira. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko zientzia sistema sendotzeko helburuarekin bultzatutako erakundea da Ikerbasque, eta goi mailako ikertzaileei zuzendutako *Research Professor* programaren bidez, hamabost lanpostu eskaintzen ditu behin betiko Euskadin lan egiteko.

"Oso harrera ona

Erakundetik azaldu dute programak "harrera oso ona" izan

duela, eta gaineratu, iazkoarekin alderatuta, %50 egin duela gora aurtengo deialdira aurkeztutako ikertzaile kopuruak.

Hautagaien batz besteko adina 44 urtekoa da, eta egindako eskaeren %75 gizonen egin dituzte. Deialdiari erantzun dioten gehienak Zientzia Esperimentalaren espezializatuta dauden arren, jakintza-arlo guztietako ikertzaileak aurkeztu dira. Euskal herriko Unibertsitateko fakultate ezberdinetan lan egiteko eskariak dira gehienak, baina beste hainbat zentro, erakunde eta unibertsitateetan lan egiteko eskariak ere jaso dira.

Manu Zeberio | Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa

"Elosua-Soraluze guneko monumentu megalitiko kopurua ez da ohikoa"

- ▶ Arribiribiletako menhirra berreskuratu dute eta orain balioan jartzea da helburua
- ▶ Aranzadiko kideek frogatu dute zutarria jatorrizko leku eta posizioa itzuli dutela

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Irailaren 3a ezkerreko atzera ere zutik eta orain dela 4.000 urte kokatu zuten lekuan Arribiribiletako (Irukurutzeta) menhirra. Aranzadi Zientzia Elkartek berreskuratu du monumentu megalitikoak, Manu Zeberio arkeologoaren zuzendaritzapean. Berreskuratzea ospatzeko, hain zuzen, erromeria egin zuten atzo Irukurutzetan. Elosua-Soraluze espazio megalitikoaren barruan dago Arribiribiletako zutarria eta ingurua bereziki interesgarria da, duen dolmen eta tumulu pilaketa dela-eta. Ere mu hori balioan jartzeko, *Dolmenen ibilbidea* izenarekin bisita gidatuak antolatu dituzte.

Dolmena ala menhirra?

Barandiaranek, bere garaian, indusketa txiki bat egin zuen Telesforo Aranzadirekin eta Enrique Buenorekin batera, 1922an, trikuharri bat zelakoan. Ikatzak eta teilak azaldu ziren eta Barandiaranek pentsatu zuen garai hartako mugarrri bat zela, baina ez historiaurrekoa. Orain dela hamar urte, oster, pertsona batzuek handik igaro eta trikuharria [hilobia] zela esan zuten, eta hala katalogatu zuten. Oraindik hori esaten duen Jaurlaritzaren plaka bat dago han.

Zuek, ordea, zutarrri bat dela frogatu ahal izan duzue.

Gure ustea beti izan da historiaurreko monolito bat zela, baina nahia zen hori frogatzea, eta hasierako indusketa txiki bat egin genuen. Hasi eta berehala agertu zen zulo handi bat, zoruko harriaren egindakoa, eta suharri printza batzuk ere, eta horrek argi eta garbi erakutsi zuen ez zela trikuharria, monolitoa baizik. Zuloa eta monolitoa neurtu genituen eta bat zetozen. Zalan-tzarrik ez zegoen, hortaz. Erabateko ziurtasuna izateko 3D eskanner batekin azken ikerketa bat egin genuen eta garbi geratu zen. **Ingurua bera nahiko aberatsa da historiaurreko harrietan, ezta?**

Menhirretan ez hainbeste, baina bai trikuharri eta tumuluetan. Azken bi horiek historiaurreko ehorzketak dira eta ugariak dira inguru horretan. Elosua-Soraluze espazio megalitikoan daude, gutxi gorabehera, hogeitita. **Menhirrek, oster, beti dute mugarrri funtzioa?**

Gaur egun zutik daudenak normalean helburu horretarako daude baliatuta, mugarrri bezala erabiltzen dira, jatorrizko funtzioaz harago.



Manu Zeberio, Aranzadiko lantaldearen erdian; menhirra kokatu berrian. | MIREN ARREGI

Bere garaian, Brontze Aroan, dela 4.000 bat urte, ematen duenez, lurralde bat gizatalde batena zela adierazteko erabiltzen ziren menhirrak: "Gu hemen gaude" esateko. Hala ere, zaila da jakiten, sepulturarik ez dagoenez, aztarnarik ere ez dago, hipotesi hutsak dira. Jabetasunaren ikur ziren, orokorrean, monumentu megalitikoak, eta erakusten dute ordurako gizakiak ez zirela nomadak, bizitoki finkoak zeuzkatela.

Arribiribiletakoa, beraz, ziurtasun osoz itzuli duzue jatorrizko egocara, ezta?

Hori da ziurtasunez esan genezakeen bakarra, harria hor zegoela eta horrela jarria. Jakin bagenekien ikerketa egin aurretik. **4.000 urte inguru dituela diozue. Zein garaitan kokatzen du horrek zutarria?**

"Zuloa eta monolitoa neurtu genituen eta bat zetozen"

Brontze Aroan, gutxi gorabehera. Nekazari eta abeltzainen gizartearen, ez hainbeste ehiztariena. Behi eta ardietatik bizi ziren.

Monumentu megalitikoekin bezala, Brontze Aroko aztarna asko aurki ditzakegu gure inguruan?

Ez, ze trikuharri gehienak Neolitikokoak baitira, antzinagokoak. Trikuharri eta tumuluak Neolitikotik Brontze Aroko arteko garaian jasotzen ziren, normalean. Hemen inguruko monolitoak berriagoak dira, beste leku batzuetakoekin konparatuz gero.

Harria bera nondik dator?

Harri bolkanikoa da, eta ez da bertakoa [Irukurutzetakoa]. Haraino eraman behar izan zuten, baina bertakoa ez izan arren ingurua dela esan dezakegu, asko jota bi kilometroren bueltan. Geologoek esan beharrekoa da hori, harkaitz

"Harri bolkaniko bat da eta inguruko lekuren baten du jatorria"

mota hori han bertakoa ez bada ere inguruan badagoelako halakorik.

Elosua-Soraluze espazio megalitikoak aipatu duzu. Zein da inguruarren balioa?

Ez da ohikoa hainbeste monumentu megalitiko aurkitzea hain mendilerro txikian. Aralarra joanez gero, pilaketa handia dago, baina eremua askozaz ere zabalagoa da, inondik ere. Elosua-Soraluze espazioaren kasuan, hogeitita monumentu daude mendilerro txiki baten; kontzentrazio maila nahiko berezia da hori.

Arrazoirik aurki genezake?

Gizataldeak garai guztietan bizi izan dira hemen eta monumentu megalitikoak egotea gauza normala da. Neolito garaian eta Brontze Aroan mendian bizi ziren, goi aldeetan, ez haranetan. Gaur egun, hiri gehienak ibaien ondoan daude, baina hori Erdi Aroko kontua da. Orain dela 4.000 urte mendi magaletan bizi ziren gizaki gehienak, basotik gertu, eta, hala, ingurua kontrola zezaketen. **Harriak ez diren bestelako aztarnarik aurkitu da inguruan?** Oraingo ez; ez, behintzat, Kara-

katzen. Saiatuko gara ikertzen jarraitzen eta garai hartako toki gehiago aurkitzen, baina zaila da. Noski, guk orain arte ehorzketak aurkitu ditugu, baina non dago jendea? Non bizi ziren?

Herrixkaren bat egongo da.


Egongo zen, baina arrastoa uztea zaila da; garai hartan txaboletan bizi ziren eta eraikuntza guztiak egurrez zeuden eginak, eta hori mantentzea oso zaila da. Hemengo kliman, behintzat, ia ezinezkoa da hainbeste urtean eustea. Harriko zorua, tresnak eta halako materialak aurki daitezke, asko jota. Normalean, gainera, ez da ezer nabaritzen eta zerbait aurkitzeko zulatu eta zulatu eta indusketa txikitxoak egin behar izaten dira.

Beraz, inguruan lanean jarraitzeko asmoa badago.

Baimen eta diruen arabera da hori, baina asmoa badago, eta, hain zuzen, garai hartako bizitokiak bilatu nahi ditugu. Garrantzitsua da bizitokiaren aztarnak aurkitzea. Saiatuko gara datorren urterako halako zerbait egin. Badugu susmoa eremu baten zerbait aurki dezakegula, Soraluze inguruan.

ZABALIK

MARIJO DEGRACIAS
goiena.net/komunitatea/



Bahitu ditzagun kanoiak

Ez dakit inoiz kontatu dizuedan, baina behinola, mairuaren alardeko kanoi biak bahitzekotan izan nintzen. Ez pentsa bote prontoan izandako burutazio hutsala izan zenik. Ez horixe. Antzuolako Intsumiso Taldean nabilela, ekintza antimilitarista deigarria izango zela-eta, taldekideei proposatu nien. Zeresana emango genuela, behintzat, onartu zidaten, baina asmoa ezerezean geratu zen. Pegatina batzuk atera genituen, derrigorrezko soldadutzaren kontra, mairuaren alarde egunean banatzeko. Tira.

Hondarribiko alardearen bueltan, urtero gogoratzen naiz kanoien kontu hartaz. "Urtero da aurten", esaten zidan lagun batek, aukera eskura izan eta ezer egin barik hurrengo aukera historikoaren zain geratzen zirenen harira.

Eta aukera libreez ari naitzela, emakumeok ere hanka sartzeko aukera bera izateko eskubidea daukagula askok aldarrikatu dute orain baino lehen, ekintza militar baten eta armak hartuta bada ere.

Nik neuk ez dut inoiz Antzuolako mairuaren alardean parte hartzeko grinarik izan, ez nau inoiz motibatu, musika gustuko dudala aitortzen dudan arren (Fusileroen Martxa, Segurako Alborada, Antzuola Zortzikoa eta, berriena, Antzuolako Mairuaren Martxa). Garai baten gure herrian eskopeta izatea zen soldadu gisa desfiltzeko baldintza bakarra. Udalak armategia erositu demokratizatu zuen. Kito.

Betiko ohiturak ez ahaztea lagungarria izan daiteke lezio onik ateratzeko bada. Jarrera zapaltzaileak betikotzeko badira, berriz, pikutara ohitura eta tradizio zaharrak.

Aukeran, ekintza armaturik ez nuke antzeztuko nik, antimilitarista izpirituari zor. Hala ere, kalean ibiltzeko, jaiak gozatzeko eta berdintasunez parte hartzeko eskubideak denonak dira. Libreza izan behar du, gainera, aukera horrek, eta gure esku dago eskubidea bermatzea, "betikoen" esku ere bai.

"Ekintza armaturik ez nuke antzeztuko nik, antimilitarista izpirituari zor"

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.com

Buruari eragin hankei eragiteko

Aretxabaletako punta batean kanposantua. Bestean futbol zelaia eta kiroldegia. Batetik bestera zenbat, kilometro eta erdi? Eta kiroldegira kirola egitera doazen kirolari asko automobilean kiroldegiko ateraino. "Lantokitik zuzenean joaten naiz; denbora barik ibiltzen naiz; erosketak egitera noa gero zuzenean...". Aretxabaletako ikastetxeak. Batzuk zein besteak gertuan. Ibilbiderik luzeenak zenbat, bi kilometro? Guraso mordoa automobilarekin hara eta hona eguneroko. "Txikiak dira oraindik; eguraldi txarra egiten duenean zer?...".

Mugikortasun jasagarriaren asteari ekin diogu gaur. Buruari eraginez hankei gehiago eragiten hasteko astea.

KALE INKESTA

Uste duzu egungo soldatekin 'ondo' bizi daitekeela?



ANE GARBIZU
ARRASATE

"Uste dut, orokorrean, egungo soldatak ez direla nahikoa. Nik neuk lehen bizi maila hobea nuen, baina orain, poltsikoari gehiago begiratzen diot".



JUAN MURILLO
ARRASATE

"Erosketak egiteko prezio merkeenetara jo behar izaten dugu, eta, hala ere, ez zaigu iristen. Beste batzuek, bitartean, dirua soberan dute".



IRATI OTAMENDI
ARRASATE

"Ez. Soldatak igotzen dira, baina bizitza are gehiago garestitzen da, eta, azkenean, lehen bezala edo okerrago bukatzen dugu".



LUIS DIEZ
ARRASATE

"Bizi izateko bai. Arnasa hartu eta komunera joateko ematen du, baina gauetan lo lasai egin eta egun batzuk pasatzera Mallorcara joateko ez".

HANDIK ETA HEMENDIK

Txile 1973-2014: harmailen memoria, gure memoria

Olatz Sanchez
argia.com/blogak/olatz-sanchez/

Irailak hamaika izan ditu gaur, egun berezia Txilen.

Gaur Pinochetek Txilen estatu kolpea eman zuenetik 41 urte iragan dira.

Salvador Allende erail zuten orduan, eta harekin batera herria eraikiz zihonan amets ugari lurperatu zituzten.

Allende herri sozialista zuen amets eta helburu, umeek ogi zatirik faltan ez izateko borrokatu zuen, denek eduki behar zuten ikasteko eskubidea, literatura, musika, artea... oinarritzko beharriren eskura.

Elkartasuna ardatz harturik harilkatu nahi zituen politika guztiak, garraioa, langile eskubideak, elikadura subiranotasuna.

Ez ziren gehiago hitz arrotzak izango, herriarentzako izango ziren denak.

Amets hura 1973ko irailaren eguerdi hartan zapuztu zen. Bonbardaketa La Monedan eta kea behelainopean. Betaurreko hautsiak ametsekin batera, azken berba duinak presidentearen diskurtsoan "zuengana zuzentzen natzaizue azken mezua izan daitekeen honetan, zuengana langile, ikasle, gizon, emakume, nekazari, idazle...".

Estadio Nacional belodromoak urterik urte egun hura berreskuratu eta oilo ipurdiak gorputza astintzen du. Bihotzetik begietara, begietatik lurrera doaz ihesi malko lotsatiak. Hotzikara. Historia.

Atxilotu eta preso politikoei haien lekukotza kontatu didate argazki matean. Gorputza zimurtuago daukate: 41 urte joan dira. Bizitakoa ordea presente dute denboran aurrera egin arren. Bidaialagun asko errepide bazterrean geratu zaizkie. Haiek entzun eta norberaren gorputz zati bat desagertuen kokka bilakatu da, lepoa uzkuriturik, oin puntak hotz.

EN zelaia ia 50.000 lagun hartzeko gaitasuna du, eserleketan jarrita, hamarkada batzuk lehenago ez bezala. Aulkiak ditu ezker eskuin.

Baina bada jesarri ezin daitekeen harmaila zatia; atxilotuen bizileku izan zen luzaroan, izua, amorrua eta minaren harmaila da. Memoriarena ere. Ezen memoriak sufrimendu hura munduan ezagutarazi eta lekuko iraunkortzat hartu du.

Harmaila zorigaitzo hauetan jesarrita idazten ari naiz lerro okertu hauek, urteurrenerako bereziki zabalduak. Emakume batzuk atzerago dira, maputxeraz kantuan, gozo. Oilo ipurdia berriro ere, zimurdura berria gorputzean.

Ama gazte batek kandela bat piztu du nire alboan, alabarekin mintzo da: harmaila hauetan torturatu eta desagertuak jesarri ziren azkenekotz -txikitxoei azaldu die-, eta egun, memoriaren lekuko gisa harmailak bere horretan dira, berriztu barik, duela 41 urte bezala. Pittin bat ez deusago sentitu naiz, baina halakoak sentitu behar ditudala ulertu dut orduan, memoriak bere lana ondo egin duen seinale, desagertu eta torturatuak gure baitan bizi diren seinale, justizia egin eta hura lortu bitartean bederen. Ostean, memoriak leku atsegino batean gordeko ditu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altor Izagire

Zuzendaria nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Urbane Madera

Sailkatze arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Miren Arregi

Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Diffusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñati Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 13an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.eus-en sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatekerik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.


Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.



- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

HERRIAK

BERGARA

Komertzioetako hizkuntza paisaia euskaratu nahi dute

- ▶ Bistan dauden kartelak, menuak... euskaraz izatea da helburua
- ▶ Merkatariei laguntzeko herritar boluntario sarea osatu nahi dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Jardun euskara elkarteak, Udalen laguntzarekin, Idazlaguna proiektua jarri nahi du martxan. Helburua da denda, jatetxe, taberna, eta abarretako hizkuntza paisaia –erakuslehoetako idatziak, paretetakoak, menuak...– euskalduntzea, eta, horretarako, dendariei eta ostalariei laguntzeko boluntario sare bat osatu nahi dute.

Proiektuaren abiapuntua herritar talde batek euskara bultzatzeko erakutsitako gogoia izan da. Hala, herrian dauden euskararen hutsuneak identifikatu eta horiek nola gainditu aztertzen aritu dira. Eta hutsune horien artean, merkataritzako hizkuntza paisaian euskarak izan duen atzerakada nabarmendu dute. Atzerakada horren arrazoiaren artean hauek aipatu dituzte, besteak beste: batetik, dendari batzuen gaitasun falta euskaraz aritzeko, ziurtasun falta eta gaztelaniaz erosoago sentitzea; bestetik, beze-

ro euskaldunen eskaririk eza. Hau da, bezero askok nahiago izaten dute kartelak euskaraz ere egotea, baina nahi hori ez dute adierazten.

Kontzeptu garrantzitsua

Hizkuntza paisaia kontzeptua erabiltzen da leku baten bistan dauden kartel, errotulu eta halakoak izendatzeko; eta hizkuntzaren ikuspegitik oso garrantzitsua da, uneoro begietatik sartzen zaigunak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran eragin handia duelako. Bada, proiektu horretan, hain zuzen, merkataritzako eta ostalaritzako hizkuntza paisaia euskaratzea planteatzen da, "euskara indartzea eta, ahal den neurrian, nagusi izatea: erakuslehoetan zein lokal barruetan agertzen diren kartelak, jatetxe-tako kartak, pintxo zerrendak...

Helburua betetzeko, alde batetik, herritarren eskaria helaraziko zaie dendari eta ostalariei, eta bestetik, laguntza eskaini ere

bai. Hori horrela, dendari eta ostalariek euren negozioetan jendaurrean erabiliko dituzten testuak euskaraz idazten lagunduko dien herritar boluntario sarea osatu nahi dute, gaur egun martxan dagoen Berriketan mintzapraktika programa arrakastatsuen antzeko formatuarekin.

Nahi duten merkatoriendako

Dendari eta ostalariei dagokienez, nahi duten guztiek izango dute aukera egitasmoan parte hartzeko. Interesa agertuz gero, hartuko duten konpromiso nagusia izango da, boluntarioen laguntzarekin, euren establezimenduko errotuluak, menuak, eskaintzak... euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez jartzea.

Antolatzaileen arabera, proiektu horrek merkatariei ondorengo onurak ekarriko dizkie: bezeroei zerbitzu hobea eskaintzea, bezero berriak izateko aukera, sektorekako zenbait material eskuratzeko aukera eta euren aldeko

kanpaina positiboa.

Interesa duten dendari eta ostalariek irailaren 15a baino lehen eman behar dute izena Jardunen bulegoan edo jardun@topagunea.com helbidean.

Dendarietako laguntzeko taldea

Merkatariei laguntzeko boluntario sarean, euskaraz idazteko gaitasuna duen edozeinek hartu ahal izango du parte. Ez dago euskara maila handia izan beharrik, boluntarioei laguntza eskainiko zaie eta Udaletik eta Jardunetik.

Boluntarioak egin beharrekoa izango da dendari bati zein taldetxo bati hizkuntza paisaia euskaratzen laguntzea. Izan ere, helburua da merkatariek berak egitea –ahal duen neurrian–, boluntarioak dena eginda eman barik.

Laguntzaile jarduteko interesa dutenek urriaren 15era arte eman dezakete izena, Jardun elkartearen bulegoan eta jardun@topagunea.net helbidean.



MONIKA BELASTEGI

JOXE ITURROSPE
HERRITAR BOLUNTARIOA

"Begietatik sartzen denak eragin handia du hizkuntzaren erabileran"

Idazlaguna proiektuaren abiapuntua herritar talde batek euskara bultzatzeko erakutsitako gogoia izan da. Joxe Iturrospe da horietako bat.

Zeintzuek osatu zenuten hasierako taldea eta ze helbururekin batu zineten?

Herritar talde bat euskararen erabilera bultzatu nahian elkar-tu eta Bergaran dauzkagun hutsuneak aztertzen hasi ginen. Horren ostean, hutsuneak hobetzeko asmoz lanean hasi ginen.

Ze hutsune detektatu zenuzuten?

Euskararen egoera orokorraz aritu ginen. Askotan gaztele-rara jotzeko erraztasuna dugu-la eta zer egin genezakeen euskara gehiago erabiltzeko.

Zein da merkataritzako hizkuntza paisaiaren errealitatea?

Hobetu daitekeen gauza da, eta horregatik ekin diogu bide honi. Azken finean, begietatik sartzen zaigunak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran eragin handia duelako.

Nola ikusten duzue egoera?

Herritarren hizkuntza ohiturak aldatu direnez, hainbat tokitan eragina izan du. Ondorioz, gure asmoa euskara erabiltzeko ohi-turara bueltatu eta euskararen presentzia ahalik eta leku gehienetan bermatzea da.

Nola iritsiko zarete merkatariegana?

Lehenengo harremana Bergara Bizikoekin egin ostean, eskuorria atera eta denda eta komertzio gehienetan banatu dugu. Irailaren amaieran, boluntario sarea osatzeko asmoz, eskuorria etxe guztietara banatu da, herritarrek egitasmoan parte har dezaten.

"Gure asmoa da euskara erabiltzeko ohi-turara itzultzea"



Komertzioek agerian dituzten kartel, errotulu, menu eta halakoak euskaraz ere jartzea da helburua. | IMANOL SORIANO

Giro ederrean igaro dute asteburua San Martin jaietan

Bihar, martitzena, amaituko dira festak Bergaran

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA
Zapatuko azoka izaten da San Martinetako ekitaldi nagusietako bat eta aurten ere eguraldia lagun, jende dezente izan zen bertan.

Barazkien hamabost postu egon ziren, zazpi frutarenak eta 24 gaztarenak. Herriko zazpi harategitan prestatutako odolosteak ere izan ziren dastatzeko eta Munibe plazan, berriz, taloak saldu zituzten.

Azokako saridunak

Epaimahaiaren ustez, barazki onenak eraman zituena izan zen Antzuolako Tomas Larrañaga; bigarren postuan gelditu zen Sorazuzeko Esosi Etxeberria eta hirugarren onenak izan ziren Berrizko Santos Duñabeitiarenak.

Fruta lehiaketari dagokionez, berriz, Antzuolako Kontxi Izagurre izan zen txapelduna; Igorreko Urtza Sarrionaindia txapeldunordea eta hirugarren postuan gelditu zena, berriz, Iurretako Sonia Isasi.

Azkenik, eta gazta lehiaketari dagokionez, Zeanurira joan zen txapela; hango Joseba Ipiña-

buruk ekarri baitzuen epaimahaiaren iritziz, gaztarik onena. Bigarren postuan gelditu zen Joseba Insausti Ordiziakoa eta hirugarrenean Jose Luis Odriozola Aiaakoa. Saritutako lehenengo bi gaztak naturalak ziren eta hirugarrenarena, ketua.

Orain artekoa, "oso ondo"

Jaiek orain arte eman dutena positiboki baloratu du Kultura zinegotzi Leire Iruinek: "Eguraldi ona izan dugu eta horrek kaleko giroa animatzeko asko lagundu du. Azoka oso ondo joan zen, erraldoiak eta erromeria ere bai. Orain artekoa oso ondo doa".

Libre gunek harrera "ona"

Bestetik, "pozik" dira Libre plataformako kideak Bideberrin jarritako Libre gunea izaten ari den harrerarekin: "Ez genekien jendearen erantzuna zein izango zen baina egueneko pintxo potean 350 pintxo inguru saldu genituen eta asteburuko ekintzak ere oso ondo joan dira. Jendea erantzuten dabilela ikusten dugu eta oso pozik gaude".

EGITARAUA

HILAK 15, ASTELEHENA

12:00 Paella lehiaketa (Libre gunean, Bideberrin).

14:00 Bazkaria, paellada (Libre gunean, Bideberrin).

17:00 Herri kirolak.

19:00 Gaztetxekoen parodia kaleetatik.

22:30 Nagusien danborrada.

Ostean Suzko erruberak gaztetxe inguruan

23:30 San Martinen errepresentazioa

00:00 DJ pistoletak (Libre gunean, Bideberrin)

00:15 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin San Martin plazan.

HILAK 16, MARTITZENA

8:30 Diana.

9:00 Sokamuturra Barrenkale eta San Martin plazan.

11:15 Kalejira Udal Musika Bandarekin.

11:30 Errekortadore eskola ibiltaria Seminarioan.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua San Martin plazan.



Herriarrak txorizo eta gazta postuetan zer dagoen begiratzen, zapatuan egin zen azokan.



Barazki, fruta eta gazta lehiaketako sarituak. | JA.

emakume gizon emakume gizon

gorri euskara neska bizi

Euskaraz blai

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

14-15

IKASTURTEA
matrikula zabalik

Informa zaitez!

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net



| JOSETXO ARANTZABAL



Libre plataformakoak taloak egiten Munibe plazan, zapatuan. | J.A.



PATXI LARRAÑAGA
BERGARA

"Gazta, madalenak eta ogia erosi ditut azokan momentuz. Urtero aurrekontu batekin etortzen naiz eta bigarren bueltan erosten ditut gauzak".



XABIER LARRAÑAGA
BERGARA

"Gehien bat azokan zer dagoen ikustera etortzen naiz eta zerbait gustuko badut, erosi egiten dut. Pipermina erosi dut orain".



JON RUIZ DE EGINO
BERGARA

"Lehenengo aldiz jarri dugu fruta eta barazkien postua eta oso gustura gaude. Uste baino jende gehiago hurbildu da".



LUIS MARI GUTIERREZ
BERGARA

"Herriko harakinek egiten duten odolostea probatu dut eta oso ona zegoen. Azokan ere eman dut buelta bat".



Jolas parkea Udal pilotalekuan egin zen domekan eguraldiarengatik. | J.A.



Domekan egin zen Ageriko Pintura Lehiaketan, margotzen. | J.A.



Erraldoiekin, ume ugari. | J.A.

Eta uda ostean ere azala distiratsu izan dezazun

AURPEGI GARBITZEA*

15€

RPS: 228/10

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09
www.amagaraestetikazentroa.es

* Eskaintza baliagarria urriaren 13ra arte.

ARETXABAETA

Bederatzigarrena ere jendetsua izan da



Zapatu goizean, herritarrak eskaintzak begira. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREN ARREGI | ARETXABAETA

Bederatzigarren Ixadebalde azoka egin zuten zapatuan Aretxabaletan, Aretxartek antolatuta. Udako denboraldiko arropa atera zuten kalera, herritarrei prezio merkeagoetan eskaintzeko. Goiza polita izan zen, izan ere, jende dezente animatu zen komertzioek kalera atera zituztenak ikusi eta eroatera. Guztira hamabost bat dendak ipini zituzten postuak Mitarte kalean. Gehienak arropa dendak –umeendako arropak, nagusienak, barruko arropak–, eta oinetakoak.

Azokarekin batera, bestelako ekintzak ere egin zituzten zapatuan Aretxabaletan: umeendako puzgarriak eta tailerrak antolatu baitzituzten.

ONATI



BERNAT ALBERDI

Lehenengoak arrakastatsu

Lehenengoak izan dira, eta jendetsuak. Egubakoitzetik zapatu iluntzera arte Oñatiko San Martin auzoan adin eta gustu guztietarako ekintzak izan dira. Zapatuko auzo bazkaria arrakastatsua izan zen.

ANTZUOLA



JOSETXO ARANTZABAL

Auzo lanean garbituz

Auzo lanean garbitu zituzten bide bazterrek zapatuan Antzuolako Irimo auzoan. Traktorearekin garbitu zituzten lehenik eta gero aitzurrarekin, txukun utzi zuten auzora doan bidea.

ONATI

Antixeneko gaztetxea ospakizunetan

Antixeneko gaztetxearen bigarren urteurrena ospatu zuten zapatuan Oñatin. Umeendako jolasen eta lokal poteoaren ondoren, bazkaltzeko elkartu ziren 100 lagun inguru. Giro ederrean eman zuten eguna.



OIER FERNANDEZ

SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE
EUROPAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ASTEA

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2014
Irailaren 16tik 22ra

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

udalsarea21

AGENDA 21
ARRASATE

EGITARAUA

■ Irailak 20 Zapatua

- **BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka Mondragones kalean, azoka ondoan. 11:00–15:00. (*) Noiz eta nola batuko den materiala

■ MUGIKORTASUN TAILERRA ETA JOLASAK

Biteri plaza / 11:00-13:00

■ ERAKUSKETA

EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK – "Mugitzeko beste era bat" Biteri plaza. 11:00-15:00
Auto hibridoak eta elektrikoak, Paseoko bizikletak, tolesgarriak, eletrikoak .

■ Irailak 21 Domeka

- **BIZIKLETA BIRA - Monterron-Zubillaga-Monterron**
Irteera: Monterron parkea. 10:00
Ibilbidea Interneten: ttiki.com/78969

■ Irailaren 22tik 26ra

- **Erakusketa:** Etxaluze-Musakola bizikletaz egiteko alternatibak Kulturete, 17:30-20:30

(*) **BIRZIKLETA azoka -**

Noiz eta nola batuko dugun materiala:

- **Zer batuko dugu:** Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gurpil, eskularruak, mailotak .
Materiala garbi eta egoera onean ekartzea eskatzen da.
- **Noiz eta non batuko dugun materiala:** Udal azokan
Irailaren 13, zapatua
11:00 – 13:00
Irailaren 16, martitzena, eta 18, eguena
11:00 – 13:00 / 17:00 – 19:00

- Salneurria jabeak jarriko dio
- Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabea-ri itzuliko zaio irailak 25ean, eguena 17:00 - 19:00 udal azokan.



HIRIBUSA

DOAKOA

- Irailaren 16tik 22ra, hiri busa DOAN.

** Adin txikiek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batekin badoaz edo ohiko eskola bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezzen)**



Haurrak eta hezitzaileak Okendoko ludotekan iaz ikasturte hasieran, ate irekien egunetako baten. | JOKIN BEREZIARTUA



Aurten gazte txokoetan lanean arituko diren hezitzaileetako batzuk. | TXATXILIPURDI

Gazte txokoek eta ludotekek asteon ekingo diote ikasturteari

Okendo, Usaetxe eta Santa Marinako ludoteketan ate irekiak hasiko dira gaur; Erguin, Musakola eta San Andresko gazte txokoak bihar zabalduko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txatxilipurdik kudeatzen dituen ludoteketan eta gazte txokoetan dena dago gertu ikasturte berriari ekiteko. Okendo, Usaetxe eta Santa Marinako ludotekak gaur bertan jarriko dira martxan; lehen bi asteetan –gaur hasi eta irailaren 30era arte– ate irekiak izango dituzte, eta, beraz, ludoteken eskaintza probatzeko aukera egongo da, doan. Ate irekiak 17:00etatik 20:00etara izango dira. Urriaren 1etik aurrera, berriz, matrikula ordaindu beharko da.

Txatxilipurdiko arduradunek aurreratatu dute ate irekiek irauten duten bi asteetan ekintza

bereziak egingo dituztela, ikasturtea hasi dela iragartzeko. Izena eman gura duten 3 eta 12 urte arteko umeek matrikulazio-orrria hiru ludoteketako baten eta Gazte Bulegoan entregatu beharko dute. Ikasturte osorako kuota 30 euro da.

Gaztegunea, hilaren 19an

Bestalde, 12 eta 17 urte arteko gazteendako gazte txokoak bihar irekiko dituzte. Hala, Erguin, Musakola eta San Andresko gazte txokoak 17:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik. Aste bukaretarako erdiguneko gaztegunea, berriz, egubakoitzean irekiko

dute, 18:00etatik 21:00etara. Zapatu eta domeketan, berriz, 17:00etatik 21:00etara irekiko dute.

Txatxilipurdiko hezitzaileak "gogotsu" daude ikasturteari ekiteko; ez dira aspertuko: "Esperientzia eta abentura berri asko bizitzeko, arratsaldeak kolorez margotzeko, berriktaldit interesgarriak izateko...", diote.

Ez dago izena eman beharrik, gazte txokoetara hurbiltzearekin nahikoa izango da: "Musika, sukaldaritza, txapelketak, sorkuntza, eskulanak, askotariko tailerrak, ospakizunak, ezusteko bisitak... Herria eta auzoak piztu nahi ditugu!", adierazi dute.

Iratxera irteera eta Maritxu Kajoi berezia Abaroaren eskutik

Abaroa erretiratu elkarteak irteera antolatu du Iratxera urriaren 15erako. Izena eman behar da urriaren 8a baino lehen eta prezioa 32 euro da. Hiru autobus antolatu dituzte. Bestalde, Maritxu Kajoi egunean luntx berezia egingo dute Etxaluzen (18:30). Bazkide txartela aurkeztu behar da hilaren 22tik 26ra.

Herrixa Dantzan ekimeneko izen-emate epea, irailaren 26ra arte

Portaloikultura elkarteak plazako dantza tradizionalen ikastaroak antolatu ditu aurten ere, Herrixa Dantzan moduan ezaguna den ekimena. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 26ra arte, eta hiru bide daude horretarako: AEDn, Gazte Bulegoan edota herrixadantzan@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Ikastaroa urriaren 6an hasiko da.

Domekarako antolatu du Besaide elkarteak Oroimen Eguna

Mendian hil diren mendizaleak gogoratzeko eguna izango da domekakoa. 1955a ezker hutsik egin gabe antolatu dute egun berezi hori, eta mendi istripuan hil diren euskal mendizale guztiak agurtuko dituzte Besaiden bertan (10:30). Bestalde, hilaren 28an irteera egingo dute Opakuatik Zioardiaraino.

NIRE USTEZ

ITSASO
ERRETOLATZA



Eliza (ta) erromatarra

Rita Pavone-ren *Ballo del matone* melodia sarkorra kendu ezinik hegazkinetik jaitsi ahal, kotxe diminitoen artean eta adokinezko zoruan zehar, beste kanturik ez balegokio moduan bisitatu genuen Erroma.

Mende asko pasatu dira eliza katolikoaren iluntasunetik argia ikusten hasteraino, artean, Cesar-ak Aita Santu mordoxkek ordezkatu dituzte inperioan.

Erromatar ingeniariak eginiko eraikuntzen hondarretatik ehunka eliza kupuletarako historia luzea dario hiriak. Aurrerakoia dirudi, nahiz ta

oraindik Kapilla Sixtinan soinburuak biluzik eramatea debeatzen duten, haragiaren erakusgarri lizunagatik edo non-bait... Horma eta sabaia begira dituzun aingeru, apaiz, Aita Santu eta Jaungoikoak –denak gizonak– biluzik daudelako edo!

Eta pentsatzen duzu, zenbat arbasok botako zuen izerdia harriak garraiatzen, erlijioaren gotorlekuak eraiki ahaleginetan. Edo horma-irudikoei bizimodua goxatu, jatekoak eta sutarakoak halabeharrez erregalatu. Gara ilunak bezain ezkorak eta gogorak, bizian ondo eginaren heriotzaren ostekoaren esperantzaz sufritutakoak.

Egun, bestelako garaia bizi ditugula eta ezin kexatuko gara... Errukienak guri haiena tokatu balitzaigu!

Eta hara non, erlijioaren politikaz libro ginelakoan, oraindik munduan gerra eta hilketak Jaun-goikoen izenean diren.



ARRASATEKO UDALA

Konpost-guneak baloratzera

Egun, 103 familiak egiten dute auzo-konposta, Urriben, Laubiden eta Nafarroa etorbidean jarritako guneetan. Bada, Udalak ekimena baloratzeko bilerak egingo ditu erabiltzaileekin hilaren 18an; Urriben 18:00etan, Laubiden 19:00etan eta Nafarroa etorbidean 20:00etan.



Josefko Aranzabal

2014 - 2015
ikastaroak

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

URRIA - MAIATZA / Hasiera: Urriak 6

1. maila: Asteazkena 19:30

2. maila: Astelehena 18:00

Dantza-txokoak: astelehena / asteazkena

Informazioa eta egitarauak: www.herrixadantzan.com

IZENA EMATEKO EPEA: Irailak 26

AED: 943 77 12 28 / GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
HERRIXA DANTZAN: herrixadantzan@gmail.com

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Goikobaluko Erromerixie aspaldiko ohiturari eusteko asmoz dator bigarrenaz

lazko arrakastak bultzatuta, Zuztarrak Errotuz elkarteak, Udalak eta herriko hainbat taldek elkarlanean, festa berezia antolatu dute irailaren 20rako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Zuztarrak Errotuz taldearen, Udalaren eta herriko hainbat elkarteren elkarlanari esker bigarren urtez dator Goikobaluko Erromerixie. Aspaldiko ohitura berreskuratzeko asmoz eta iazko arrakasta ikusita, aurten erre-

pikatzea erabaki dute. Domekan egingo da, hilak 20, Santa Barbara parkeko gainean: hasteko, Seber Altube plazatik abiatuta, kalejira egingo dute (12:00); gero Goikobalura igoko dira Herriko plazatik (13:30), eta erromeria 14:00etan hasiko da. Txalapar-

tariez, bertsolariez eta dantzez gozatzeko aukera egongo da orduan, eta sagardoa, taloak, edariak eta kafea saltzeko postua ere jarriko dute bertan. Bazkaria -15:00etan hasiko da- norberak eraman beharko du; *zeuk eruen, zeuk jan* modura antolatu dute.



Aurtengo egitaraua aurkezteko agerraldia Kulturaten. | MONDRABERRI

Bazkalostean kantuan egingo dute eta bertsolariak ere egongo dira. Gainera, ekitaldia egingo da 16:15ean: dantzak, albokariak, trikitia eta kantu herritarrak izango dituzte. Azkenik, berbena egongo da Goikobalun bertan -iaz Herriko plazan egin zen-, 18:00etan hasita. Festa 19:30ak aldera amaituko da.

Tradizio handiko erromeria

Antolatzaileen arabera, 1950. urtera arte Igokundearen egunean erromeria egiten zen bertan: "Herriko plazatik desplazatutako erromeria ospatzen zen. Herriko musika bandak eta txistulariek jotzen zuten bertan; garai horretan, egiten zuten ekaitzen ondorioz, erromeria bertan behera uzten zen, partzialki edo osotasunean".

Diotenez, egun hori "euren jaitzat" zuten hainbat arrasatearrek: "Tradizioaren arabera, Gazteluondokoendako esanahi berezia zuen egun horrek, Igokunde egunaren afarian oilarra jatea tradizioa zelako". Hala ere, Goikobaluko erromeria hura desagertu egin zen, beste batzuen antzera: San Josepekoa, Santa-masekoa, Gesalibarkoa...

Bestalde, antolatzaileek jakitera eman dutenez, 1931ko sajuanetan "sekulako arrakasta" izan zuen berbena bat antolatu zen Goikobalun: "Herria hutsik geratu zen eta tabernariak protesta egin zuten. Harrezkero, jaietan, ez zen berbenarik programatu Goikobalun".

Gaur irekiko da izen-emate epea pintura ikastarorako

J.B. | ARRASATE

Kulturateko pintura klaseak laster jarriko dira martxan. Matrikulazio epea gaur irekiko da eta ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek hilaren 19ra arte izango dute izena emateko aukera, 17:00etatik 19:00etara, Kulturateko Pintura Gelan. Seber Altube plazatik sartu beharko da. Irailaren 22an hasiko dira klaseak eta gehienez 20 laguneko taldea osatu gura du Amaia Bengoa irakasleak.


Ekainera arteko ikasturtea

Ikastaroak prezio ezberdinak ditu adinaren arabera: 145 eurokoa izango da helduen-dako -hiru ordu astean irailatik ekainera bitartean- eta haurrentzat, berriz, 75 eurokoa izango da -ordu eta erdi asteen irailatik ekainera arte-. Bestalde, zapatutarako izena eman gure dutenek 96 euroko ordaindu beharko dute - bi ordu irailatik ekainera-. Izena emateko gutxieneko adina 7 urtekoa izango da.

Informazio gehiago gura duenak 943 25 20 25 telefono zenbakira deitu.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



'Gigi': "Polita izango litzateke New Yorkeko maratoina joatea"

1980xen hasi zan Luis Zabala *Gigi* atletismuen, maratoietan batez be: "Denbora pasa bezala hasi nintzen, ezer konkreturik bilatu gabe, baina 1986an Mallorcan 2 ordu eta 50 minutuko marka egin nuenean...".

Benetan bizi euen atletismue Zabala, eta inguruen egiten zien proba danak buruen artxibaute euen: "Ordenadore bat besterik ez zait falta gauzak zehatz-mehatz kontrolatzeko".

Egunero urteten euen entrenetan, 7rak aldien, eta, gutxienez, hoge kilometro egiten zittuen urteten euen bakoxtien. Prueba inportante bat eukienien, baiñe, ez zan entrenetan: "Igandean Donostian korrituko dut. Egun hauetan ez naiz entrenatzera joango. Masaje batzuk hartu...".

Ametz bat euen atleta mondrauetarrak: "Polita izango litzateke New Yorkeko maratoina joatea. Gastu izugarri handia da, badakit, baina polita izango litzateke".

Esteban Garibairen etxie

Beheko Errabalien euen Garibai etxie, herriko harresixetatik kanpoko behekaldeen. Esteban Garibai bertan jaixo zan, 1533en.

Felipe II.aren kronistie izen zan eta etxien bertan idatzi euen gerora Anberesen inprimauko euen *Espaniako Historia Orokorra*.

1569xen Mondraueko alkate izen zanaren etxiek daukon aurrekaldie 1560xen barrittu euen; leiho bat eta burdiñazko balkoi bat egin zittuen. Balkoi gaiñien zamalloatarren harmarrixen euen. Garibai bertan bizi izen zan sasoi, 13. eta 15. zenbakixek etxe berekuek zien.

Madrillen hil zan Garibai, 1599xen. Etxie 1989xen barrittu euen, 5.695.962 pezetako presupuestuekin, eta 1990a ezker Mondraueko Gazte Bulegue dau bertan.

36. zenbakixe 1989-10-13

Haurrei atletismo eskoletan parte hartzera gonbidatu die Arrasate Atletiko Taldeak

J.B. | ARRASATE

Arrasate Atletiko Taldeak ikastetxeetako umeei gonbidapena luzatu gura die atletismo eskoletan parte har dezaten. Irailaren 10ean hasi ziren entrenamenduak baina oraindik ere aukera dago Mojategin egiten diren saioetan parte hartzeko; eguazten eta egubakoitzetan dira, 18:00etatik

19:00etara, benjamin, alebin eta infantil mailetan. Izena eman gura dutenek euren ikastetxeetan abisatu beharko dute lehendabizi, begiraleei zein irakasleei.

Izan ere, Arrasate Atletiko Taldeko Fernando Zufiriaren arabera, "oso garrantzitsua" da Arrasaterendako herrian bertan harrobia izatea.



GOIENA

Ekocenterra, Maritxutarako gertu

Ekainean inauguratutako Ekocenter berrian ere hasi dute ikasturte berria. Ohiko eskaintza zabalaz gain, Maritxu Kajoirako gertu daudela erakutsi dute dagoeneko. Izan ere, emakumezkoendako zein gizonezkoendako askotariko jantzi eta osagarriak dituzte Musakola auzoan -Asam-eko lehengo pabiloian-, dagoen bi solairuko denda.



La flor eraikina botata, zabalgunen itxura ematen zaio kaleari. | IMANOL SORIANO

San Antonio itxuraldatu eta herriarekin lotzen

Martokua-Zubiaurre kalearekin lotzeko estuguneari irtenbidea emateko, hasi dira eraikinak botatzen

JULEN IRIONDO | BERGARA

Oraingo astean bota dute San Antonioko *La flor* bezala ezagutzen den eraikina, Fernandez oihal denda egon zen hura. Eguen goizean hasi eta egubakoitzean amaitu zituzten lanok. Laster botako dituzte eraikin horren aurrealdean, errepidearen beste aldean, dauden bost zenbakiatik bi ere. Eta, horrekin, Marto-

kua-Zubiaurrera bidean sortzen den "inbutuari" konponbidea jarri eta inguru hura herriarekin lotzea lortuko dela diote Udaletik. Espaloia nahiko estua da eraikin horien aurrealdean eta joan-etorrian oinezko dezente dabilenez, aspaldi ziharduten arazoari irtenbidea emango diote. Gainera, konponbide horrekin, erreka ondoko ibilbide itxurosoa geratu da. *La*

flor botatzen hasita, hasiko da gauzatzen irtenbide hori.

Begietara "irekiera"

Bergarako udal arkitekto Xabier Ieregik adierazi du eraikin horiek guztiak botata begietara "irekiera" lortuko dela: "Oso desberdina izango da; gaur egun, kalezulo bat ikusten da, eta ez beste ezer. Lehenengo urratsa begietara ire-

kiera hori izango da. Gutxieneko urbanizazio lan batzuk egingo ditugu: errepidea pixka bat zabalduko dugu, eta espaloia bat egin, alde horretan, *La flor*-en aldean".

Eraikin bat erosteko

Eraikin hori bota ahal izateko, bere garaian erosi egin zuen Bergarako Udalak itsatsia duen etxearekin batera, eta gero lehiaketara atera eta eraikuntzako sustatzaile bati saldu, aipatutako zatia bota egingo zela baldintza jarrita. Udalaren asmo osoa burutzeko gauza bera egin nahi du *La flor* eraikinak parean duen etxe ilararekin.

8. zenbakia osorik Udalarena izan dadin negoziazioetan ari dira jabeekin, eta dagoeneko Udalarenak diren 2. eta 4. zenbakiak botako dituzte oraingoz, *La flor*-en ondoren.

Kaleari lotua

8.a bota gabe ezin dituzte 6.a eta 10.a ere bota, segurtasun kontuengatik. Baina 8. zenbakiaren jabeekin akordioa lortu, denak bota eta Martokua-Zubiaurre herriarekin lotzea da Udalaren asmoa, Ieregik azaldu duen moduan: "Bere momentuan, Artzamendi kalea ere bazegoen baztertuta bezala, eta Mintegi kalea ireki zenean, orain urte batzuk, lotu egin zitzaion inguru hura herriari, eta hau ere urrats handia izango da, eta asfaltiko ametsa, Martokua-Zubiaurre herriarekin lotzeko".

"Urteetako lana"

Jaione Isazelaia alkateak, berriz, adierazi du "urteetako lanaren emaitza" dela hau guztia, aurreko udal korporazioek egindakoa eskertu du eta teknikarien lan profesionala ere bai, "luze jotzen duten zereginak" izan arren, "bergararren bizi kalitatea hobetzeko ikuspegia" izan zutelako.

Jardun euskara elkarteak lan poltsa ireki du

Jardun euskara elkarteak ikasturte honetan izan ditzakeen beharrei erantzuteko lan poltsa ireki du eta dagoeneko zabalik daukate izena emateko epea.

Besteak beste, euskara irakasle gisa edo aisialdiko begirale moduan lan egiteko interesa dutenendako lan poltsa da.

Interesa dutenek curriculum eroan behar dute Jardun euskara elkartera -Errotalde jauregia, kultura etxea-, edo mezua bidal dezakete jardun@topagunea.com helbide elektronikora. Irailaren 21a da horretarako azkeneko eguna.

Ikasketak euskaraz egiteko laguntzak eskatzeko azken eguna

Gaur, irailak 15, amaitzen da euskara zein ikasketa osagarriak euskaraz egiteko diru laguntzak eskatzeko epea. Hiru laguntza mota daude: Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako diru laguntza; Udalako Euskal Unibertsitatean parte hartzen dutenentzako diru laguntza; eta UNEDeko Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldi-tan parte hartzen duten bergararentzako diru laguntza. Udalaren webgunean dago laguntza horien inguruko informazioa: http://www.bergara.net/dirulaguntzak_euskara helbidean eta 943 77 91 66 zenbakian.

NIRE USTEZ

MAITE PLAZAOLA



Hemen dira sanmartinak

Hainbeste desio genituen opor santu horiek etorri ziren, bai, baina egunotan eduki ditugun oinaztuak baino azkarrago joan dira. Indarrak hartu eta konturatu aurretik agertu zaigu bat-batean iraila, abisatu gabe, isil-isilik, bere aldapa eta guzti: umeentzat ikastolara bueltatzeko ordua eta gura-soentzat berau finantzatzeko eta lanera bueltatzeko. Hilabete gogorra. Hori gutxi balitz, malda horren desnibela hiru hilabetekoa izango da aurten, abendura arte ez baitugu deskantsurik izango.

Baina Bergaran, badugu desertu horri kolore pixka bat emango dion oasia, sanmarti-

nak. Jai honek beti eduki du xarma berezi bat herritarrentzat; izan ere, honi arrazoia ematen dion santuaren historia edo istorioarekin bat egin edo ez, askori eztarrian korapilo bat jartzen zaigu sukaldariz lagundutako danborrada koloretsua pasatzen ikustean. Ni behintzat, folkloriko egiten naiz egun horretan.

Aurten gainera, inoiz baino indar handiagoarekin datoz, San Martin jaiak, errebindikazioz bustita, txosna eta guzti, eta egitaraua ere bete-betea dugu.

Aspertzeko betarik gabe, ongi pasatzea eta indarrak hartzea izango da gure lana hurrengo lau egunetan. Hortaz, ahaztu maldak eta bergarroi ipintzen diguten fama bezala pasatu, elegante!

"Errebindikazioz bustita datoz, txosna eta guzti"



Neska-mutikoak kanpoko igerilekuan. | GOIENA

Hilaren 19ra arte egongo da zabalik kanpoko igerilekua

15:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eguraldi onak jarraitu behar duela ikusita

M.B. | BERGARA

Agorrosin Ekintza Gunetik jakinarazi dutenez, irailaren 19ra arte, egubakoitza, zabalik izango dira Agorrosingo kanpoko igerilekuak. Erabiltzaileen eskaerak aintzat hartu eta ikusirik egu-

raldi onak jarraitu behar duela, igerilekuak irekita edukitzea erabaki du Udalak. Horrenbestez, irailaren 15etik 19ra -16an itxita daude igeritokiak- ordutegia honako hau izango da: 15:00etatik 20:00etara.

Sustapen Astea

Irailaren 17tik 23ra, berriz, Sustapen Astea antolatu dute, Agorrosin Ekintza Gunean egiten diren ikastaroak ezagutzera emateko asmoz.

Nahi duten herritar guztiendako egongo dira zabalik ateak, debalde, baina parte hartzeko izena eman behar da Agorrosingo harreran.

Hilaren 17tik 22ra honako ikastaro hauek egongo dira: body-balancea (08:00), hipopilatesa (15:15), freestyle-DBH (17:10), body-powerra (18:00), spinninga (19:00) eta GAP (20:15).

Hilaren 18tik 23ra, berriz, honako ikastaro hauek parte hartu ahal izango da: gimnasia seniorra (09:30), multikirola-DBH (17:10), zumba (18:00), hipopilatesa (19:00), crossfit-bosua (19:00) eta spinninga (20:30).

Hilaren 19an, fitness seniorra egongo da (09:30).

Ikastaroak hastear

Sustapen Astearen ostean, hilaren 22an hasiko dira aurrera egin duten ikastaroek. Zerrendak dagoeneko ikusgai daude www.agorrosin.net helbidean.



Batzorde berriko kideak eta danborradan parte hartuko duteneko batzuk, egubakoitzean, kultur etxean. | MIREN ARREGI

Bihar, martitzena, egingo dute lehenengo entsegua

Hilaren 23ra arte dago danborradan izena emateko epea zabalik; entseguetan egin ahal izango da hori

MIREN ARREGI | OÑATI

Egubakoitzean egin zuten batzorde berriaren eta danborradako entseguen plangintzaren aurkezpena, joan den asteko eguazteneko bileran hori antolatzeke batzorde berria eratu ostean.

Hala, bihar izango da San Migel bezperako danborradarako lehen entsegua; izan ere, martitzen eta eguenean egingo dituzte –hilaren

16, 18, 23 eta 25ean–, 20:00etan kiroldegiko pilotalekuan. Irailaren 21ean, domekan, 16:30ean izango da entsegu saioa, toki berean hori ere eta irailaren 25ekoa izango da entsegu orokorra. Horretan, Udala Banda eta dantzariak –aurtengo kintoak– batuko zaizkie gainerako konpainiei. Orain arte danborradan atera diren konpainia guztiak aterako dira aurtengoan

ere San Migel bezperan danborrak astintzen: aurten, horiei gehituko zaizkie Acesma elkarteak.

Konpainia guztiak ordezkaturak
Danborradan parte hartuko duten talde eta konpainia guztietako ordezkariak batu ziren egubakoitzean argazkia egiteko. 30 lagun guztira. Agerraldian, beste behin, herritarrei dei egin zieten dan-

borradan zein antolakuntzan parte hartzeko. Izan ere, batzordearen nahia da "aurtengo ere danborrada zabal, koloretsu eta anitza" izatea. Danborradan atera gura duten guztiek badute oraindik ere horretarako aukera, izan ere, hilaren 23ra arte egongo da zabalik izena emateko epea.

Era berean, antolakuntzako kideek azaldu zuten aurten eratu den batzordea ez dela aurtengo danborrada antolatzerara mugatuko, baizik eta, "hemendik aurrera ere bide beretik lan egiteko konpromisoa" erakutsi dutela kideek.

Eskerrak aurreko batzordeari
Joan den eguazteneko bileran Udalak egin moduan, egubakoitzean agerraldian antolakuntzako eskerrak eman gura izan zizkien orain arteko batzordean lan egin izan duten herritar guztiei

Elkarretaratzea eguenean, erabakitze eskubidearen alde

Eskoziak bere etorkizuna erabakiko duen egunean Oñatiko Gure Esku Dagok elkarretaratzea antolatu du *Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze eskubidearen alde* lelopean. 19:30ean izango da hori, eguenean, herriko plazan. Bestetik, burujabetza eta erabakitze eskubidearen gaineko hitzaldia egingo du Ortzil Letamendiak, kultur etxean hilaren 24an, 19:00retan.

Fitness eta gimnasia ikastaroak hasiko dira gaur Zubikoan

Gaur, astelehena, hasiko dituzte fitness eta gimnasia zerbitzuetako hainbat ikastaro. Eskaintza zabala da eta egutegi eta ordutegia Zubikoa kiroldegian bertan kontsulta daiteke.

Igeriketa ikastaroetako behin betiko zerrendak, bestalde, bihar jarriko dituzte ikusgai. Ikastaroak urriaren 13an hasiko dira.

Irailaren 26ra arte jasoko dituzte udako argazkiak gaztelekuan

Aurten ere antolatu dute Bategatik Bestera argazki eta bideo lehiaketa gaztelekuan. Udako lanak izan behar dute eta edozein euskarri informatikotan aurkez daitezke. Argazki bakoitzak data eta azalpen txiki bat izan behar du. Urriaren erakusketara egingo dute jasotako lan guztiakin, eta sarituak aukeratu dituzte.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN



Errege Dekretua

silpean egin dute, lasai eta erlaxatuta geundenean. Estatuko gobernuko agintariak badakite une egokia aukeratzeko, eta abuztuan dekretu berri bat onartu dute presaka. Honen bitartez udal liburutegiek tasa bat ordaindu beharko dute egiten den mailegu bakoitzarengatik. Errege Dekretu honek sortzaileen egile-eskubideak ordaintzea omen du helburu, askok zilegi dela pentsatuko dute, baina liburutegiak lege horretatik libre izan dira betidanik. Gainera, dirua erakunde kudeatzaileek bilduko dute egileen izenean.

Historian zehar liburutegien funtzio nagusienetariko bat

kulturaren demokratizazioa izan da. Ezagutza eta informazioa guztiengan era berean heltzeko eta zabaltzeko (inolak ezberdintasunik kontuan izan gabe) ezinbestekoa izan da zerbitzuaren doakotasuna. Erabilzaileak ez luke zuzenean ordainduko, baina liburutegiak berak egin beharko lioke aurre gastu berri honi. Honen ondorioz, dagoeneko murrizketa gogorak jasan dituzten liburutegi askoren etorkizuna kolokan jarriko da, duda barik.

Egile askok jakin badakite merkatuaren legepean bizi iraupen motza edo eza duten liburu askoren benetako bizitza liburutegietan hasten dela. Ez dezagun, ba, ezagutzaren bide garrantzitsu hau itxi. Liburutegirik gabe ez baitago ez iraganik ezta etorkizunik ere.

"Liburutegi askoren etorkizuna kolokan jarriko da"



Irakasleak ikasle, Txantxiku ikastolan

Golde 5 izeneko hezkuntza programaren aitzindaria da Mari Jose Lera eta Txantxiku ikastolan izan da hango irakasle horren berri ematen. Hezkuntza programa horren helburua da ikasleari eskolan atribuzio positiboak egitea eta haurrak eskolan nola motibatu lantzea. Irakasleekin egin duten moduan, gurasoekin ere egingo dute. Beraz, joan den eguazteneko saioak jarraipena izango du.

ESKORIATZAKO

Tonbolak lagun eginda dator Garagardo Festa

Herritarrek emandakoekin osatuko dute tonbola hori

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZAKO

Eguenean hasi eta domekara bitartean garagardoa izango da protagonista Eskoriatzan. Garagardo Festa Solidarioaren helburua, beste behin, zaharren egoitzarako dirua batzea da. Eta horretan lagunduko du herritarren ekarpenekin jarriko duten tonbolak.

Iaz jarri zuten lehenengoz tonbola, orduan zapatistek emandako materialarekin. Orainoan, baina, herritar guztiei zabaldu diete ekimena: "Edonork ekar dezake materiala. Jende guztiari zabaldu nahi izan diogu aurten, laguntzeko beste modu bat delako", argitu du Dorleta Sologaistoa antolatzaileak. Produktu berriak edo ia berriak gura dituzte, era askotakoak: jokoak, peluxeak, sukaldeko tresneria, apaingarriak, kirolerako artikulua, bulegoko gauzak, eskolarako materiala, imitaziozko bitxiak, poltsak, diskoak, liburuak... Herritarrek zaharren egoitzara eraman behar dute materiala.



Garagardo Festako taberna jendez beteta, iaz. | JAGOBA DOMINGO

Garagardoa eta jatekoa

Eguenean, hilak 18, 18:00etan hasiko dute festa solidarioa. Karpa jarriko dute plazan, eta barruan egongo dira tonbola, txartelak erosteko postua eta tabernako barra. 100 boluntariatik gora izango dira lanean han, lau egunean. Askotariko garagardoak

eskainiko dituzte, eta jatekoa ere bai: ukondoa, saltxitxak eta, aurten lehenengoz, oilasko izterrak; baita patata erreak ere. "Gainera, nahi duenak etxean egindako patata-tortillak eraman ahal izango ditu lau egunotan, 19:00etatik aurrera, zatitu eta pintxo eran

saltzeko gero", gaineratu du Sologaistoa.

Bestalde, dirua emanda ere lagundu ahal izango diote herritarrek zaharren egoitzari. Hona horretarako kontuak: Kutxa: 2095 5088 41 1064016883; eta Laboral Kutxa: 3035 0044 82 0440028200.

ARETXABALETAKO

Bertso-eskola irekia egingo dute bihar, gaztelekuan, gaztetxoendako

M.A. | ARETXABALETAKO

Urrian hasiko ditu eskolak Lekai-xokak eta bigarren ikasturtea aurrekoa baino "oraindik eta gehiago gozatzeko" gertatze lanean dabilta azken asteotan. Egu-bakoitzean, esaterako, ikastetxeetan jardun zuten bertso-eskolaren berri irailaren 24an, 19:00etan, emango dute. Izena emateko epea hilaren 26ra arte dago zabalik Arkupeko harreraren (lekaixoka@gmail.com).

duen edozein gaztetxo hurreratu ahal izango da bertso-eskolaren jarduna hobeto ezagutzeko.

Bestalde, 17 urtetik gorako gazteekin ere osatu gura dute taldea aurten. Gazte horiendako eta helduendako eskaintzaren berri irailaren 24an, 19:00etan, emango dute. Izena emateko epea hilaren 26ra arte dago zabalik Arkupeko harreraren (lekaixoka@gmail.com).



Bertso-eskolako kideak neska-mutikoeekin, egubakoitzean. | AMAIA TXINTXURRETA

Hasi dituzte Loramendi-Beinke dantza entseguak

San Migel jaietako zapatu arratsaldean egingo dute Beinke-Loramendi dantza, plazan, eta ordurako hasi dituzte entseguak Loramendi Elkar-teak antolatuta. Eguaztenez elkartzen dira udaletxe zahar-rean, 19:30ean; hurrengoak dira 17an eta 24an, eta hilaren 25ean, eguena, entsegu orokorra egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan.

Senegalen eta Gambian bizikletan egindako bidaiaren berri etzi

Mikel Bringas donostiarrak familiarekin batera Senegalen eta Gambian bizikletan egindako bidaiaren berri emango du eguaztenez Arkupen (19:00). Afrikako bi herrialdeotan ezagututako lagunen kontuak ekarriko ditu, baita bertako parajeetako argazkiak ere. Bizikletan zelan moldatu ziren ere kontatuko du.

NIRE USTEZ

NESTOR ARANA



Konpondu edo bota?

ankideekin bazkaltzen ari nintzela, mahaikideetako batek gertaera polit bat kontatu zuen. Urte askoan ezkondata egon zen bikote bati zera galdetu omen zioten: "Nola liteke horrenbeste urte pasa ondoren oraindik ere ezkondata jarraitzea?". Bikotekideetako batek honela erantzun zion: "Azalpen erraza du, gu gauzak konpon-tzen ziren garaikoak gara".

Gaur egun, aldiz, gauzak behin edo denbora laburrez erabili eta botatzekoak gara.

Filosofia hau beste esparru batzuetara ere pasa dela esango nuke: maila pertsonalera (bikote banaketa) edo naturarekiko harremanera (Espainiako Itzulian Aralarreko igoe-ran geratu zen zakar mordoia ikusi besterik ez dago); bi adibide aipatzearen.

Garbi dago gure mundua ez dela behin erabili eta botatzekoa. Danimarkako taxi gidari batek Danimarkan umeentzako dituzten abantaila ekonomikoekin berri eman zidan behin. Bere ikuspegitik, horrelako politikek lagunduko diote beraien geroa ziurtatzen, ume horiek izango baitira Danimarka aurrera aterako dutenak. Nire ustez, taxi gidari horrek zuen kontzientzia soziala sortu eta garatu behar genuke gurean. Luze iraun nahi badugu, badugu, bai, konpondu beharreko zerbait.

Lorzaintza zerbitzua esleitzeko epea luzatu egin du Udalak

M.A. | ESKORIATZAKO

Premiazko ezohiko osoko bilkura egin zuen Eskoriatzako udalbatzak egunean lehiaketa dei batera aurkezteko epea luzatzeko. Herriko berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratazioarako proposamenak aurkezteko epea luzatzea proposatu zuen alkateak, eta aho batez onartu gainerakoek.

Uztailaren 23ko ohiko osoko bilkuran onartu zuten lehiaketa dei hori, eta uztailaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu oinarriak. Abuztua tartean egonda, alkateak egunean argitu zuen udaletxean aurkeztu beharreko hainbat dokumentu ezin lortu ibili direla enpresak, eta horregatik epea hiru aste luzatzea proposatu. Urriaren 3a izango da proposamenak aurkezteko azken eguna.



M.A.

Pintura lanak ikusgai Arkupen

Marije Carrillo irakaslearekin lanean jardun duten ikasleen pintura lanak daude Arkupeko erakusketa aretoan: paisaiak, natura hilak eta beste hainbat lan. Horieta batzuk, gainera, oraindik bukatu barik dauzkate, eta urrian hasiko den ikasturtean jarraituko dute lanean. Hain zuzen ere, pintura ikastaroetarako —eta eskulanetarako— izena Arkupeko harreraren eman behar da.

ELGETA

Vespa eta Lambretta motorren topaketa iragarri dute domekarako

Bezperarako, herriko baseritarren eta artisauen azoka, Intxortako Igoera, Sagardo Eguna eta tortilla lehiaketa antolatu dituzte Udalak eta gaztetxeak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurten ere Lambretta eta Vespa motorren topalekua izango da Elgeta. Domekarako, hilak 21, egin dute hitzordua. Eguraldiak zerikusi handia du topaketara etortzen den motorzale kopuruan, eta aurten ere 80 bat motor elkarreko itxaropena dute antolatzaileek.

Zaletasun hori dutenek txukun zaintzen dituzte motorrak, horien artean Fermin Iribar elgetarrak. Aurten ere, motor bat baino gehiago izango ditu goizeko erakusketan ikusgai. Laguntzaile taldearekin batera bedertzigarren aldiz antolatu du topaketa herrian, eta motor erakusketa, 56 kilometroko ibilbidea eta bazkaria iragarri ditu.

Motor erakusketa eta ibilbidea

Parte-hartzaileak goizean zehar joango dira Elgetako herriko plazara gerturatzen, eta motor guztiak 12:30ak bitartean egongo dira ikusgai. Ordu horretan laguntzari ibilbidea egingo dute guztiak batera. Elgetatik abiatu eta Elorriora egingo dute. Ondotik egingo duten ibilbidea da: Miñota, Berriz, Zaldibar, Areitio, Ermua, Eibar, Soralue, Bergara eta San Prudentzio. Elgetarako bidea Kanpanzarretik egingo



Vespa eta Lambretta motorren erakusketa. | L.Z.

dute. Bazkaria ere antolatu dute aurten Vespa eta Lambretta zaleek. 14:30ean elkartuko dira Intxorta elkartean. Interesatuak aurrez eman behar dute izena 669 107 907 telefono zenbakian.

Azoka eta Sagardo Eguna

Bezperarako, zapatua, egun osoko egitaraua iragarri dute. Udalak herriko baseritarren eta artisauen azoka antolatu du. Horre-

kin batera, txorimaloen lehiaketa eta Intxortako igoera jokatuko dira. Umeendako, berriz, beste igoera bat antolatu dute lehen aldiz, Salvador ermitara.

Arratsalderako, Sagardo Eguna antolatu dute Elgetako gaztetxetik. Urteroko tortilla lehiaketan parte hartzera deituta daude herriko kuadrillak. Sari banaketaren ostean emango zaio hasiera Sagardo Egunari.

Baseritarren eta artisauen azoka, zapatuan

Aurten ere herriko baseritarren eta artisauen produktuak ezagutzeko eta erosteko aukera emango du iraileko azoka bereziak. Interesatuak zabalik dute oraindik ere izena emateko aukera udaletxean.

Azokaren inguruan beste hainbat ekintza ere egingo dira zapatuan. Intxortako Igoera 11:00etan jokatu da, eta 12 urtetik beherako umerik balego baita Salvador ermitarainoko igoera ere. Txorimalo lehiaketa 12:00etan hasiko da. Ordu horretarako aurkeztu behar dira txorimaloak plazan. Sari banaketa 13:00etan izango da.



lazgo txorimalo lehiaketara aurkeztutako lanak. | L.Z.

ANTZUOLA

Auzo-konposta martxan jartzeko bi bilera informatibo egingo dira

Hilaren 17an, eguaztenean, egingo dira bilera informatiboak, Olanaren, goizez eta arratsaldez

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Debagoieneko hainbat herritan abian da dagoeneko auzo-konposta. Antzuolako Udalak ere, Nekazaritza eta Ingurumen batzordearen ekimenez, herritarrei auzo-konposta egiteko aukera emango dien proiektua abian jarri nahi du. Hala, bi batzar informatibo eskainiko dira. Ver-

micam enpresako teknikari espezializatuak etorriko dira auzo-konposta zer den eta nola funtzionatzen duen herritarrei azaltzera.

Herritarren galderak eta zalantzak argituko dituzte.

Asteon, eguaztenean, bi batzar izango dira, Olanaren etxean: 10:30ean eta 19:00etan.

Interesa dutenek izena eman dezakete. Izan ere, horren arabera, auzo-konposta egiteko lekuak eta egunak zehaztuko dira.

Udaletik jakinarazi dute bileran parte hartzeak ez duela inor konprometitzen.

Bertzera joateko lekua

Hilaren 17an, eguaztenean, Bertizera, Baztanera joango dira Landaxo Elkartearen erretiratuak. Autobusean, oraindik lau lagunendako lekua dagoela jakinarazi dute Elkartetik. Bazkide direnek eta bazkide ez direnek dute izena emateko aukera. Horretarako, batzordekidea den norbaitekin jarri beharko da harremanetan.

ARAMAIO

Hasi dira Muru auzoko lanak, urteetako atzerapenaren ondoren

Obren hasierarako akta sinatu ostean, bihar bertan helduko dira makinak lanean hasteko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Muruko hondakin urak saneatzeko eta auzorako sarbidea egokitzeko proiektua abuztuaren esleitu zuen Udalak eta irailaren 11n eman zieten hasiera ofiziala obrei. Bertan izan ziren Ramon Ajuria alkatea, Udaleko idazkaria eta aholkulari teknikoa, Arabako Diputazioko beste teknikari bat eta lanok egingo dituen Excavaciones Arrasate enpresako zuzendari eta arduradunak. Egun hartan, obren hasierarako beharrezkoa den zuinketa-akta sinatu zuten.

Herritarrek, hainbat ekarpen

Lanak egiteko beharrezko makineria bihar helduko da; honako hauek izango dira egingo diren

lan nagusiak: "Hasiko dira lehenengo saneamenduarekin eta hoditeria guztiak jarriko dituzte. Horren ostean errepidea konponduko dute, eta bidea asfaltatu", dio Ramon Ajuria alkateak.

Obra amaitzeko hiru hilabeteko epea izango dute Excavaciones Arrasate enpresakoek, eta, beraz, espero dute lanak abenduan amaitzea. Aurrekontua 290.900 euro da, BEZa barne. Gainera, Arabako Diputazioak %100 ordainduko du obra; alkatea pozik dago lortutakoarekin: "Irtenbide bat topatu dugu, lortu dugu diru laguntza osoa, %100; oso pozik gaude". Hasi dira, horrenbestez, Muruko auzotarrak urte askoan itxaroten egon diren obrak.



Hilaren 11n sinatu zen obren hasierarako akta. | AMAIA TXINTXURRETA

LEINTZ GATZAGA

Lizarra aldera doaz erretiratuak urriaren 9an

Udazkeneko irteera egingo dute Toki Eder elkarteak eta izen-emate epea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udazkenari ongi-etorria emateko Nafarroa aldera joango dira Toki Eder elkartearen erretiratuak. Urriaren 9an izango da hori, eguena, eta izen-emate epea dagoeneko zabalik daukate. Toki Ederreko zuzendaritza batzordeko kide diren Lazaro Barandiaran edo Maritxu Plazaolarengana jo behar dute interesatuta daudenean; azken eguna urriaren 3a da. Autobusa elkarteak ordainduko du eta bazkaria norberak (prezioa oraindik zehazteko).

Lizarra ingurua ondo eza gutzen dute Gatzagako erretiratuak, baina gustura joaten dira Nafarroa erdira, eta bidaia errepikatzea erabaki dute. Lehenengo jatetxera joko dute, hamarretakoa jatera, eta ondoren Lizarrako azokan bueltatzea

eman, udazken sasoiko produktu onenak eskuratzeko, horien artean pikillo piperrak. Bazkaltzera joango dira gero, eta iluntzean itzuliko dira etxera bidean geralditxoa egin eta gero.

Epaimahaikideen zozketa

Bestalde, Udalak jakinarazi du epaimahaikide izateko hautagaien zerrendak osatzeko zozketa egingo dutela Donostian, eta horretarako hautesle-errola ikusgai dagoela udaletxean. Eguaztenea arte egingo da hautesle-errola ikusteko.

Zozketa irailaren 26an egingo dute, eta hurrengo zazpi egunetan horren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango du edozein hautesle. Zuzenketak egin ondoren epaimahaiko hautagaien behin betiko zerrenda osatuko dute.

Goiena Klubeko iraileko zozketak!

Goiena Klubeko bazkidek irabaz ditzakezun sariak hauek dira. Hartu parte!



Telebista

32 hazbeteko LG
Telebista.

Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista

Arrasateko hipermerkatua



zurekin



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Arrikruz sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Argia

Argiako jokoak

Atlántica 2 joko

Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoa

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

ERREGIONAL PREFERENTEA

Defentsak egindako huts egiteengatik 1-3 galdu du Bergarak lehen partidua

- ▶ Hasiera-hasieratik joan da galtzen etxeko taldea
- ▶ Zarauzkoek aukerak aprobetxatu dituzte

EMAITZA

BERGARA
1-3
ZARAUTZ

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lupo, Iker (Josu, 55.min.), Xabi (Mikel, 73.min.), Julen, Xabijo, Beitia (Ibai, 58.min.), Eñaut, Asis, Iñigo, Balza, Markel (Eloy, 58.min.).

Zarauz: Mikel, Ander, Joseba, Aritz (Alain, 77.min.), Leunda, Joxe Mari (Marvex, 67.min.), Lander, Gorka, Unai (Paulo, 87.min.), Maikel (Katxa, 57.min.), Illies (Jon, 63.min.).

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Ligako lehen partidu eskasa jokatu zuen Bergarak zapatuan. Hasiera-hasieratik hasi zen galtzen; etxeko defentsa ez zen fin ibili eta Zarauzkoek bergararren huts egiteak aprobetxatu zituzten golak sartzerako orduan. Mahoneroek garesti ordaindu

zuten hori eta nahiz eta egon ziren aukera urriak aprobetxatzen saiatu, gol bakarra sartzea lortu zuten.

Lehen tartean, trakets xamar

Partidua hasi eta hirugarren minutuan etorri zen Zarautzen lehen gola; baloi luze bat hartu zuen zarauztarren aurrelariak eta bergararren ate barrura sartzea lortu zuen. Lehen zatian kanpokoak izan ziren azkarra-goak zelaian eta bergararrek aukera gutxi izan zituzten. Aukerak sortu ziren kasuetan, gainera, arrisku handi barikoak izan ziren.

Bigarren zatian, hobeto

Bigarren zatia hasi eta bi minutu etorri zen zarauztarren bigarren gola. Hor ere huts egin zuen mahoneroen defentsak eta markagailuan aurrenak izaten jarraitu zuten aurkariek. Bigarren zatiko seigarren minutuan, baina, Zarauzko jokalaria bati bi txartel hori atera zizkioten jarraian, eta ondorioz, zarauztarrek bat gutxiagorekin gelditu ziren zelaian.

Momentu horretatik aurrera, arerioaren ate inguruan ibili ziren bergararrak eta etxekoak partidua gehiago dominatzen hasi ziren. Hala ere, hirugarren gola sartzea lortu zuen Zarautzek; taldeko defentsak baloia aurrelariari pasa eta gola sartzea lortu zuten. Bergarako Ibai jokalaria gola etorri zen gero; kórner batean pare bat pase egin zituzten eta buruz ondo errematatu zuen etxeko jokalaria. Hala ere, gol horrek ez zuen askorako balio izan.



Bergarako jokalaria baloiaren jabetza lortu nahian. | JOSETXO ARANTZABAL

Felix Aranbururi omenaldia

Partiduaren hasieran Felix Aranburu bergararra omendu zuten. Azken 29 urteotan klubean egin duen lana eskertu gura izan zuten modu horretan. "Penaz erretiratsen naiz, momentu on asko pasa ditudalako hemen", azaldu zuen omenduak.



Felix Aranburu jokalaria guztien erdian, opari bezala jaso zuen sinatutako Eibarko kamiseta

OHOREZKO ERREGIONALA

Oñatiarrek nahi eta ezin, 2-3 bukatu dute partidua

Martutenekoak hobeto aritu ziren Azkoagainen; etxekoak bukaeran suspertu ziren, emaitza barik

EMAITZA

ALOÑA MENDI
2-3
MARTUTENE

JAVI AGIRRE | OÑATI

Partiduaren hasieran 70eko hamar-kadan Aloña Mendi Kirol Elkarte-ko futbol taldeko jokalaria izan zen Luis Oñateren izenean minutu bateko isilunea gorde zen.

Gol festa, bigarrean

Partiduari berari dagokionez, lehen zatian donostiarrek izan zuten baloiaren eta jokoaren kontrola, baina ez zen aukera garbirik sortu ez area batean, ez bestean.

Atsedendiaren ostean, lehen zatian ez bezala, gol festa izan zen. Bigarren zatiko 3. minutuan Zalduak 25-30 metrotik jaurtiketa bikaina egin eta baloiak Aloña-koen atea zulatatu zuen. Gol horrek erabat baldintzatu zuen jokoak; izan ere, Aloña-koak berdinketaren

FITXA TEKNIKOA

Aloña Mendi: Aginagalde, Ruiz, Joseba Irizar, Palacios, Barrionuevo (Gorka Zelaia, 58. min), Ugarte, Moreno (Uribetxeberria, 66. min), Juaristi (Larrea, 72. min), Gorka Irizar (Lizarra, 53. min), Iñigo Markinez, Asier Mantxola (Jon Ander, 78. min).

Zarauz: Etxebeste, Iparragirre, Bengoetxea, Iriondo, Sansinenea, Rodriguez (Cadenas, 81. min), Zaldua (Palacios, 70. min), Aguilera, Aramendi (Said, 72. min), Bravo (Montes, 78. min), Urrutia (Arias, 59. min).

golaren bila irten eta kontraeratsotan, donostiarrek aukera gehiago sortzen hasi ziren. 65. minutuan Aguilera, areaz kanpo egindako

beste jaurtiketa zehatz batekin 0 eta 2koa jarri zuen markagailuan. Oñatiarrek, nahi eta ezin ari ziren. Partiduaren amaiera aldera Rodriguezek falta jaurtiketa bikaina egin eta 0-3koa eskuratu zuen: Une horretan zigor handiegia Aloña-koentzat.

Bukaeran susperraldia

Azken minutuetan Asier Ugarte oñatiarrek 2 gol sartu zituen, bigarrean penaltiz eta emozioa jarri zuen Azkoagain futbol zelaian. Hala ere, ez da astirik izan berdinketaren gola lortzeko.

Martutene, hobeto

Laburtuz, esan, Martutenekoak hobeto kokatu zirela zelaian, eta hiru gol bikainei esker, lehen garaipena lortu zutela. Oñatiarrek azken hamar minutuetan eman zuten maila, baina ez zen nahikoa izan berdinketa lortzeko.



Joseba Irizar Aloña Mendiko jokalaria baloia eust



eskuekin helduta duela. | JOSETXO ARANTZABAL

AITOR ARRATE
ENTRENATZAILEA

"Gaizki hasi gara eta hori konpondu egin behar dugu aurrera begira"

Partidu amaieran ez zegoen pozik egin dako lanarekin Ber garako entrenatzaile Aitor Arrate.



Zelako hasiera eman diozue ligari?

Txarra. Hasieratik galtzen joan gara eta atzean huts egite izugarriak izan ditugu. Partidua ez da izan 1-3 galtzekoa baina golak oparitzen baldin baditugu, ez daukagu zereginik. Zarautzek ez du jokatu egundoko partidua, gure huts egiteak aprobetxatu ditu taldeak eta guk gure huts egiteak zuzendu behar ditugu.

Denboraldi hasiera dela eta jokalariek forma guztiz hartu gabe daudelako izan daitezke huts egiteak?

Ez, ez daukagu aitzakiarik. Defentsan hiru huts egite izan ditugu eta horrelako kaleekin ezin diogu irabazi ez Zarautzi eta ez beste inori ere. Gaizki hasi gara eta hori konpondu egin behar dugu.

Zein helburu duzue orain?

Asteburuan Azkoitian daukagu partidua Anaitasunaren kontra eta han irabaztea da gure helburu bakarra. Ezin gara beherantz begira gelditu eta huts egiteak zuzentzen ahaleginduko gara.



UDAko jokalariek Touringen aurkako partidua dominatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

UDAk Touringen aurkako partidua dominatu eta irabazi egin du

Ander Fernandez jokalariek sartu du UDA taldearen garaipenaren gola, partiduen 60. minutuan hegaleko falta bat errematatu eta gero

EMAITZA

UDA
1-0
TOURING

A.T. | ARETXABALETA

Partidua nahiko ondo dominatzea lortu zuen UDAk domekan. Joku aldetik ez ziren oso fin ibili etxekoak, baloiarekin ere ez ziren oso ondo moldatu, baina hala ere, partiduen lehenengo eta bigarren zatiak dominatzea lortu zuten Aretxabaletaok.

Touring taldeko jokalariek, bestalde, ez zuten lortu partiduan lan handiegirik egiterik, eta beraz, UDAk nahiko erraz

menderatu zuen ligako lehenengo partidua. Garaipenaren gola Ander Fernandez jokalariek sartu zuen hegaleko falta bat errematatu, partiduen 60. minutuan.

Bigarren zatiaren amaiera aldera aurkariek gola sartzeko aukera garbi bat izan zuten, baina ez zuten aukera hori ondo aprobetxatzen jakin, markagailuan 1-0 jartzen zuela bukatu zen jardunaldia.

UDA taldeko entrenatzailea den Gorka Valle "pozik" zegoen bere mutilek partiduan egin zuten lanarengatik: "Liga hasierako lehen partidua zailak izaten dira orokorrean. Lehenengo partidurako, gainera, urduri egoten gara baina jakin izan dugu urduritasunak alde

batera uzten eta nahiko ondo moldatu gara Touring taldearen kontra. Partidua argi eta garbi dominatu dugu". Taldekideak "ondo" ikusi zituela ere gaineratu zuen, nahiz eta poliki-poliki joango diren denboraldi berriari erritmoa hartzen.

Irabazten jarraitzeko gogoz

Hurrengo partidua Martutene-ren kontra jokatuko dute eta helburu garbi batekin joango dira aretxabaletarrik: partidua irabaztea. Horretarako, gogor entrenatzen jarraituko dutela adierazi zuen Valle entrenatzaileak eta "hobetu behar diren gauzetan hobetzen" saiatuko direla azaldu. Denboraldia ondo joatea espero dute eta dituen jokalariekin "pozik" dago.

OHOREZKO ERREGIONALA

"Ondo" jokatuta ere, 1-3 galdu du Antzuolak Ordiziaren kontra

Partidua galduta ere, Antzuolako taldea ez da sentsazio txarrarekin gelditu; helburua, aurtan, mailari eustea izango da

M.A. | ANTZUOLA

Ligako lehenengo jardunaldia etxetik kanpo jokatzea egokitu zaio Antzuolari; eta ez da etxera emaitza onarekin bueltatu. Izan ere, 3-1 galdu zuen taldeak zapatuan, Ordiziaren kontra jokatutako partiduan.

Porrotak ez du inoiz zapore gozorik, baina txarretik ona ere atera daiteke eta hala egin dute oraingoan antzuolarrek: "Noski ez dela ona horrela hastea, baina, ez genuen partidua horren sen-

tsazio txarrarekin amaitu", zioen Jon Muruamendiarazek, Antzuolako entrenatzaileak.

Izan ere, ordiziarrek baino presentzia handiagoa izan zuten debagoiendarrek zelaian, asmatzen jakin izan ez bazuten ere: "Emaitzak ez ditu gure sentsazioak islatzen", gaineratu zuen.

35. minutuan jaso zuten antzuolarrek lehenengo gola eta atsedenaldira 2-0koarekin joan ziren. Hala ere, partiduari buelta emateko esperantzarekin ate-

ra ziren bigarrenengan. Berehala etorri zen ordiziarrena eta zapuztu ziren itxaropen guztiak. Penaltiz sartu zuen Antzuolak partidua bukatzeaz zela, partiduko gol bakarra.

Helburua, mantentzea

Asmo horrekin hasi du Antzuolak txapelketa: "Jokalariek gutxi taldea gara eta horrek asko baldintzatzen gaitu", dio Muruamendiarazek. Datorren astean etxean jokatuko dute, Hernaniren kontra.



ten, arerioa aurrean duela. | JOSETXO ARANTZABAL

'Pitxi' memoriala etxekoentzat

- ▶ Lehia estua izan dute Ford Mugarrik eta Elgoibarrek Iturripen jokaturako finalean
- ▶ Denboraldi aurreko lagunartekoa izan arren, lau taldeek dena eman dute

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Arrasateko Ford Mugarrik irabazi du Jesus Mari Herrero Pitxi Memoriala, 24-16ko emaitzarekin. Domekako finalean, Elgoibarreko taldea izan zuten aurkari etxekoek Iturripen, eta hirugarren eta laugarren postuak Hondarribia eta Urdanetarentzat izan ziren, hurrenez hurren.

Zapatuan jokatu zuten finalerako sailkapena lau taldeek eta etxeko taldeak Hondarribiari irabazita eskuratu zuen finaleko txartela, markagailuan 31-26ko emaitza zutelako. Pablo Gartzia Ford Mugarriko entrenatzaileak azaldu duenez, "zapatuko partidua zaila izan zen, eta oso gogorra kantxan".

Gartziak azaldu duenez, defentsa izan da taldearen indargunea txapelketa horretan, aurre denboraldian zehar bereziki landu baitute. Dena den, Gartziak ahulgune ugari ikusi dizkio taldeari; besteak beste, arlo fisikoan arreta jarri behar dutela esan du, baina prest izango direla denboraldia hasterako.

Lehia estua finalean

Bigarren minutuan iritsi zen finaleko lehen gola, eta etxekoek aurrea hartu zuten markagailuan. Hala ere, Elgoibarrekoek segituan erantzun zioten jokoari eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. Ford Mugarriko entrenatzaileak aitortu duenez "Elgoibar oso ekipo gogorra da, bai defentsan, baita erasoan ere" eta horregatik, asko kosta zitzaien arrasatearrei partidua aurrera ateratzea. Mugarrikoek, ordea, ez zizkieten lanak erraztu bisitariari eta markagailua berriz ere parekatu zuten.

Lehen zatia amaitzear zela, hamar segundoren faltan, hain zuzen, gol bakarragatik aurretik ziren arrasatearrak. Baloia jabetza zutela aprobetxatuz, jokoa gelditu zuten, lehen zatiko azken gola eskuratzeko jokaldia prestatzeko; baita lortu ere. 11-9ko emaitzarekin iritsi zen atsedena.




Elgoibarreko jokalarien defentsa sendoa. | JOSETXO ARANTZABAL

Atsedendia ostean, Elgoibarrek sartu zuen lehen gola, baina Mugarrikoak indartsu itzuli ziren aldageletatik eta bigarren zatian zehar, bederatzigoleko aldea ere zabaltzea lortu zuten markagailuan.

Lagunartekoa izan arren, giroa bero-bero egon zen, bai kantxan, baita harmailtan ere. Gartziak azaldu duenez, ulertzekoa da hori "bi taldeek aspalditik ezagutzen dute elkar, eta jokalarien artean badira ika-mika batzuk aurreko

partiduetatik". Bi taldeetako bat ere ez zegoen prest partidua oparitzeko eta horrek azken unera arteko lehia ekarri zuen Iturripeko kantxara. Azkenean, Arrasatekoek poltsikoratu zuten txapelketa, 24-16ko emaitzarekin.



MAIALEN TORRES

PABLO GARTZIA
ENTRENATZAILEA

"Taldeak eskura dituen baliabideekin egingo du aurrera"

Denboraldi-aurre buru belarri murgilduta badabilta ere, hastear den denboraldian dute burua Ford Mugarrikoek. Egubakoitzean emango diote hasiera ligari.

Nola ikusi duzu taldea denboraldi-aurrea?

Pozik gaude egindako lanarekin. Gainera emaitzek lagun du egin digute eta horrek morala igotzen laguntzen du beti.

Zein helburu dituzue denboraldi berrirako?

Printzipioz, azken postuetatik urrun mantentzea eta mailaz ez jaitea dugu helburu aurtan. Zaila izango da, batetik, talde batzuek izugarriko maila dutelako eta, bestetik, talde askok antzeko maila dutelako. Dena den, abendurako, ligak bakoitza bere lekuan jarriko du, eta orduan ikusiko dugu.

Iaztik hona baja garrantzitsuak izan dituzue taldean, nola kudeatuko duzue hori?

Ahal dugun bezala. Ford Mugarrik ez ditu beste talde batzuek dituzten baliabideak, eta guk eskura dugunarekin egingo dugu aurrera. Izan ere, ez dugu aurrekonturik goi mailan dabilen jendea ekartzeko, eta, horregatik, harrobiaren aldeko apustua egin dugu. Gainera, uste dut gazteak ere maila ona ematen ari direla.

Taldea egonkortzea izango da, beraz, aurtengo lehen erronka?

Hori da. Talde sendoa lortzea garrantzitsua da, baita etorri berriak formatzea ere. Guztiek izango dute jokatzeko aukera eta irabaztea baino, taldea indartzea lehenetsiko dugu. Epe luzera begiratu behar da, eta ez motzera.



Ford Mugarriko mutilak, erasoan. | JOSETXO ARANTZABAL



Elgoibarreko atezaina, jaurtiketa arrikutsu baten aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL



Saskibaloiko talde guztiak zapatuko aurkezpenean, San Martin plazan. | EDU RODRIGUEZ

SASKIBALOIA

Bergarako saskibaloiko taldeak aurkeztu dituzte San Martin jaien barruan

Hamaika talde izango dira guztira; sei neskenak eta bost mutilenak

MAIALEN TORRES | BERGARA

Bergarako saskibaloiko taldeak aurkeztu zituzten zapatuan Bergarako San Martin jaien barruan egindako ekitaldian. Hamaika talde igo ziren Bergarako plazako oholtza gainera, euren entrenatzaile eta guzti. Horietatik sei neskez osatutakoak dira, eta

ç+mutilenak, berriz, beste bost. Marian Mellado Bergara saskibaloiko saileko lehendakariak azpimarratu zuen "gazteei saskibaloian aritzeko aukera ematea" dela elkartearen helburua. Melladoren ustez, garrantzitsua da jendeari saskibaloia gerturatzea, eta "ondo pasatzeaz gain, ikasteko ere balio

duen kirol interesgarria" dela argitzea.

Gazteenen matrikula zabalik

Jokalari gazteenek ikastetxeen bidez eman ohi dute izena urtero, eta dagoeneko izen emate orriak banatu badituzte ere, oraindik ez da epea bukatu.

Iaz 60 jokalaririk eman zuen izena bide horretatik, eta aurtengo denboraldirako ere kopuru antzekoa espero dutela azaldu du Melladok.

Maila ona

Iaz egindako lanari erreparatuta, Melladok argi adierazi du taldeek

maila "ona" erakutsi dutela, eta etorkizunari esperantza begirata dio: "Datorren ikasturtera begira, aurten erakutsitako maila mantentzea da gure helburua, eta, nork daki, agian hobetu ere egingo dugu" esan zuen.

Melladok azaldu zuen jokalariren eta zaleen erantzun onak elkartearen jardunarekin jarraitzeko gogoak suspertzen dizkiela: "Torneoak antolatzen jarraitzeko asmoa dugu", dio Bergara Kirol Elkarteko lehendakariak.

Izan ere, aipatzekoa da talde batzuek duten zale kopurua. Melladoren arabera, gazteenen taldeek dute arrakasta gehien harmailetan, eta helduenek ere gero eta ikusle gehiago erakartzen dituzte partiduetara.

ESKUBALOIA

Etxeko taldeek Leitzarangoei irabazi diete, Oñatiko Mikel Deuna sarian

Lau taldeak gogotsu aritu dira, eta denboraldi berrirako motorrak berotu dituzte norgehiagokan

M.T. | OÑATI

Aurre denboraldi bete-betean, Aloña Mendiko senior mailako neskek eta mutilek Mikel Deuna

saria jokatu zuten zapatuan; baina irabazi ere. Bi taldeek Leizaran izan zuten aurkari eta lehia estua eskaini zieten zaleei. Gogotsu

ekin zioten txapelketari lau taldeek, guztiak ere duten maila erakutsi gura baitzuten.

Neskek defentsa gogorra

24-20 irabazi zieten Aloña Mendiko neskek Leitzarangoei. Jon Ander Osinaga entrenatzailearen esanetan, "ondo" ibili ziren etxe-koak, baina "momentu batzuetan lo" ere bai. Izan ere, bi zatien hasieran, martxan jartzea kosta egin zitzaion etxekoei eta ahulgune hori aprobetxatu egin zuten Leitzarangoek, batez ere atsedendititik bueltan, ia markagailuari buelta ematea lortu baitzuten. Dena den, gero berriro defentsa estutu, eta markagailuko alde berreskuratu zuten oñatiarrek.

Mutilak, denboraldiari begira

Lagun arteko partidua izan arren, gogoz hartu zuten Aloña Mendiko mutilek zapatuko norgehiagoka eta 27-22 irabazi zuten. Rafa Zulueta entrenatzaileak esan zuen partidua "polita" izan zela, eta orokorrean "sentsazio onarekin" irten zirela kantxatik. Dena den, Zuluetak uste du joko aldeetik hobetu beharra dutela. Orain arte arlo fisikoa landu dutela azaldu zuen Zuluetak, eta entrenamenduetan baloia asko ukitu ez izana igarri egin zela uste du.

JON ANDER OSINAGA
SENIOR NESKEN
ENTRENATZAILEA

"Talde berria egonkortzea dugu helburu"

Zer moduz ikusten duzu taldea aurtengo denboraldiari begira?



Aurtengo taldea berria dela esan daiteke, jokalarietako sei jubeniletatik etorriak baitira. Ni neu ere lehenengoz izango naiz euren entrenatzaile, beraz, zaila da aurreikusten.

Zeintzuk izango dira zure lehentasunak?

Hasteko, taldea egonkortu behar dugu, eta gero emaitzak bakarrik etorriko dira.

Hortaz, denboraldia zaila izango al da?

Beste taldeak ez dituzte ezagutzen, baina aurten dugun taldeari begirata, ez dut uste neskek zailtasunik izango dutenik eta ez dut emaitza txarrik espero.

RAFA ZULUETA
SENIOR MUTILEN
ENTRENATZAILEA

"Iazko jarrera mantendu nahi dugu aurten"

Iaz lortutako emaitza onen ostean, ze helburu izango ditu taldeak aurten?



Emaitza berdintzea baino, iaz izandako jarrera eta seriotasuna mantentzea da gure jomuga, izan ere, urte zailak pasa ondoren, iaz oso denboraldi ona egin genuen eta hura berdintzea taldearen maila berrestea izango litzateke.

Egonkortutako taldea izateak abantailarik emango al dizue beste taldeekiko?

Hala espero dugu. Izan ere, kategoria honetan aldaketa asko izaten dira urte batetik bestera. Gurean, berriz, bi baja izan ditugu, baina iaz hain ondo moldatu zen taldea oinarrian berdina izango da eta horrek asko lagunduko digu.



Mutilen partiduan lehia estua izan zen azken unera arte. | MAIALEN TORRES

Jon Aranburu | Eskalatzaila

"Kirol honek alderdi asko ditu, eta nik egiten dudana kirol eskalada da"

- ▶ Eskalatzeko, motibatuta eta psikologikoki ongi egotea behar-beharrezkoa da
- ▶ Besoetan baino hanketan indarra izatea garrantzitsuagoa da orekari eusteko

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Jon Aranburu arrasatearrak 18 urte ditu, eta, ahal duenean, eskalada praktikatzera joaten da. Batez ere, Araotzera (Oñati) joaten da, beharrezko materiala prestatu eta lagunekin momentu on bat pasatzera. Hori horrela izanik, eta kirola egitea orokorrean pasio duenez, Lehen Hezkuntzako SHEE (IVEF) ikasketak egiten hasi berri da, Bilbon.

Nolatan hasi zinen eskaladan?

Duela lau urte hasi nintzen eskalatzeko, 13-14 urterekin, gutxi gorabehera. Mendira joatea atsegin dut, eta, teknikarekin lotutako gauzak asko gustatzen zaizkidanenez, probatzea erabaki nuen. Hala, rokodromora joatea erabaki nuen behin, eta, asko gustatu zitzaidanenez, hala hasi nintzen. Ordutik gaur egun arte topera ibiltzen nahiz ahal dudan guztietan.

Zein modalitatean ibiltzen zara?

Eskaladak alderdi asko ditu, eta nik egiten dudana kirol eskalada da, zailtasunezko eskalada. Boulder ere egiten dut, baina hau gogorragoa da, soka bakoa, eta nire modalitatean ongi ibiltzeko entrenamendu gisa bakarrik erabiltzen dut.

Aspaldikoa da Debagoienean eskaladarako afizioa dagoen ustea; hala da?

Bai, uste dut geroz eta afizio handiagoa dagoela bailaran. Haurrak umetatik hasten dira kirol hau praktikatzeko, geroz eta lehenago hasten dira eta Aretxabaletan egin berri duten rokodromoan asko ibiltzen dira gaur egun. Nik, behintzat, geroz eta jende gehiago ikusten dut.

Txapelketetan ibilitakoa zara, baina jarraitzen duzu?

Hainbat txapelketatan hartu izan dut parte, azken aldiz duela urtebete. Hasieran, lehia gustatu zitzaidan, baina gero, ez ninduen guztiz konbentzitu. Gaur egun, nire airera ibiltzen naiz eta urtean



Jon Aranburu eskalatzaila Dima (Bizkaia) herriko Baltzolako koban arrokan gora, muskulu guztiak tentsioan dituela. | ARITZ GORDO

behin Euskadiko Eskalada Txapelketan hartzen dut parte. Duela urte batzuk hirugarren postua lortu nuen eta beste behin, boulder modalitatean, bigarren postuan gelditu nintzen.

Non ibiltzen zara gehiago, rokodromoan ala aire zabalean?

Uda partean mendian ibiltzen gara, harrian, eta neguan, berriz, rokodromoan. Azken finean, arroketan sokekin ibiltzeko osagarri gisa boulderra ere egiten dugu, batez ere, indarra lortzeko eta teknika hobetzeko.

Zer behar da eskalatzaila on izateko? Fisiko on izatea nahikoa da ala zerbait gehiago behar da?

Kirol hau gustuko izatea ezinbestekoa da; edozelan ere, ona izateko ordu asko sartu behar dira, asko entrenatu eta oinarri

ona hartu behar da. Jende guztiak uste du indarra izatea beharrezkoa dela, batez ere besoetan, baina hankek garrantzi handiagoa dute besoek baino, orekari hobeto eusteko. Nire ustez, motibazioa ere oso garrantzitsua da eta psikologikoki gogorra izan behar duzu altueran urduri ez jartzeko.

Zein duzu entrenatzeko leku gutukoena? Zergatik?

Araotzera joatea dut gustukoena; etxetik gertu egoteaz gain, leku ederra dela iruditzen zait. Baina Bizkai aldera ere asko joaten gara, Dima herriko Baltzolako kobazulora. Bi leku horietan asko ibiltzen gara, baina beste leku batzuetara joatea ere asko gustatuko litzaidake.

Kanpora joatekotan, nora joango zinateke eskalatzera?

Kirol eskalada egitera Greziara joango nintzateke, Kalymnosera edo Alemaniara bestela, Frankenjura. Sudafrikako Rocklandsera ere joango nintzateke, kasu horretan boulderra egitera, bai-

na oso gustura joango nintzateke hiruretako edozeinetara, ahal izanez gero.

Oporrak eskaladaren inguruan antolatzen dituzu?

Ahal dudanean, beti hartzen ditut opor egun batzuk eskalatzera joateko. Aurten, Huescan egon gara hamar egunez, Rodellar herrian, eta Aste Santuan ere beti hartzen dugu eskalatzera joateko konpromisoa.

Zein duzu hurrengo erronka?

Egia esan, ez dut erronka espezifikorik. Batez ere, orain arte bezala, eskalatzeko jarraitu nahi dut eta ikasketak direla-eta ea denbora kudeatzeko aukera dudana. Maila hobea lortzea ere asko gustatuko litzaidake. Hala, datorren urteari begira, pentsatu dut bide espezifikoren bat egitea...

Zein aurrerapen edo eboluzio kostatu zaizu gehien egitea?

Lehenengo zortzikoa egitea asko kostatu zitzaidan eta 8-A kategoriatik 8-B kategoriara pasatzeko bi hilabete luze egin ditut egunero entrenatuta. Aurrerapen ona

izan da, baina gogorra, aldi berean. Araotzen hainbat kategoriatako sektoreak daude; 8-B mailakoa egitea lortu nuen *Korea* sektorean, eta ez zen lan erraza izan...

Egindako bide guztietatik, zeinek ase zaitu gehien? Zergatik?

Aurrez aipatu dudana Araotzeko 8-B bideak ase nau gehien orain arte. Bideak duen graduazioaz gain, dena naturala da, luzea eta polita da egiteko. Sekulako satisfazioa izan zen niretzat.

Eskalatzeko bere arriskuak izan al ditzake?

Arriskutsua izan daiteke, baina, azken finean, buru pixka bat izan behar duzu eta kontziente izan zertan ari zaren. Zure bizitza dago jokoan eskalatzeko ari zarenean, eta aseguratzen zaituena-rengan konfiantza osoa izan behar duzu. Horrez gain, erne egon behar duzu, eta kontuz ibili. Uste dut gauzak ongi eginaz arriskuak saihestu daitezkeela.

Eskalatzeko gertatu zaizun arrisku momenturen bat?

Behin, hankak soka tartean sartu eta lurrerantz erori nintzen abiada bizian. Hori gertatzen denean, buruz behera gelditzen zara, eta lurretik metro batera gelditu nintzen. Hasiara batean, susto ederra izan zen, gero barrez hasi nintzen... baina hasieran zuri gelditu nintzen.



Aranburu, eskuinetik hirugarrena, munduko txapelkunaren alboan. | ARITZ GORDO

"Ahal dudanean, beti hartzen ditut opor egun batzuk eskalatzera joateko"

"Gauzak ongi eginaz arriskuak saihestu daitezkeela uste dut"

LANGILE ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

IKASTAROAK		ORDUAK	DATAK
FABRIKAZIO MEKANIKOIA			
FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA			
MF0089_2	UF0876: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. Planoen irakurketa	60	2014/09/29 - 2014/10/30
	UF0991: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO KOSTUAK KALKULATZEA	40	2015/01/12 - 2015/02/03
MF0091_2	UF0882: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROGRAMA EGIAZTATZEA ETA OPTIMIZATZEA. TORNU FANUC	70	2014/09/29 - 2014/11/06
	UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2015/03/02 - 2015/03/24
	UF0877: LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA	30	2015/02/09 - 2015/02/26
MF0090_2	UF0880: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESU OSAGARRIAK. HIDRAULIKA	70	2015/04/13 - 2015/05/21
	UF0878: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-ERAGIKETETAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. FRESAGAILU KONBENTZIOALETAKO MEK.	80	2014/11/03 - 2014/12/18
	UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA. FRESA HEIDENHAIN.	80	2015/01/08 - 2015/02/26
FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKO PRODUKTUEN DISEINUA			
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOAK. SOLID WORKS	40	2015/01/12 - 2015/02/03
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKO LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2015/03/02 - 2015/05/07
	UF0455: FABRIKAZIO MEKANIKO PRODUKTUAREN DOKUMENTU-KUDEAKETA	30	2015/05/11 - 2015/06/01
FMEE0208 EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINARIAREN MUNTAKETA ETA ABIARAZTEA			
MF1263_2	UF0456: SISTEMA MEKANIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	70	2014/10/06 - 2014/11/13
	UF0457: SISTEMA MEKANIKOAK ABIARAZTEA ETA ERREGULATZEA	50	2014/11/17 - 2014/12/16
MF1264_2	UF0458: EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINEN SISTEMA ELEKTRIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	90	Zehaztu gabe
	UF0459: EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINEN SISTEMA PNEUMATIKOAK ETA HIDRAULIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	90	Zehaztu gabe
KATALOGOZ KANPO			
	TORNO PREPARAZIO ETA PROGRAMAZIOA CNC. ARDATZ ANITZA	70	2014/11/10 - 2014/12/22
	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. MCOSMOS	30	Zehaztu gabe
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE 0109 BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA			
	ONARRIZKO ELEKTRIZITATEA	40	2014/09/29 - 2014/10/21
MF0820_2	UF0884: ERAIKINETAN LOTURA-INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA	60	2014/10/27 - 2014/11/27
	UF0885: ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	Zehaztu gabe
	UF0886: LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEKO ETA MANTENTZEKO LANETAN	30	Zehaztu gabe
MF0821_2	UF0887: BARNEKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	90	2014/12/01 - 2015/02/05
	UF0888: LOKALETAKO, SALTOKIETAKO ETA INDUSTRIA TXIKIETAKO INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKO LANTZEA, BTEEAREN ARABERA	50	2015/02/09 - 2015/03/10
MF0822_2	UF0889: AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	60	Zehaztu gabe
	UF0890: INSTALAZIO AUTOMATIZATUAK MUNTATZEA	90	Zehaztu gabe
	UF0891: INSTALAZIO AUTOMATIZATUAK KONPONTZEA	60	Zehaztu gabe
MF1978_2	UF2234: AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMEN EKIPO ETA ELEMENTUAK INSTALATZEA	90	2014/10/27 - 2014/12/17
	UF2235: AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMAK ABIAN JARTZEA	90	2015/01/26 - 2015/03/24
	UF2236: LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUAK PREBENTZEA AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMEN MUNTAN ETA MANTENTZEAN	30	2015/04/13 - 2015/04/28
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
ADGD0208 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA			
MF0233_2	UF0319: SISTEMA ERAGILEA, INFO. BILATZEA: INTERNET/INTRANET ETA POSTA ELEKTRONIKOIA	30	2014/09/29 - 2014/10/16
	UF0320: TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	30	2014/10/20 - 2014/11/06
	UF0321: KALKULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	50	2014/11/10 - 2014/12/15
	UF0322: DATU-BASE ERLAZIOALETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	50	2015/01/08 - 2015/02/05
	UF0323: AURKEZPENETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK: INFORMAZIO-GRAFIKOAK	30	2015/02/09 - 2015/02/26
MF0237_3	UF0341: LAN-KONTRATAZIOA	60	2014/11/03 - 2014/12/04
	UF0342: GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK KALKULATZEA	30	2015/01/26 - 2015/02/12
	UF0343: SOLDATA-ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA-BILKETA	90	Zehaztu gabe
	UF0344: GIZA BALIABIDEAK ADMINISTRATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	30	Zehaztu gabe
MF0238_3	UF0044: TARTEKO AGINTARIAREN EGITEKOA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAN	60	2015/03/02 - 2015/04/21
	UF0345: GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA	60	2015/04/22 - 2015/06/01
	UF0346: KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA ETA TALDE-LANA	30	Zehaztu gabe
ADGD0108 IKUSKAPENERAKO KONTABILITATE- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA			
MF0231_3	UF0314: KONTABILITATE-KUDEAKETA	90	2014/10/27 - 2014/12/17
BESTE BATZUK			
	ORGA-JASOTZAILEEN ERABILERA	23	AZAROAN
	ZUBI-GARABIEN ERABILERA	17	AZAROAN



UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan

Baita hemen ere: 



MIDI D'OSSAU . Erdialdeko Pirineoan (Frantzia) dagoen Midi d'Ossau mendia ageri da argazkian, behelainotan. /Argazkia: Martin Uriarte / Arrasate



SIERRA DE GATA. Argazkian ni agertzen naiz eguzkia hartzen etxeko igerilekuan. Abuztuan egindako argazkia da eta atzean ikusten den paisaia Caceresen dagoen Sierra de Gata da. /Argazkia: Susana Gomez / Arrasate



KAPADOZIA . Globoan egunsentia ikustera joan giñen; 65 bat globo batera aireratu giñen. Ezetz asmatu argazkian zenbat agertzen diren... /Argazkia: Dabid Deogracias / Antzuola



ETXEA GAINEAN. Itsasoko karramarro honek ez dauka oporretara joan eta etxe bila ibili beharrik. /Argazkia: Jone Martinez / Arrasate



ORIOKOKANPINA. Orioko kanpinean ataratako argazkiak ondo islatzen du aurten izan dugun abuztua Euskal Herrian. Zaparradaren ostean eguzki pixkat, aterkinak lehortu eta ea beste zaparradarik ez datorren... /Argazkia: Andoni Iñarra / Arrasate



MUROS. Aimar eta Marko Galiziako urak berotu nahian. Muros (Galizia), 2014ko uztaia. /Argazkia: Maddi Larrea / Bergara

IX. GOIENA LEHIAKETA

an: blogak.goiena.net/argazkiak

udakoargazkiak  udakoargazkiak



JAIPUR. Jaipur (India). Eguzkia sartzen den bitartean ume bat teilatuan kuxkuxeatzen ikusten da. /Argazkia: Iñaki Goenaga /Bergara



SUGE-SORGINTZAILEAK. Flatiron Eraikina. 5th Ave Broadway-ekin... /Argazkia: Mireia Zurbano /Arrasate



HONDARTZA GAUEZ. Hondartzangauez ateratako argazkia. Piruleta honek ez al du baloi puzgarri baten antza? /Argazkia: Lorea Ondarra/Arrasate



KLASIKO BAT. Euskal Herriko paisaia, Aizkorritik etarata. /Argazkia: Ion Ander Gantxegi/bergara



EGARRIA ASETZEN. Etxeko katuak egarrria asetzen. Elfo edaten eta Gandalf begira. Aurtengo abuztuan. /Argazkia: Xabier Elgezabal/Arrasate



UDARI AGUR. Labeneko hondartzan udako azkenengo eguzki izpien erreflexuak. /Argazkia: Kepa Balenciaga/Aretxabaleta



RIVERA MAYA. Chichen Itzan dagoen Il-kil zenote ikusgarria goitik ikusita; aurtengo abuztuan. /Argazkia: Carlos Sanche/Arrasate



Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinakoa bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

* Oinarri guztiak: tiki.com/53342

Sariak:

- 1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 2. saria:** bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean Arrasate Bidaiek-en eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
- Boto emaleentzat saria:** unduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:



Musikarekin ere, presoan, iheslarien eta errefuxiatuen eskubideen alde

- ▶ Egun osoko jaia egin dute Arrasaten zapatuan, bederatzigarren elkartasun egunean
- ▶ Askotariko estilo eta jatorriko 24 talderen kontzertuak izan dira, besteak beste

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Askotariko estilo eta jatorriko taldeak entzuteko aukera izan zen zapatuan Arrasaten egindako Elkartasun egunean. Musika areto erraldoi bihurtu zen herria, taberna barruan batzuetan eta terrazatan, beste batzuetan, gutzira hogeitaz kontzertu izan ziren, eguerdian eta arratsaldean. Gauean, berriz, gaztetxeraino heldu ziren elkartasun doinuak.

Musika eskaintzaz gainera, haurrentzako jolas eta askotariko tailerrak eta herri bazkaria ere batu zituen preso, iheslari eta errefuxiatuen eskubideen aldeko jaiak; Biteri plazan kokatu zituzten horiek. Arrakasta izan zuen bertan prestatu zuten paella eta saiheskiak; txartel guztiak (160) agortu zirenean.

Tabernak, musika areto

Aukeraketa bat egitea ezinbestekoa zen ordu berean ziren-eta hainbat kontzertu; gustuko taldea entzutea erabaki zuten zale batzuk; baziren baina, batetik bestera zebiltzanak ere.

Batetik bestera zebiltzan musika alorreko arduradunak ere bai; batean mikrofonoa falta zela eta hurrengoan musika ekipoa behar zela. "Aurretik dena lotuta dagoen arren, bidean sortzen diren azken orduko arazoak momentuan konpondu behar dira. Ez da samurra izan baina lortu dugu. Eskertzekoa da, Elkartasun egunean parte hartu duten musikariek egin duten ahalegina; batzuk profesionalak dira, beste batzuk ordea, talde gazteagoak edo berriagoak, baina kontzertu guztietara jendea hurbiltzea lortu dugu." dio Oier Beitiak, 'Magu' musikariak.



Eskarmentu handiko Arrasateko musikariek egunerako sortutako Elkartasun Taupadak taldea. | JOSETXO ARANTZABAL

Askotariko belaunaldiak, bat

Gaueko musika eskaintza ere apartekoa izan zen; askotariko belaunaldi eta estiloko Arrasateko musikariek eskutik etorriko zena. Gaztetxoenei, RPL taldekoei egokitu zitzaizkien hasiera ematea. Los Galerna taldekoek hartu zuten lekukoa. Ohikoa duten uniformea soinean eta taularen gainean duten jarrera eta musika maila itzelarekin, dantzan jarri zuten poliki-poliki jendez betetzen zihon gaztetxea.

Egunerako sortutako Elkartasun Taupadak taldea izan zen hirugarrena. Gaztetxea lepo bete zen orduan, RIP taldeko Jul eta Txerra; Des-kontrolako Magu eta Pepin eta Dirty Brotherseko Salarekin gozatzeko irrikan. RIPen hamar kantu jo zituzten erritmo azkarrean, saltoka eta kantuan ziren askotariko adineko zaleen aurrean. Espero moduan, Mondra kantuarrekin eztanda egin zuten.

Une hunkigarri asko izan baziren ere, The Potes igo zenean jo

zuen goia, eguneko soinu banda izan zen *Norantza bakarra* kantuarrekin hasi zuten-eta erreperatorioa. Arrasateko preso ohi ezagunak gonbidatu zituzten kantatzera. Egun luzea izan zen arren, The Poteskoek lortu zuten bertaratutako azken energia-kartutxoak dantzan agortzea. Sekulako musika-festa!

Argazki gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



AITOR URIZAR
ANTOLATZAILEA

"Eskerrik asko, modu batera edo bestera parte hartu duzuen denoi"

Ehun lagun ibili dira Elkartasun eguna antolatzen; horien artean, Aitor Urizar.



Arlo kultural zabala daukan arren, helburu nagusia aldarrikapen eguna izatea da.

Duda barik; jai giroan murgilduta bada ere, preso, iheslari eta errefuxiatuen eskubideen alde egitea da asmo nagusia. **Bazkarirako txartelak eta kamiseta guztiak agortuta.** Izugarria izan da bai, erantzuna! Uda aurretik ateratako guztiak saldu gaurko beste ehun atera genituen eta horiek ere segituan saldu ditugu.

Jende asko hurbildu da jaira, baina sare sozialetan ere sekulako arrakasta.

Egia da bai; bideklipak sarre-pila bat izan ditu, eta kamisetarekin ateratako argazki pila bat jaso ditugu herrialde askotatik. Eskerrik asko dano! **Datorrenera begira zaudete dagoeneko.**

Hamargarrena izango delako zerbait berezia egin gura dugu, akaso Monterronen... Datorren astean helduko diogu horri.



Oñatiko Papalagi taldea Osorik taberna izan zen. | A.A.



Mery May Taupako terrazan. | A.A.



Los Galerna taldekoek ere emanaldi borobila egin zuten gaztetxean. | J.A.



Dantzariak euren trebeziak erakutsi zituzten. | ISORIANO



Maletak garrantzia berezia zuten ikuskizunean. | I.S.

Txalo zaparrada ugari jaso dituzte dantzariak 'Geltokia' ikuskizunarekin

- ▶ Haurtzarotik zahartzarorainoko faseak dantza bitartez irudikatu dituzte
- ▶ Edu Muruamendiaraz zuzendaria "pozik" gelditu da herritarren harrerarekin

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bozgorailuetatik "bidaia zoriontsua" opa ostean, iluntasunean hasi zen egubakoitz gauean Bergarako Udal Pilotalekuan egin zen dantza emanaldia. Agertokiaren atzean erloju bat proiektatu zuten eta biolin doinuaren musika lasaia hasi zen.

Dantzariak agertokian pixkanaka azaltzen hasi ziren, mugimendu arinekin; perfekzionatutako koreografia koordinatuak egiten zituzten eta eszenaratzea 50. hamarkadako jantziekin egin zuten. Guztira, bederatzi dantzari izan ziren agertokian; bost neska eta lau mutil.

Ikuskizunaren lehen ordu laurdena pasa ostean iritsi zen gaueko lehen txalo zaparrada. Ordutik aurrera, txaloak ugaritu egin ziren.

Bizitza bidaia bezala ulertuta, maletak garrantzia handia izan zuten emanaldian; maletak pertsona bakoitzaren sekretuak gor-

detzen zituzten, norberaren frustrazio, poztasun edota maitasun kontuak. Proiektatutako erlojuak, berriz, pertsonen izate iragankorra islatzen zuten. Trena ere behin baino gehiagotan proiektatu zen ikuskizunean, bizitza eta trenaren arteko metafora irudikatuz.

Haurtzarora, gaztetasuna, heldutasuna eta zahartzarora irudikatu ziren dantza bitartez. Esaterako, gaztaroan fandangoa eta hainbat euskal dantza moldatuta dantzatu zituzten eta argi gorriak nagusitu ziren agertokian. Emanaldiaren intentsitatea igo zen momentu hartan eta dantzen abiadura ere bizkortu egin zen.


Bizitzaren azken fasea irudikatzeke, berriz, zuhaitz bat proiektatu zuten agertokiaren atzeko aldean eta pixkanaka hostoak erortzen hasi zitzaizkion. Malenkonia ukitua ere hartu zuen momentu hartan ikuskizunak.

Ordubete inguru iraun zuen ikuskizunak eta txalo zaparrada izugarria entzun zen bukaeran.

Zuzendaria, "pozik"

Bergararra da Edu Muruamendiaraz ikuskizuneko zuzendaria eta koreografoa, eta pozik zegoen emanaldiaren ostean: "Oso berezia izan da ikuskizuna herrian egitea, jende asko etorri da eta txalo ugari entzun dira". Ikuskizuna amaitu ostean, herritar ugari gerturatu ziren Muruamendiarazengana egindako lanagatik zoriontzera.

Ikuskizuneko dantzariak ere gustura gelditu ziren egindakoarekin: "Uda ostean eskaini dugun lehenengo ikuskizuna izan da Bergarako eta gustura gaude egindakoaz. Asko entseatu dugu eta bukaeran txalo ugari egon dira. Gertuko emanaldia izan da Bergarako", azaldu zuten Ioritz Galarraga eta Ekain Kazabon dantzariak.



AINTZANE BIDELUZE BERGARA

"Polita izan da, oso ondo egon da eta gustura egon naiz. Musikarengatik lasaitasuna transmititu dit ikuskizunak eta trikitixa dantzatzen zutenean ikaragarri gustatu zait".



LUCIA FARRAS BERGARA

"Oso emanaldi ederra izan da. Dantzariak erraztasun handiz dantza egiten zutela ematen zuten. Bergaran horrelako emanaldi gehiago egin beharko lirakeela uste dut nik".



JESUS ARETXA BERGARA

"Oso ondo egon da. Hemengo dantzak egiten zituzten momentuak gustatu zaizkit gehien, fandangoa eta horrelakoak dantzatzen zutenean".



Joana Serrat eta haren taldekideak izan ziren zapatuan, Kulturaten. | J.A.



The Fakeband. | IMANOL SORIANO

Seigarren edizioa ere, nota onarekin borobildu dute

The Fakeband, Joana Serrat eta Arcana Has Soul izan dira, hurrenez hurren oraingo asteburuan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

"Maila handiko emanaldiak izan dira eta ikusleei dagokienez; Kulturate Akustikoen jarraitzaile finko batzuk lortu ditugu; beraz, balorazio positiboa egiten dugu" azaldu zuen Karmelo Alberdik,

kultura teknikariak seigarren edizioa amaitu berri. Eta gaineratu zuen: "Getxoko The Fakeband boskoteak, egubakoitzean, akustikoa baino saio elektrikoagoa egin zuen. Lasai hasi eta emanaldiak aurrera egin ahala,

gogortzen joan zena. Beste batzuekin alderatuz, gazte gehiago hurbildu zirela esango nuke".

Rock eta pop ukitudun folka ekarri zuen Kataluniatik Joana Serratek gidatutsako hirukoteak. "Txunditu egin gintuen haren ahots goxoak eta erakutsi zuen berba jarioak. Taldekideekin jo zituen kantuez gainera, bakarrik abestu zituen pare bat kantu ere oparitu zizkigun. Oso gustura sumatu nituen zaleak. Eta estilo zehatz baten definitzekoa zaila den Arcana Has Soul ena ere oso ona izan zen" zioen Alberdik.

Jose Maria Arteaga artista bergararraren lanak ikusgai daude Aroztegin

MAIALEN TORRES | BERGARA

Gaztetatik hasi eta bere azken urteetara arte, Jose Maria Arteagaren pasioa marraztea izan zen. Argazkiak diruditen marrazkietan, bere egunerokotasuna islatzen zuen Arteagak, eta orain, Aroztegi aretoan jarri dituzte ikusgai haren lan garrantzitsuenak. Hilaren 28ra arte izango da Arteagaren lanaz gozatzeko aukera: asteartetik larun-

batera arratsalde, eta asteburuetan goizez ere bai.

Teknika desberdinak

Argazkietako pixelak bailiran, Arteagak marrazkiak erabiltzen zituen bere marrazkiak eraikitzeke, eta bere lanetan horrek ematen zion zehaztasuna. Argazkietatik abiatuta marrazten zuen, gehienetan lumatxo eta tinta txinatarrak erabiliz.



Artistaren lan esanguratsuenak bildu dituzte Aroztegin. | IMANOL SORIANO

GURE MUSIKA TALDEAK

LKRTSN



Pepin, Sala Strummer, Magu eta Igor Sala gaztetzeko lokaleko pasilloan bideoklipa grabatzen. | IÑAKI VICARIO

"Guretzako, ohore handia izan da diskoa egitea, bihotzez egindako lana da"

- ▶ 'Hainbat ohe huts' presoei eskainitako lana kaleratu dute duela astebete
- ▶ Des-Kontrol, Dirty Brothers eta The Potes taldeetako musikariek egin dute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Ozta-ozta, baina, azkenean, heldu da Arrasateko Elkartasun Egunerako propio egindako diskoa, *Hainbat ohe huts*. Diskoaren atzean, Arrasateko lau musikari daude: Des-Kontrol taldeko *Magu* eta *Pepin*, Dirty Brothers taldeko *Asier Sala Strummer* eta haren anaia, The Potes taldeko akordeoilaria, *Igor Sala*. *Hainbat ohe huts* joan den astean heldu zitzaizkien eskuetara, Elkartasun Eguna ospatu baino egun batzuk lehenago, eta, urduritasuna albo batera utzita, badirudi esfortzuak eta

buruhaustek merezi izan dutela. *Eusko gudariak* kantuaeren lehenengo konpasek ematen diote hasiera lan berriari.

Nola sortu zen ideia?

Idea aspalditxo jaio zen. Azken urteotan presoen aldeko hainbat ekitalditan jotzen egon ostean, presoei eskainitako lana egitea pentsatu genuen eta duela urte pare bat hasi ginen disko bat egitearen bueltan lanean. Egia esan, pentsatu baino gehiago luzatu da. Kontua da guk geuk egin dugula dena; *Asier Sala* izan da teknikaria eta instrumentu guztiak lau-

ron artean grabatu ditugu, kolaborazioak egon diren arren. Lokalean ordu nahikotxo sartu ditugu diskoa kalera irten aurretik, eta, azken orduko buruhaustek albo batera utzita, esperientzia polita izan da.

Berezia da horrelako lan bat grabatzea?

Bai, guretzako, ohorea izan da, bihotzez egindako diskoa da.

Zer aurkituko dugu diskoan?

Kantuen bertsoak dira; akustiko formatuan daudela kontuan hartuz, moldaketa batzuk egin ditugu. Pianoak, adibidez, garrantzi

handia du kantu batzuetan: *Duintasunez eutsi* kantuan, esaterako. Horrez gain, Des-Kontrolen *Altxa gaitezen* eta *Buru hotz eta bihotza bero*, Peio Lamarka preso ohiak espetxean zegoenean idatzitako letra du kantu horrek; Dirty Brothers taldearen *Nafarroa*; Enboskadaren *Amaiur* eta *Ongi etorri*; Pantxoa eta Peioren *Batasuna* eta diskoarako propio egindako *Norantza bakarra*. Azken kantu horren letra Marixol Iparragirre eta Mikel Antza presoek *Amaiur*, *Amets* eta *Maite* senideekin egindakoa da, Frantziako espetxera egindako bisita batean. **Kantu horretan, gainera, kolaborazioak izan dituzue.**

Bai; kantua grabatu ostean, herriko hainbat preso ohi, senide eta neska-mutikok koruak grabatu zituzten, bideoklipen ikusten den bezala. Bideoklipa, hasiera baten, diskoan sartzeko asmoa genuen arren, Interneten jarri dugu ikusgai Elkartasun Eguna berri emateko, eta harrera polita izan du. Duela hilabete inguru jarri genuen Interneten eta dagoeneko 1.600 bisitatik gora izan ditu. Ikus-entzunezkoa grabatzen, Iñaki Vicario eta Iban *Momo* egon ziren kameralarri lanetan eta diskoaren diseinua *Mutxin*-ek egin du; ikusten duzuen bezala, dena etxean geratzen da.

Non egongo da salgai?

Oraingoan, alde zaharreko tabernetan jarriko ditugu salgai 5 euroren truke eta batutako dirua Arrasateko preso eta senideendako izango da.

ZERTZELADA



HAINBAT OHE HUTS

Estiloa: Rock akustikoa.

Egilea: LKRTSN (Arrasate, 2014).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 33:33 minutu.

Elkartasuna publiko guztietara zabandu

Errepresaliatuei elkartasuna adierazteko bilduma Iparragirrek eta Antzak idatzi eta arrasatearrek musikaturako 'Norantza bakarra' piezak zabaltzen du. Folk kantu itsaskorra da, esku-soinua protagonista duena, eta malenkonia eta esperantza batzen ditu. Arrasateko musikariek Des-Kontrol, Enboskada, Dirty Brothers eta Pantxoa eta Peioren zortzi pieza akustikora pasa dituzte, folk kutsuarekin eta ahotsetan punk-Oi!ukituarekin. 'Amaiur' kantua biderkatu dute, eta 'Duintasunez eutsi'-ren bertsoia teklatuarekin Des-Kontrolen 'Aitormena' bihurtu. Gainera, 'Batasuna' klasikoa jai-giroan murgildu dute erabat.

IKER BARANDIARAN

Irudi-estereotipoari indarra ematea arriskutsua da

Itziar Bartolome: "Eredu izanik espiral horretan sartzen ditugu gure txikiak"

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Nagusiok asko egin dezakegu irudiaren gizarteak inposatzen digun zama eta presioa arintzeko". Horrela dio *Guraso.com* atariko kolaboratzaile Itziar Bartolomek. Gustura ibili da udako oporretan, baina, "gorputz irudiari lotutako sufrikarioaz" konturatu da, beste behin. "Haur zein nagusi batzuk bainujantzia janzteko garaia ez dute gehiegi disfrutatzen", dio. Azaltzen du irudiaren gizarte bizi garena,

eta horrek eragin zuzena duela gure haurren eta gaztetxoaren autoestimuan, baita nagusi batzuen ere. "Irudiari ematen zaion gehiegizko garrantzia ez da bate-re onuragarria, eta sarritan, kalte psikologikoak eragin ditzake (...). Kontrol sozialerako elementu bat gehiago da".

Telebista eta iragarkiak

Bartolomek argi dauka: "Kontrol mekanismo historikoez gain, teledibistatik eta iragarkietatik

jasotzen ditugun mezuek eragin ikaragarria daukate edertasunaren definizioan". Arropa berria erostera, depilatzaera, gazte egoteko kremak ematera... bideratzen gaituzte, eta psikologoaren esanetan gu eredu izanik, espiral horretan sartzen ditugu gure txikiak. "Gehiegizko kontsumo ereduaren engranajeak izateko hezten ditugu".

Ukaziorik ez

Bartolomek dei egiten du autoestimua kaltetu gabe gorputz naturala, berezkoa, eta autentikoa maitatzea eta onartzera ikasteko. Edertasuna subjektiboa dela dio, osasunak beharko lukeela gorputza zaintzeko irizpidea, eta gaztetasun eternoa ez dela existitzen. "Guzti honekin azpimarratu nahi dut estereotipoa jarraitzeak ez daukala zer ikusirik zoriontasunarekin. Alderantziz, guztiz lotuta dago norberaren ukazioarekin, eta baita ere ezberdina den guztia ukatzearekin. (...) Emakumea zein gizonezkoa izan baloratu positiboki gorputz lodiaren edertasuna —zurea eta bestearena—, hileekin axolagabe jokatu —ez eman garrantzirik—, eta sortu zure irudi propioa; zurea, bakarra eta askea. Orduan erakutsiko diegu gure haurrei, ez teledibistak, ez beste inork ez duela gure irudian agintzen, eta are gutxiago, gure autoestimua mintzen. Gure esku dago!", dio.



Neskatala hondartzan. | MARCO

Elikadurak badu eragina ikasleen errendimenduan

Eskola adinean kontuan hartu beharreko zenbait jarraibide ematen ditu Osakidetzak

L.Z. | ARRASATE

Elikadura egokia badauka umeak eskola errendimendu hobea eta eguneroko jarduerak burutzeko indar handiagoa izango duela aipatzen du Osakidetzak.

Haurrak egunean bost otordu egin behar ditu: gosaria, hamaiketako, bazkaria, askaria eta afaria. Gosariak berebiziko garrantzia du eta behar besteko denbora eman behar zaio. Eduki behar ditu fruta, esnekiren bat eta zerealak. Azken horiek bihi osoak eta azukrerik gabekoak.

Bazkaltzeko eta afaltzeko plater osasungarriak hartu behar

ditugu, eta familiak eredu izan behar du. Horretarako, egunean zehar jaten dugun erdia barazkiak eta fruituak izan behar dira, laurden bat zerealak, eta azken laurdena proteina askoko jakiak.

Plater osasungarria

Plateraren erdia fruituz eta barazkiz bete behar dugu. Plateraren parte honetan zenbat eta kolore eta aukera gehiago, hobe. Eta garaikoak badira, are hobeto. Plateraren laurdena zerealez eta horien eratorriez bete behar dugu: arroza, ogia, garia, artoa, patatak... Plateraren azken laurdenean

proteinak sartuko ditugu, baina izan daitezela proteina iturri sanoak. Onenak hegaztiak, arrinak —zuriak zein urdinak—, lekaleak eta fruitu lehorrak dira. Denetarik jan astero, txandakatu. Eta kontuz prozesatutako haragi gorriarekin, hala nola urdailarekin, hestebeteekin, saltxitxekin...

Saihestu beharrekoak

Osakidetzaren esanetan nahikoa da egunean litro erdi esnerekin —esnekiak barne—. Haurrak ura edan behar du, eta saihestu behar ditugu azukre, gas eta kafeinadun edariak. Mugatu elikagai frijituak, aurrez prestatutako produktuen, janurreko gazien eta opilen kontsumoa, eta baita ere haurrak otorduen artean jatea, batez ere zizka-mizkak, litxarreak eta ontziratutako edariak. Gatzari dagokionean, egunean gehieneko koilara txiki bat, eta iododuna bada, hobe.

Aukera berri bat izango balitz bezala hasi behar dugu ikasturtea

L.Z. | ARRASATE

Ikasketetan zailtasunak dituzten ikasleekin egiten du lan Jon Arruabarrena psikologoak —Iurreta, 1.961—. "Ikasleei esango nieke ikasturte berri baten aurrean daudela. Zeretik hasten direnez, ez dituzte zertan aurreko akatsak errepikatu. Gurasoei dagokienez, irakasleenganako harremanak sendotzea komeni da", adierazi du Anboto aldizkarian egindako elkarrizketan Arruabarrenak.

Adituak gehien ikusten duen arazoa motibazio falta da. "Ikasle onak oso motibatuta egoten dira, baina beste ikasle batzuk, aldiz, ez. Gaitasun batzuk izan arren, adimenari eta irakurmenari dagokionez, gasolina

falta zaie (...). Kasu horretan gasolina motibazioa izaten da", azaltzen du.

Ahaleginaren balioa

Baina nola motibatzen dira ikasleak? "Denok dakigu ikasketak etorkizunean bizimodu erosoa eta soldata on bat ateratzeko izan daitezkeela. Baina horri letra larriz idatzitako motibazioa deitzen diot. Beste motibazio bat, letra xehez idazten dena, eguneroko konstantzia da. Etxean zein gelan ahaleginaren balioa irakatsi behar zaie. Beraiek gustuko dituzten sariekin lortu daiteke motibazioa. Kanpoko motibazio bat izan dezake, gauza materialak zein immaterialak".



Bi neska ikasten. | DISEÑO UNNOBA

ARGITALPENA

Ahul-ahaltu desoreka 'Bihotz-bihotzetik' ipuinean

L.Z. | ARRASATE

Katu bat eta arrain bat protagonista dituen 20 orrialdeko album ilustratua da *Bihotz-bihotzetik*. Emile Jadoul irudigile belgikarraren lana da, eta Ibaizabalek argitaratu du aurten Ipurtargia bilduman.

Arrainak asko maite du bere adiskide katua, eta behin eta berriz jakinarazten dio: "Maite zaitut. Eta zuk, maite al nauzu?". Katuak, ordea, ez daki zer erantzun. Arraina ahula da eta katu ahaltuaren eskuetan dagoelarik, tentsioa igo egiten da orri orri katuak arraina maite ote duen ala jan egin nahi duen argitu bitartean. Aurreratuko dugu amaiera zorionsua duela ipuinak, eta adiskidetasunaren aldeko aldarria egiten duela. Ahul-ahaltu desoreka hori oso iradokitzailea da, haurrek askotan bizi duten egoera delako. Bi urtetik gorako umeendako ipuina da.

IRTEERA

Arpea leize-zuloa eta Organbideko kromletxa

L.Z. | ARRASATE

Nafarroako eta Behe-Nafarroako mugarrirarte ibiliko gara Ursario basoa, Organbideko kromletxa eta Arpea leizea ezagutzeko aukera emango digun 14 bat kilometroko ibilbide honetan. Orbaitzeta herriko arma fabrikatik gora abiatuko gara autoan 212. mugarrira iritsi arte. Apartatu eta gertu aurkituko dugu Organbideko kromletxa, lehen bisita gunea. Hemendik oinez egingo dugu aurrera. Erroitzate, Orhi eta Mendizar ton-torren konpainian artzain borda talde batera iritsiko gara. Azken borda eskuman laga eta hesi bat aurkituko dugu bidean. Hura pasa eta berehala agertuko zaigu Arpea deituriko leize-zuloa. Gaur oraindik ere ardiak babesteko erabiltzen dute leizea inguruko artzainek, baina zoragarria da. Itzulera bide bertik egingo dugu.



1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 80 metro koadro ditu. Bi loglela, bi bainugela, sukaldia eta egongela. Igogailua eta berokuntza. Egoera oso onean. Jantzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 59 71 21 (Maidier)

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela-jangela, bikomun eta sukaldia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Antzuolan etxebizitza errentan hartzeko asmoa daukagun bikote bat gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

Arrasate. Bi logelako etxebizitza behar dut errentan, ahalbada erdigunean. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 688 48 47 76 edo 610 99 42 03

Arrasate. Bi logelako etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 651 54 10 26 edo 634 12 56 87

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 68 56 03

Bergara. 400 euro inguru ordaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Bergara. Mutil gazte, langilea, etxebizitza bila. Batendako modukoa edo norbaitekin osatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 38 75

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 00 57 93

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdigunean logela ematen da errentan. Zarraila dauka eta telebista jartzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 28 89

Aretxabaleta. Logela bat errentan ematen da. Bainua barruan dauka. Argitsua eta balkoiarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 73 66 54

Arrasate. Arrasateko mutil langilea, ez erretzaila, beste batzuekin osatzeko etxebizitza bila. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 42 09 38

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean, etxeko gainontzeko guneak ibiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 85 63 48

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Ikaslea bada, hobeto. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 78 87 36

Arrasate. Udalpe kalean logela bat ematen da errentan ikasleentzat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 09 17 33

Bergara. Erdigunean logela ematen da errentan. Bere bainugela dauka. Emakumeendako bakarrik. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 59 38 14

Bergara. Etxebizitza bila nabil. Pertsona batendako modukoa edo norbaitekin osatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 38 75

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Urbarri etorbidean, unibertsitate ondoan, garaje itxia ematen da errentan. 609 01 54 63

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea hartuko nuke errentan Malvina inguruan. 628 51 40 91

Oñati. Ugarkalde auzoan, garaje edo plaza bat errentan hartuko nuke. 617 71 40 50

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE
Ile-apaintzailea behar da.
679 22 98 87

BERGARA
Esperientziadun zerbitzaria behar da taberna eta jantokirako. Bergarakoa bada, hobeto.
663 02 14 05

BERGARA
Jangelako zerbitzaria behar da. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali CVa: jateljantx@gmail.com

Bergara. Emakumea behar da urtebeteko neskatila bat zainitzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 01 18 32

Bergara. Astean bitan eta gaitxozten direnean umeekin egoteko pertsona behar dugu. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 10 44 31

Eskoriatzan umeak zaindu. Eskoriatzan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Autoa derrigorrezkoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 50 37 85

402. ESKAERA

Arrasate eta inguruak. Neska euskalduna arratsaldez edo astebukaeratan umeak edo nagusiak zainitzeko. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 44 86 30

Arrasate. Mutila gertu nagusiak zaindu, janaria prestatu, etxeko lanak egin, pasioan atera eta abar. Sukaldari eta egoitzatan esperientzia eta elikagaiak erabiltzeko titulua daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 45 33 59

Bergara eta inguruak. Neska euskaldun gaztea goizetan umeak ikastetxera eramane edo etxean zainitzeko zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 44 85 18

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

-Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

-Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK 101. Saldu 102. Erosi 103. Errentan eman 104. Errentan hartu 105. Etxeak osatu 106. Bestelakoak	3. LOKALAK 301. Saldu 302. Erosi 303. Errentan eman 304. Errentan hartu 305. Bestelakoak	5. IRAKASKUNTZA 501. Jaso 502. Eman 503. Bestelakoak	7. ANIMALIAK 701. Saldu 702. Erosi 703. Eman 704. Bestelakoak	9. HARREMANAK 901. Agurrak 902. Harremanak 903. Deiak 904. Bestelakoak
2. GARAJEAK 201. Saldu 202. Erosi 203. Errentan eman 204. Errentan hartu 205. Bestelakoak	4. LANA 401. Eskaintzak 402. Eskaearak 403. Bestelakoak	6. MOTORRA 601. Saldu 602. Erosi 603. Alokatu 604. Bestelakoak	8. DENETARIK 801. Saldu 802. Erosi 803. Eman 804. Hartu 805. Trukatu 806. Galdut 807. Aurkitu 808. Bestelakoak	10. RELAX

Bergara eta inguruak. 44 urteko emakume arduratsua eta esperientzia handikoa umeak zainitzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Irailaren 1ean hasteko prest. 647 51 52 80

Bergara eta inguruak. Psikologian lizentziatutako neska esperientziaduna haurrak zainitzeko irrikaz. 615 73 68 07

Bergara. Bergarako 48 urteko emakume euskalduna, arduratsua, umeak, persona edadetuak edo lanak egiteko prest dago goizetik 15:00ak arte. 619 44 36 96

Bergara. Emakumea lanerako gertu: etxeko garbitu, nagusiak zaindu edota sukaldian egiteko prest. Egun osoz, etxan bertan bizitzeko edota orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 631 60 36 41 (Irma)

Bergara. Emakumea umeak eta nagusiak zainitzeko gertu. Bertakoa naiz. 610 34 97 88

Bergara. Gizonezkoa lanerako gertu: etxeko garbitu, nagusiak zaindu edota sukaldian egiteko prest. Egun osoz, etxan bertan bizitzeko edota orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu mesedez telefono honetara: 602 07 12 06 (Armando)

Bergara. Pertsona arduratsua, informaduna, garbiketa lanak egiteko gertu. 696 27 25 34

Debagoiena eta Debabarrena. Erreferentzia onak dituen neska egunez lan egiteko gertu. Garbitasunean eta etxeko lanetan esperientzia daukat. Lege paperak eguneratuta. 602 04 02 97

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 697 66 89 20

Debagoiena. Banatzaile, kamioi gidari edota zaintza lanetan ariituko nintzateke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 06 66 71

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zainitzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernatan eta abar. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 06 28 04

Debagoiena. Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zainitzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu umeak edo nagusiak zainitzeko. Ospitalean gaua pasatzeko ere bai. Esperientziaduna. Ainhoa. 671 35 22 60

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian, zerbitzari lanetan zein zaintzak egiten. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Etxean bizi izaten, orduka edota gauetan ere bai. 630 20 12 03

Debagoiena. Erizaintza laguntzailea naiz eta gauetan edo 11:00etatik 16:00etara bitartean zaintza lanak egingo nituzke. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 20 59 43

Debagoiena. Eskarmentudun neska orduka lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 97 19 30

Debagoiena. Etxean bertan bizitzeko edo orduka lan egingo nuke. 606 64 16 09

Debagoiena. Garbiketarak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. Lege paperak daukat. Berehala hasteko gertu. 603 63 31 55

Debagoiena. Geriatria tituladuna neska lan egiteko gertu. Ospitalean gaua pasatu edo etxean gaixok zainitzeko. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketaren jardun naiteke. Lege paperak eguneratuta daukat. 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Erreferentzia ona eta eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta etxeko lanetan. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Baserrietan ere bai. 662 43 08 54

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta euskaraz badakit. Gidabaimena eta autoa daukat. 631 70 00 24

Debagoiena. Nagusi eta umeak zainduko nituzke. Baita asteburuetan ere. Deitu 632 53 64 11 telefonoa.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zainitzeko, orduka garbiketarak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoa ateratzeko gertu. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska euskalduna arratsaldez edo astebukaeratan lan egiteko gertu. Deitu 696 37 79 74 zenbakira.

Debagoiena. Neska euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Klinika laguntzaile titulua daukat. 688 82 69 68

Debagoiena. Neska gertu umeak zaintzeko, garbitasun lanerako eta sukalde laguntzaile aritzeko. 608 77 60 27

Debagoiena. Neska lan bila. Nagusiak zaintzen etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere bai. 631 28 22 03

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusiak zaintzen edota garbitasunean lan egindakoa naiz. 663 40 92 67

Debagoiena. Neska lanerako gertu: denetarik garbiketarak, ume eta nagusiak zaindu etxean, ospitalean edota egoitzan, gidari, banatzaile eta abar. 696 32 13 69

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusiak eta umeak zaindu, denetarik garbitasunak, baita ostalaritza eta baserrietan ere, edo tabernan sukaldari. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Esperientziaduna. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusiak zaindu, tabernan sukaldari, garbiketarak eta abar. Autoa daukat. 636 11 23 40

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke zerbitzari edo etxeko lanak egiten. 603 65 88 95

Erainkuntzan. etxeko publikoetan lan egingo nuke. Deitu 628 74 12 13 telefonora.

Ile-apaintzaile. Ile-apaintzaile moduan lan egingo nuke arratsaldetan eta zapatutan egun osoz. 622 59 39 87

Klinika laguntzaile. Nagusiak eta gaixok zaintzeko prest, egunez edo gauaz, etxean zein ospitalean. 609 98 02 52

Lanerako gertu. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatutako gaztea lanerako gertu. Bergaran edo inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 10 14 41

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. 4. DBH-ko eta 6. mailako bi ikasleri eskola partikularrak emango dizkien norbaitekin behar dugu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 52 48 34

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskolara ematen ditut. Maila gutzietan. Cambridge-eko eta HEU-ko azterketak gertatzeko ere bai. Talde txikiak. Goizetan, eguerdian edo arratsaldean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 91 32 89

Bergara. Neska prest lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 77 40 26

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Arratoi txakurrak. Arratoi txakur txikiak, umeak, ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 89 55 74

Katuak eta katakumeak opari. Katu helduak eta abuztuan jaiotako katakumeak ematen dira opari. Deitu 629 09 63 46 edo 660 92 70 71 telefono zenbakietara.

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursaila Aretxabaletan. 1.132 metro koadro. Etxebizitza berrien atzekaldean, polikiroldegirik gertu. 618 76 34 40

Trastelekuak Oñatin. Bi trasteleku saldu edo errentan ematen dira Ugarkaldekoko lehenengo blokean. Bata 9,11 metro koadrokoa eta bestea 11,04 metro koadrokoa. Lurpeko gara-jeetan daude. Deitu 659 35 06 53 edo 656 74 29 49 telefono zenbakietara.

802. EROSI

Bergara. Herritik gertu lursaila erosiko nuke. 660 64 20 42

Eskoriatza. Lursaila erosiko nuke. Nahiago herritik gertu. 618 76 34 40

805. TRUKATU

Hizkuntza trukea. Alemaniera praktikatu gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nitzuke. Arrasatekoa naiz. 669 13 20 08

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Autoan Debagoienetik Bastidara. Egunero autoz Bastidara joan behar dut irailetik aurrera. Inguru haietara doan norbaitekin gastuak banatu nahi ditut. Orduetgia adosteko. Deitu 680 34 29 60 telefonora.

Debagoienetik Gasteizera. Irailetik ekainera arte. Gasteizera doan norbaitekin autoa konpartitu nahiko nuke. 7:30ean irten eta 16:30-17:00ak inguruan itzultzeko. 645 00 62 79

ETXKO SUKALDERAINO

Igor Arenatza | Kirol zuzendaria

- ▶ Futbol jokalaria profesionala izan zen, besteak beste, Eibar taldean
- ▶ UDAko kirol zuzendaria eta koordinatzailea da hasi berri den denboraldian

"Sukaldean? Uf... Ontziak garbitzea tokatzen zait beti niri"

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Futbol jokalaria profesionala izan zen Igor Arenatza (Aretxabaeta, 1974), eta, besteak beste, Eibarren jardun zuen. Azken urteotan Aretxabaeta kirol elkartearen dabil kirol zuzendari, eta halaxe jardungo du hasi berri den denboraldian ere.

Igor Arenatza zelakoa da?

Ilusio handiarekin bizi den pertsona, beti gauzak ondo egin nahian; behintzat, futbolearen.

Ze harreman duzu sukaldearekin? Uf... ontziak garbitzea tokatzen zait niri.

Zein da zure espezialitatea?

Espagetiak carbonara erara nahiko txukun egiten ditut, baina beste batzuek esan beharko lukete.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Elkarrekin egotera: buelta bat eman, bazkaldu...

Eta etsai bat gonbidatuko zenuke? Bai, kontuak konpontzeko.

Zeinek gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Gertukoekin: Aretxabaetako lagunekin, futbolearen ezagututakoekin... Disfrutatu egiten dut horiekin; asko, gainera.

UDAKo Andoni Zubizarreta zara?

Bai, antzeko lana egiten dugu: entrenatzailea topatu, taldeak

osatu...

Zer eman dizu futbol jokalaria profesional izateak?

Asko erakutsi dit: esfortzua, sakrifizioa, konpromisoa, talde-lana... Eta Eibar moduko talde apalean egon ahal izatea.

Futbol jokalaria ala kirol zuzendari?

Jokalaria nintzela asko disfrutatu nuen, eta orain, kirol zuzendari ere bai. Garai bakoitzari dago-kiona.

Messi direla uste duten umeei zelan

esan futbolearen ez dutela etorkizunik?

Hori da lanbide honetan zailena. Nik gurako nuke guztiek izatea jokatzeko aukera, baina... Futbolearen ezin badu, behintzat, beste kirol batzuetan jarduteko aukera izan dezala.

Eta etxean Messi dutela uste duten gurasoei zer esan?

Umeari utzi egin behar diogula bere bidea egiten. Ikusi besterik ez dago zenbat ume hasten diren eta zenbat iristen diren profesional mailara, Aretxabaletan bakarra daukagu orain.

Gaur egungo futbolearen inor miresten duzu?

Topikoa da, igual, baina uste dut Guardiolak zerbait aldatu duela.

Eta zer ez duzu gustuko?

Umeen, gurasoen eta entrenatzaileen ikuspegiak sarritan ez datozela bat.

Eskua Proiektua jarri zenuen abian UDAn, errespetua ardatz hartuta; horrek badu lekuri futbol profesionalean?

Baietz esango nuke. Realera ere badabil lantzen ikastetxeekin, gurasoekin... Futbolaria, pertsona integral hartuta.

Luzaroan ikusiko dugu Eibar lehenengo mailan?

Hori espero eta desio dut. Oraindik ere Eibarko beterranoekin



Igor Arenatza Ibarra futbol zelaian, baloia eskuartean duela. | M.A.

"Eibar oso barruan dut; beterranoekin partiduak jokatzen ditut oraindik ere"

futbolearen jokatzen ditut partiduak, eta oso barruan dut. Zaila izango du, baina Gaizka ezagututa uste dut urte ona egin dezakeela.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Osasuna, inguruko gertutasuna eta poztasuna.

Damu zara...

Beste era batera egingo nituzkeela kontu batzuk bai, baina damurik ez.

Ezer errepikatuko zenuke?

Bai, gehiena, egin dudana guztia barru-barrutik atera zaidalako.

Zerk beldurtzen zaitu?

Erronkak datozen moduan hartzen ditut eta aurrera.

Etzera iritsi, sofan eseri eta...

Ez dut sofarako asti handirik. Ezohiko ordutegia dut eta etzera iritsitakoan emaztearekin afaltzea dut gustuko, denbora tarte hori geuretako hartzeko.

Nora joango zinateke gustura?

Granadako kostaldean dagoen Salobreña herrira. Motrilen jokatzen nuenean etxea erosi nuen, eta gustura egoten naiz han; erabat deskonektatu eta pilak kargatzen ditut.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Umeei sarri esaten diet: *Ez egin beste zuri egiterik gurako ez zenuketena.*



Lehen platera: Patata-entsalada.

Bigarrena: Arraina; erreboiloa (rodaballoa), esaterako.

Postrea: Txokolatzeko edozein.

Edatekoa: Errioxako ardo ondua.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

KANELOIAK UNTXIAREKIN BETETA

Galduta segitzen dut; urrun. Sentitzen dut. Lanez lepo dihardut, goizetik gauera. Eta egun gutxi dauzkat aisialdirako. Gaur jai daukat, ordea. Horregatik ekin diot errezeta honi. Festak zain ditut, udan gauden, eguraldi ona... Espero dut disfrutatzeke aukera izatea egun eder hauekin: eguzkia, terrazak, eta iluntzeko giro ederra, aparta konpainia onean egoteko.

Beno, has gaitzen errezetaren gainean berbetan. Kaneloiak dira, baina ez da pasta plater bat. Biri-bilkiak dira, baina brick pastarekin eginak daude. Era honetara kurruskariak izan daitezten. Ea gustatzen zaizkizuen.

The Pogues entzuten

Errezeta hau egiteko, oraingoan, musika entzuten jardutea propo-



Kaneloiak Xerez saltsan egindako untxiarekin beteta. | PATRIZIA VITELLI

satu behar dizuet. Hain justu ere, The Pogues taldearen *I love you till the end*.

The Pogues irlandarrak ezagutu nituen kasualitatez, erabiliko diskoen denda baten nengoela. Haien diskografiaz interesatzen zaitzaidan, berehala. Eta

apurka-apurka ohartzen joan nintzen bakarrak zirela, oso-osoa originalak, bitxiak. Bereziki erakarri ninduen izan zen irlandar tradizioa eta punk estiloa uztartzeko dohain berezia. Haien soinuen estimulatzaileak lehen notarekin harrapatu ninduen.

Fitxa

- ▶ Denbora: 2 ordu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK (4 PERTSONA)

- ▶ Untxi 1, lau zati eginda.
- ▶ Xerez gozoa, kopatxo bat.
- ▶ Hegazti-salda, kopa bat.
- ▶ Kipula 1
- ▶ Brick pasta.
- ▶ Tomate birrindua.
- ▶ Bexamela.

Hain justu ere, aipatu dudana abesti hau, *I love you till the end*, oso egokia da Irish pub horietako baten amaitzeko, kantuan, parrandan. Bat datoz egoerarekin, musika eta hitzek diotena, eta abestiaren izenburua bera ere. Ez zaizue iruditzen.

Prestaketa

1. Untxiaren okela ondo garbitu sukaldeko papera erabilita. Ondoren, kipula zuritu eta zatitu, eta untxiarekin batera ipini, ontzi baten, labera sartzeko. Aurretik, baina, ondo gatzatu eta oliba olio zorrotada batekin ondo busti. Labean erre, 180 gradutara, 25 bat minutuz.
2. Behin 25 minutu horiek pasata, Xerez kopa eta salda gehitu eta beste ordubetez eduki erretzen. Epeltzen laga eta hezurra kendu, saltsa gerorako utziz.
3. Saltsa ondo irabiatu, plateran ateratzerakoan erabiltzeko. Okela zatitxoak egin eta sikutxo geratzen bazaigu saltsa apur bat gehitu. Horretaz gain, bexamel koilarakada handi bat gehitu eta beste koilarakada tomate birrindu bi.
4. Okela brick pastarekin bildu, kaneloiak balira moduan, eta labean sartu 15 minutuz, 180 gradura. Plateran aurkezterakoan, saltsa gehitu eta perrexil txikitu apur bat jarri.

Eskumuturrera ekarri du Applek puntako teknologia

iPhone 6arekin batera Apple Watch erloju adimenduna aurkeztu berri dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Espero zen eta hala egin dute; azkenean, erakutsi du Applek hain ezkutuan zuena. Apple Watch erloju adimenduna 2015ean egongo da merkatuan eta martitzeneko keynote-an erakutsi zituzten ezaugarri guztiak. Hain gailu txikian interfazea da gakoa eta Applek Watch-en ordulari tradizionalaren alboko botoia eta pantaila ukigarriaren aukera guztiak konbinatu ditu. Hala, hasiera botoia eta menuetan nabigatzeko *scroll*-a da, aldi berean, botoi hori, eta, pantailari dagokionez, atzamarraren ibilbidea eta presioaren indarra atzeman dezake zafirozko pantailak. Teklaturik ez duenez, ahots bidez ere emango zaizkio aginduak erlojuari.

Osasun digitalizatua

Produktu berri horrekin, osasun eta kirol aplikazioetara begira jarri da Apple. GPS, pultsometro eta azelerometroarekin, erabiltzailearen egoera fisikoa eta jardura kuantifika dezake eta horretarako beren beregi sortutako aplikazioekin etorriko da Watch-a.

Noski, erloju adimenduna bai, baina iPhone batekin osagarri beti, eta iPhone 5etik aurrera bakarrik izango da bateragarria gailu berria, wifi bidezko konezioarekin. Aplikazio zerrenda luzea aurkeztu zuten martitzenean eta garatzaileei ere zabaldu die bidea, eta aplikazioak ugaritu egingo dira laster.



Apple watch erloju adimenduna.

Diseinua

Bi esfera neurritan (38 eta 42 mm), hiru akabera mota – urrezko bat eta guzti – eta makina bat uhalekin aterako dute merkaturatu urte hasieran eta modelorik merkeenak 349 dolar balioko du. 2015ean ikusiko da, beraz, ea oraingoan ere lehenak iritsi ez arren produktu berriarekin merkatuaz jabetzeko gauza diren.

iPhone 6a, handiagoa

Arreta erloju berriak bereganatu bazuen ere, joan den martitzeneko ekitaldia, izatez, iPhonearen belaunaldi berria aurkezteko izan zen. iPhone 6a bi neurritan etorriko da: 4,7 hazbeteko bat eta Plus delakoa, 5,5 hazbetekoa. Ezaugarri tekniko hobetuak eta, modelo handiaren kasuan, pantaila erresoluzio handia dakartzela belaunaldi berriak nobedade bezala, baina, aurkez-

penean, nabarmengarrien artean, ordainketak egiteko sistema berri baten aurkezpena izan zen. Izan ere, datoen hilaibeteetako borroka nagusietako bat alor horretan izango da, ordainketa sistemetan, eta Appleren proposamena ikusizun zegoen. Bada, *Pay* izenaren NFC teknologia erabiliko dute ordainketetarako, Touch ID identifikagailuarekin eta Passbook aplikazioarekin batera. Erabiltzaileak bere kreditu txartelaren datuak karga diezazkioke aplikazioari eta teknologia horren bitartez iPhone 6arekin eta Watchekin ordainketak egin.

Hori guztia sistema eragilearen bertsio berriarekin iritsiko da, iOS-en zortzigarrena. Irailaren 17an, hau da, eguaztenez, egongo da eskuragarri eguneraketa iPhone 4 s-etik eta iPad-aren bigarren belaunaldiko modelotatik aurrera.

la bost milioi Gmail kontu urratu ditu 'cracker' batek

Googletik diote sisteman ez dela akatsik egon eta 'phising' iruzur baten bidez eskuratu zirela


JON BEREZIBAR | ARRASATE

Gmail posta zerbitzuaren 4.930.000 erabiltzailearen izen eta pasahitzak lapurto eta Bitcoin txanpon birtualari buruzko foro errusiar baten argitaratu dituzte berriki. Googletik diotenez, segurtasunean ez da zulorik egon eta frogarik ez dute euren sistemetan kalteak egon direla esateko. Foro horretan pasahitzen zerrenda argitaratu zuen *cracker*-ak berak adierazi du urratutako kontuen %60 martxan daudela, eta, gehienbat, espainiar, ingeles eta errusiarrenak direla. Googletik behin eta berriki diote segurtasunean ez dela galerarik gertatu eta halako erasoen berri jakin bezain laster segurtasuna berresteko mekanismoak ipintzen dituztela martxan eta *phising* iruzurra izan zela. Googlek egiaztapen bikoitzen sistema

bat dauka, erabiltzaileak berak aktiba dezakeena, eta, ez dutenen kasuan, sistema hori abiatzeko aholkatzen diete zuhurtziaz jokatu gura duten erabiltzaileei. Googletik esan dutenez, sistema horrekin ziurtatutako kontuek ez dute ezelako arriskurik. Googletik diote urratutako gehienak erabiltzen ez diren kontuak direla.

'Isleaked.com'

Hala ere, inork bere kontuak konprometitu ez daudela ziurtatu gura balu, sarean urratutako e-posta horiek guztiak jaso eta zerbitzua abiarazi dute posta elektronikoko egiaztatze. Webgune hori *www.isleaked.com* da, eta, Gmail zerbitzuko helbide bat sartuta, kontua segurua dagoen, urratua dagoen edo urratua izateko arriskuan dagoen esaten du.



Datuen zerrenda jasotzen duen fitxategiaren irudia. | GNET



Whatsappeko elkarrizketa bat. | GOOGLE

Marka urdin batekin adieraziko luke mezu irakurria Whatsappek

J.B. | ARRASATE

Whatsapp aplikazioan mezua bidalia edo jasoa izan den adierazteko markatxo berdeei hirugarren bat gehituko diote aurki, eta, itxura denez, urdin kolorearekin, mezua irakurria izan dela adieraziko luke. Hain zuzen, dagoeneko zenbait erabiltzaile iri agertzen zaie zeinu berri hori taldeko txatetan, sarean agertu denez. Berez, urdin koloreko

marka egon badago jada eta aplikazioaren bertsio batzuetan audio mezua entzun denean agertzen da. Erabiltzaile batzuek, ordea, aplikazioaren kodearen barruan hirugarren marka mota horren deskribapena ikusi dute, eta, azaltzen denez, prest dago edozein motatako mezua (testu, audio zein irudi) irakurria izan dela adierazteko, aktibazioaren zain, hain zuzen ere.

Bideo iragarki bat ikustearren, eten bako 30 minutuko saioa eskainiko du Spotifyk laster

J.B. | ARRASATE


Engadget webgune espezializatuak jakinarazi duenez, urte amaierarako, Spotify musika streaming zerbitzua modalitate berri bat abiatzekotan legoke. Publizitadedun modalitatea litzateke, baina tartekatutako ohiko iragarkiak izan barik, erabiltzaileari aukera emango zaio bideo-i-

ragarki bat ikustearren truke 30 minutuz jarraian musika entzuteko. Hedabideak aurreratzen duenez, mugikorreko bertsioa erabiltzaileei utziko liekete modalitate berri hori. Azaldu bezala, erabiltzaileei publizitate-bideo bat ikustearren truke etenik gabeko 30 minutu musika eskainiko luke Spotifyk. Mahaigaineko

aplikazio bat ere izango lukete prest eta bai mugikorrean zein mahaigaineko bertsioan, bietan, 15 eta 30 segundo arteko iragarkiak liriateke eta pantaila osoa hartuko lukete. Spotify musika zerbitzariak gaur egun 40 milioi erabiltzailetik gora ditu eta horietatik hamar bat milioi soilik da ordainpeko harpidedun hileko ordainketa baten bitartez. Iragarkie dagokionez, Spotify 2015. urte hasieran hasiko litzateke lan komertzialarekin.

Erosketak txio eta txio artean

Probatan dabil Twitter, produktuen txioetan erosteko botoi bat ezarri eta Twitter bitartez ordainketa egin ahal izateko. Publizitate txioak liriateke, eta, erabiltzaileak kreditu txartela lotuta, zuzenean egin ahal izango luke erosketak. Oraingoan, probatan dihardute.



PINTEREST

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



'Bailando' kantuaren erruz

Aste honetan Tele Bilbao katean azaldu da, BECen, saskibaloitxapelketan, speaker lanak egiten aritu zen gizona bere kaleratzea salatuz.

Zergatik kaleratu zuten? Enrique Iglesiasen *Bailando* kantuarekin hitz jokoa egiteagatik. Letrak zera dio: "Zurekin gau ero bat igaro nahi nuke". Kantu hori behin eta berriz dantzatu zuen *cheerleader* edo animatzaile neska talde batek, euren jantzi sexiaz ponpoiak astintzen, saskibaloipartiduen atsedaldietan.

Speakerrak orduan esan zuen: "Eta nori ez litzaioke talde zoragarri horrekin gau ero bat igarotzea gustatuko?".

Egundoko kultura maila zuen norbaiti iruditu zitzaion esatea esaldi hori matxista omen zela, eta ondorioz, gizon hori kale gorrian utzi dute. Erotu egin al gara? Ados nago, agian esaldi hori tokiz kanpo zegoela eta nire ustez, erabat soberan dago esaldia. Baina arrazoi horregatik gizon bat matxista dela leporatzea eta ondorioz kaleratzea, gehiegikeria higuigarria iruditzen zait niri.

Zein izango da hurrengo pausua? Enrique Iglesiasen kantua debekatzea? Barkatu, baina inkisizio garaiak aspaldi igaro ziren.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 15



'Harmailatik'

Bergara futbol taldeak zapatuan Zarautzen kontra jokatuak partiduen laburpena eskainiko da. | 19:30

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 13:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 13:25 Zorion Agurrak
- 13:30 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Kontzertua
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Idemtitateak
- 17:30 Ur eta lur
- 18:00 Ibarra mendi duatloia
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 19:30 Harmailatik
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harmailatik
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

MARTITZENA, 16



Marin auzoa

Eskoriatzako Marin auzoa ezagutzeko aukera izango da Alberto Letona auzotarrarekin. | 20:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Harmailatik
- 13:00 Ibarra mendi duatloia
- 13:25 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Harmailatik
- 15:30 Onein
- 15:55 Zorion Agurrak
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Amaia DJ
- 17:30 Ikusi irratia
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Harmailatik
- 19:30 Idemtitateak
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 23:00 Debagoiena zuzenean
- 23:30 Berriak
- 23:30 Harmailatik
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

EGUAZTENA, 17



'Erakusleihu'

Amagara estetika zentroko Maite Agirrek uda ostean aurpegiko azala nola zaindu azalduko du. | 20:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 13:00 Ikusten
- 13:30 Harmailatik
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Idemtitateak
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Harmailatik
- 17:30 Ikusi irratia
- 18:30 Berriak
- 19:00 Idemtitateak
- 19:30 Harira
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Ikusten
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Idemtitateak
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

EGUENA, 18



'Amaia DJ'

Gaztetxoek WhatsApp, Twitter eta Tuenti bitartez eskatutako bideoklipak jarriko dira. | 19:30

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Ikusi irratia
- 13:30 Ur eta lur
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Ibarra mendi duatloia
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Kontzertua
- 17:20 Trikitilari txapelketa
- 18:30 Berriak
- 19:00 Idemtitateak
- 19:30 Amaia DJ
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Amaia DJ
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

EGUBAKOITZA, 19



Moda kontuak

Udalaitz dendako Sergio Hernandok moda kontuei buruz hitz egingo du *Debagoiena zuzenean* saioan. | 20:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Amaia DJ
- 13:00 Ikusten
- 13:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Berriak
- 15:00 Amaia DJ
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Ikusi irratia
- 18:00 Ikusten
- 18:30 Berriak
- 19:00 Amaia DJ
- 19:30 Jaiak
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Jaiak
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Amaia DJ
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

MU taldeko jokalariek Beñat Barberenari elkarrizketa, gaur

Denboraldi berrirako fitxatu du MU taldeak Beñat Barberena jokalaririk arrasatearra eta 107.7ko uhinetan izango da gaur, astelehena. Herriko taldean egingo duen aurtengo denboraldia izango du berbeta gai Barberenak, Arrasate Irratiko *Uda giroan* irratsaioan 11:00etatik aurrera.

Mugikortasun Astea eta bidegorriari buruz, biharko irratsaioan

Bihar, martitzena, emango zaio hasiera Mugikortasun Asteari eta aste horren nondik norakoak kontatzeko, Arrasateko Udaleko Ingurumen zinegotzia den Josu Pereda izango da Arrasate Irratian. Bidegorrien inguruan ere hitz egingo du saioan eta hori guztia bihar 11:00etan izango da.

'Frantzian Jet'Aime esaten dute' liburua zozketatuko da

Joxemari Iturralde idazlearen *Frantzian Jet'Aime esaten dute* liburua banatuko da egubakoitzeko zozketan irratikoko entzuleen artean. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi *irratia@goiena.com* helbidera mezu bat. Animatu, hartu parte eta zorte ona izan dezazula zozketan!

TELE-ALBISTEAK

Bergarako San Martin jaiak ikusi ahal izango dira gaur eta bihar

'Debagoiena zuzenean'-en Bergarako jaiak gain, Donostiako Zinemaldia ere izango da berbeta gai

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE
Aste honetan ere, *Debagoiena zuzenean* saioan askotariko gaiak izango dira. Asteari hasiera emateko, Bergarako San Martin jaietan murgilduko da saioa, eta astearren amaiera aldean, Donostiako Zinemaldian izango denaz informatzeko aukera izango da.

Bergarako jaiak

Bergaran San Martin jaiak ospatzen ari dira eta halaxe jarraituko dute bihar arte, martitzena arte. Jaietan gertatutakoak, gainera, Goiena telebistaren bitartez

ikusi ahal izango dira: gaur, astelehena, zapatuan egin zen azoka ikusi ahal izango da; eta bihar, martitzena, astelehen gauean egingo den danborradak eman zuena jasoko da. Beraz, saioak jaien kutsua izango du asteko lehen bi egunetan.

Donostiako Zinemaldia

Aste amaieran, aldiz, zinema kontuak izango dira protagonista *Debagoiena zuzenean*-en. Donostiako Zinemaldia hastear dago eta bertan izango denari buruzko aurrerapena eskainiko du egue-



Bergarako gazte talde batek postua jarri zuen azokan eurek ereindako barazki eta frutekin. | GOIENA

Gaur zapatuko azoka ikusi ahal izango da; bihar, danborrada

neko saioan Imanol Gallego kazetariak. Egun berean, Aitor Arregi zinemagile oñatiarra ere elkarrizketatuko du Txomin Madina aurkezleak. Izan ere, aurten sail ofizialean historian lehen aldiz euskarazko film bat egongo da

Loreak eta Arregik parte-hartze zuzena izan du filmaren sorkuntzan: bigarren unitateko zuzendari, produktore eragile eta gidolari lanetan, hain zuzen.

Zinemaldiari jarraipena ere egingo zaio Goiena telebistan.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Aitzol Rodriguez Saldaña
Irailaren 21ean, 7 urte.
Zorionak, Aitzo!! Muxu handi bat familiaren partetik! Mua!



OÑATI
Maiu Etxebarria
Irailaren 21ean, 8 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Maiu!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetze egunian eta muxu pila-pila bat familiaren eta lagun danen partetik.



OÑATI
Iker eta Aimar Zabaleta
Ikerrek irailaren 16an, 38 urte eta Aimarrek irailaren 20an, 2 urte. Zorionak, bikote! Muxu eta besarkada handi bana familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
Jon Larrañaga Ormaetxea
Irailaren 19an, 8 urte.
Zorionak! Ondo pasatu zure eguna familiarekin eta lagunekin. Muxu potolo bat familiaren eta, bereziki, Iraideren partetik.



ARRASATE
Unax Rodriguez Saldaña
Irailaren 19an, 2 urte.
Zorionak, Unax! Muxu handi bat familiaren partetik!



ARRASATE
Malen Bergaretxe
Irailaren 18an, urtebete. Zorionak, bereziki lehengusina Alaitzen, Arrateren eta Saioaren partetik. Baita aittitte-amamen, izeben eta osaben partetik ere.



ESKORRIATZA
Irati Apraiz Garcia
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetze egunian. Patxo handi bat amatxoren, aitatxoren eta lbairen partetik!



OTXANDIO
Eneko Berrio Garaitonandia
Irailaren 17an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun!
Otxandioko aittita-amamak, Aramaioko amama Klara eta tia Pakita eta, bereziki, Irati eta Markel.



ARRASATE
Haizea Arenaza Pagaldai
Irailaren 16an, 8 urte.
Zorionak, polit hori!
Ondo pasatu zure eguna eta patxo mordo eta etxeko danen partetik.



OÑATI
Mireia Obeso Almeida
Irailaren 15ean, 4 urte.
Zorionak, printzesa! Lau urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi-handia danen partetik. Bereziki ahizpa Anetxok eta lagun Julenek, Unai eta Anek. Muxuak!



ARRASATE
Ainhoa Urrizalki Ayesa
Irailaren 15ean, 12 urte.
Zorionak, etxekoen partetik! Zure lehengusu guztien eta, bereziki, Maialenen eta Nerearen partetik!



ARRASATE
Jon Eraña Garcia
Irailaren 15ean, 8 urte.
Zorionak, Jon. Ondo pasatu zure urtebetze egunian. Muxu handia familiaren partetik. Batez be Galder, Manex, Urko, Unai eta Anartz.



OÑATI
Markel Elorza
Irailaren 14an, 8 urte.
Zorionak, Markel!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetze eguna familiarekin eta lagun guztiekin. Muxu handi bat etxeko guztion partetik!



OÑATI
Noa Montero San Vicente
Irailaren 14an, 3 urte.
Zorionak, printzesatxo!
Jadanik hiru urtetxo!
Munduko laztanik beruena eta mila kilo zorion! Askok maitte zaitugu!



OÑATI
Maialen Kortabarria Zubizarreta
Irailaren 13an, 2 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo ospatu zure eguna. Maitte zaitugu!
Mila muxu!



ESKORRIATZA
Hugo eta Gorka
Irailaren 14an, 2 urte. Zorionak, bikote! Muxu handi bat familiaren partetik!



ARETXABALETA
Danel Lanzos Erostarbe
Irailaren 13an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun eta muxu potolo-potolo bat etxeko guztion partetik!
Ondo-ondo ospatu eguna Zumarraga aldian!



ARETXABALETA
Iker Arias Axpe
Irailaren 13an, 11 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetze eguna eta patxo handi eta potolo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Haizea Zulueta
Irailaren 12an, 7 urte.
Zorionak! Zazpi muxu potolo-potolo familia guztiaren partetik, eta oso ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Ibai Rodriguez Baena
Irailaren 12an, 5 urte.
Zorionak, Ibaixo! Bost urtetxo gure mutikotxoak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze egunian. Familiaren eta, bereziki, Jon anaiaren izenean.



OÑATI
Sara Zelaia
Irailaren 8an, urtebete.
Zorionak, polit hori! Jada urtetxo bat. Ze azkar pasatu dan! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat batez be Paularen eta Jonen partetik!



ARRASATE
Danel Zubia Carrasco
Irailaren 8an, 3 urte.
Zorionak etxekoen partetik! Muxu handi bat, pirata!



ARRASATE
Izar Sanchez Diosdado
Irailaren 6an, 12 urte.
Zorionak eta egun polita pasatu familiarekin eta lagunekin.



ARRASATE
Unax Aranzabal
Irailaren 18an, 10 urte.
Zorionak, Unax! Zure 10. urtebetze egunian primeran pasa dezazula. Txokolatzeko muxu pila bat etxeko danen partetik. Horrela jarraitu, txapeldun!



OÑATI
Oxel Blazquez
Irailaren 17an, 8 urte.
Zorionak, Oxel, etxeko danon eta, batez be, zure anaia Unaiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetze eguneko merendolan!



ARRASATE
Malen Bengoa Muxika
Irailaren 7an, 4 urte.
Lau urte beteta, neska handixe egiten zabilz gero, e? Besarkada potolo bat eta muxu pila-pila zuretako.



ARRASATE
Imanol Loiti Montero
5 urte. Zorionak, pirata!
Milaka patxo potolo guztion partetik eta primeran pasa ezazula urtebetze eguna!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.eus atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion
agurrak bakarrik
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak hurrengo
asteen argitaratuko
ditugu.

JAIOTAKOAK



Steisy Segura Riascos

Arrasate 2,880 Kilo. Irailaren 10a. Gurasoak: Leidi eta Carlos. Argazkian, Steisy txikia aitarekin eta ahizparekin.



June Uribesalgo Barrio

Bergara 2,900 Kilo. Irailaren 9a. Gurasoak: Marisa eta Ander. Argazkian, June txikia aitaren besoetan.



Izar Egaña Umerez

Oñati 3,410 Kilo. Irailaren 8a. Gurasoak: Ainhoa eta Urko. Argazkian, Izar ama-rekin.



Mattin Sarriegi Derteano

Oñati 2,750 Kilo. Irailaren 8a. Gurasoak: Leire eta Haritz. Argazkian, Mattin aitarekin.



Eneko Puerto Perez

Arrasate 3,500 Kilo. Irailaren 8a. Gurasoak: Rakel eta Iban. Argazkian, Eneko sehaskan lo.



Ibai Martinez Serrano

Bergara 3,400 Kilo. Irailaren 7a. Gurasoak: Ana eta Jabi. Argazkian, Ibai txikia sehaskan.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Emakume izena	Akuarela	Atsegina
	Espainiako hiriburua	Harridura	Behorra arreske
	Apala		
	Basa		
Emakume izena	Igorri		
Lezamako	Toka, dago		
			Bokala
			Omen, aipu
* Bergarako auzoa			Bizkaieraz, iratzea, garoa
Laborarien lanabesa		Kopuru jakin bat	
		Ogi, hitz elkartzeetan	
Landare mota			Praseo-dimioa
Jakinduria			Tona, labur-labur

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

J	A	K	I	T	A	E
R	P	O	I	K	O	S
S	E	G	A	D	O	S
B	V	A	L	G	O	
L	E	Z	A	M	A	R
D	I	D	A	L	I	
X	M	E	A			
L	A	D	R	I	L	
M	U					

D	O	L	O	M	I	T	A	K
A	V	A	U	Y	G	S	A	I
T	I	B	I	D	A	B	O	A
A	A	E	A	E	U	A	E	G
A	E	E	N	G	A	D	I	N
E	U	A	P	S	A	B	A	G
G	A	G	E	I	G	E	R	A
A	U	E	A	E	A	A	E	U
O	R	T	L	E	R	A	U	A

4	7	9	1	5	3	8	2	6
3	5	8	6	9	2	7	1	4
2	6	1	7	4	8	5	3	9
6	3	7	2	8	4	1	9	5
8	4	2	5	1	9	3	6	7
1	9	5	3	7	6	2	4	8
9	2	4	8	3	7	6	5	1
7	1	3	4	6	5	9	8	2
5	8	6	9	2	1	4	7	3



Ezetz igarri: Pospoia.

SUDOKUA

			9	2				
7	1	3		6				2
	2	4		3	7			5
	9	5						4
								6
6	3		2	8	4			
2			7			5		
3		8		9		7		
			5	3				

HIZKI SALDA

Topa itzazu Indiako Ozeanoko bost uharte

R	E	U	N	I	O	N	E	Z
E	T	I	A	O	E	L	W	I
O	M	A	L	D	I	V	A	K
M	A	U	R	I	Z	I	O	Z
P	E	M	A	I	N	O	E	I
Z	A	N	Z	I	B	A	R	A
E	G	I	K	O	N	Z	I	E
R	O	D	R	I	G	U	E	S
O	T	E	S	C	E	I	D	O

EZETZ IGARRI!

Oso gau hotza da eta pospolo bat baino ez duzu. Gelan badira kandela bat, berogailu bat eta kinke bat. Ahalik eta bizkorren berotu zaitezen, zer komeni zaizu aurrena piztea?

Ez dezatela esan modan ez zaudenik

Apple etxeak aurkeztu duen iWatch erlojuak badu erantzuna: sagarrarekin egindako erlojua (apple sagarra da ingelesez).
www.nopuedocreer.com



380

MILIOI EURO

Diru kopuru hori erabili behar izan du Activision enpresak inoiz egin den bideo-joko garestiena, *Destiny* izenekoa, egiteko. Hainbeste diru arriskatu dutenak lasai egon daitezke: salgai jarri eta lehenengo egunean, 500 milioi dolar (387,6 milioi euro) irabazi ditu.
www.abc.es



Max. 30°

Min. 14°

Astehenean hodeitsu eta giro ezegonkorra. Zaparradak eta trumoi-ekaitza izango dira.
euskalmet.net

goiena

2014-09-15

Maite Eskarmendi Moda era naturalean bizi duela dio aurkezle, erreportari eta zuzendari moduan ibilbide luzea duen kazetariak; egun, 'look' aldaketak ardatz dituen 'Itxuroso' saioan dabil | TXOMIN MADINA

"Izan ditut amak ni ikusi eta begiak estaltzen zituen garaiak"

1. Zer dio daramagun arropak garen moduz?

Zaila galdera! Batzuetan, asko esan dezake, eta beste batzuetan, ezer ere ez. Batzuek espresio moduan erabil dezakete eta beste batzuek, aldiz, ez zaie batere inporta. Gerta daiteke, gainera, ematen den informazioa zuzena ez izatea.

2. Eta itxuroso janzteko, poltsikoa ere horrelakoa behar da?

Ez; egun, diru gutxirekin jantz zaitezke oso ondo, edo, behintzat, gustatzen zaizun moduan. Dirua eta ondo janztea ez doaz eskutik.

3. Askorentzat, moda eta fribitate dira eskutik doazenak...

Aurreiritzien barruan sartuko nuke hori, ez du-eta zertan horrela izan. Zure irudiarekin arduratzeak ez du esan nahi pertsona superfiziala zarenik.

4. Zein da estilo handien duen euskalduna?

Ez naiz batere mitomanoa, baina estilo bat aipatzekotan... Jon Kortajarena esango nizuke, uste dut estilo polita duela.

5. Inoiz hutsik egiten ez duen moda aholku bat ematekotan...

Oreka mantentzeko: oreka koloreen, luzeren eta osagarrien alde-tik. Coco Chanelen jarraitzaile sutsua naiz: iraultzaile hutsa iruditzen zait; ez bakarrik moda munduan, baita emakume moduan ere. Hark zioen etxetik irten aurretik, ispiluan begiratu eta osagarri bat edo bi kentzeko.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Eskatuko nioke egun bakoitzerako makilatxo bat ematea, hala, egunero zerbait eskatzeko"

6. Zuk zeuk etxetik irten aurretik zenbat aldiz begiratzen diozu zure buruari ispiluan?

Ez askotan; bi aldiz, esango nuke: behin arropa janzten dudanean, eta etxetik irten aurretik. Gero, egun osorako ahazten naiz.

7. Modan aditua den batek zer sentitzen du duela 10-15 urteko bere argazkiak ikusita?

Modarekiko grina duginok etapa oso ezberdinak pasa ditugula uste dut. Nik izan ditut amak ni ikusi eta begiak estaltzen zituen garaiak, Argazki batzuk ikusita lotsa ez, baina barregura bai sentitzen dut.

8. Zein da zeure buruari eman diozun azken kapritxoa?

Flekodun jaka bat. Lanean banabil, ez naiz afaltzera-eta kanpora ateratzen den horietakoa; beraz, ahal dudanean, kapritxo bat erosten dut.

9. Modaz gain, kazetari moduan zein gaik motibatzen zaitu?

Modarena kasualitatez heldu zait; ni, lehenengo, kazetaria naiz. Kanean asko ibili naiz, eta aberasgarriena da jendea eta errealitate ezberdinak ezagutzea. Dudan hurrengo proiektua da Anjel Alkainekin arratsaldeetarako prestatzen ari garen saioa.

10. Personal shopper bezala ere ibilitakoa zara. Nolakoa da bes-teentzat arropak erostea?

Polita da. Ez erosteagatik, bezeroak erositakoa jantzi eta ondo geratzen zaiola ikustean jartzen duen aurpegiagatik baizik.

AINHOA LARRAÑAGA



'Ius' eta 'Demos'

Euskal herri honek Estatu bat sortu zuten, Nafarroako Erreina, eta hura mendeetan existitu izana erabakigarria izan zen gero nazio bihurtzeko. Konkistatu egin zuten 1200. urtean, 1512-1523ekoetan, eta indarrez hartu 1620an. Ondoren, herri hau okupatu eta kolonizatu egin zuten. Iragana aintzat izan gabe, ezin da etorkizuna eraiki.

Plano politikoan indarra hartzen ari da erabakitze-ko eskubidea. Euskal Herriaren zati handi batek erakutsi du erabaki nahi duela, Kataluniako bidari jarraiki. *Demosaren* zati batek, konkistaren eraginez, *demos* zabalago baten parte denak, azaldu du bere etorkizuna erabaki nahi duela. Demokraziak -baldin eta demokraziarik baldin bada-, birdefinitze bat eskatzen du.

Baina *iusak*, - Espainiar Konstituzioari egun Auzitegi Konstituzionalak egiten dion interpretazioak- ez du erabakitze-ko eskubiderik onartzen. Ez interpretazio bide hori existitzen ez delako, baizik eta egungo borondate politikoaren isla den Auzitegi Konstituzionalak, ez duelako beste begi batzuekin konstituzioa irakurri nahi. Demokrazian sakontzea eskatzen du honek, *demosak iusa* mugiaraztea.

OMEGA
Urban
Service

24h

945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak

Igogailuen
Mantentze-lanak